



BIZITZA DUINAK BORROKATUZ

» BESTE 40 URTEZ

ESK-KO VI. BILTZAR NAGUSIA

HASIERAKO PONENTZIA

esk

sindikatu

GIPUZKOA

Donostia

943 456 911

Zorroaga Pasealekua, 17 behe

20011 Donostia

gipuzkoa@esk.eus

Bergara

943 761 365

Fraiskozuri plaza 5, behe

20570 Bergara

bergara@esk.eus

NAFARROA

Iruñea

948 224 124

Emiliana Zubeldia 5, behe

31014 Iruñea

nafarroa@esk.eus

ARABA

Gasteiz

945 214 888

Beethoven 10 behe

01012 Vitoria-Gasteiz

araba@esk.eus

BIZKAIA

Bilbo-Bilbao

944 101 425

Gral. Concha 12, 1. ezker

48008 Bilbo

bizkaia@esk.eus

esk

sindikatu

esk.eus



BIZITZA DUINAK BORROKATUZ

» **BESTE 40 URTEZ**

VI. BILTZAR NAGUSIA

DURANGO
2024ko ekainaren 7a





AURKIBIDEA

EMENDAKINEN ARAUDIA

AURKEZTEKO ETA EBAZTEKO ARAUDIA.....	8
--------------------------------------	---

PONENTZIA EKONOMIKOA, SOZIOPOLITIKOA ETA SINDIKALA

LABURPENA.....	11
----------------	----

I. KAPITULUA - MARKO EKONOMIKO, SOZIOPOLITIKO ETA SINDIKALA..... 20

1.1 Trantsizio ekosoziala: kontzeptua eztabaidagai.....	22
1.2 COVID-19tik eratorritako osasun-krisia eta kapitalismoak inposatutako aterabidea.....	23
1.3 Baliabide naturalen eskasia, gerrak eta nahitaezko migrazioak	24
1.4 2020az geroztik ezarritako neurri sozioekonomikoak: etorkizun hurbilari so.....	25
1.5 Madril, Iruñea eta Gasteizko Gobernuak: kapitalaren interesen defentsan	26
1.6 ESK, jendearen sindikatua	28

II. KAPITULUA - ESK-REN SINDIKALISMOAREN PRINTZIPIOAK..... 31

2.1 Lanaren kulturari aurre egin.....	31
2.2 Sindikalismo feminista.....	32
2.3 Patronalaren aurka borrokatu	35
2.4 Sindikalismo ekosozialista.....	37
2.5 Baliok dituen sindikalismoa.....	39
2.6 Euskaltzaletasuna	41

III. KAPITULUA - ETORRIKO DIREN BORROKAK..... 44

3.1. Pobrezia eta gizarte-bazterketarekin amaitzeko, Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta.....	44
3.2 Pentsio duinak bermatuko dituen sistema publiko baten alde	48



3.3	Sektore publikoa defendatzea eta sustatzea.....	52
3.4	Zaintza ereduaren aldaketa.....	55
3.5	Fiskalitatearen erreforma gizarte bidezko baterako.....	58
3.6	Langile-klasearen banaketak kapitalari bakarrik egiten dio mesede.....	63
3.7	Ekintza sindikala ESK-n.....	66
3.8	Lan-osasuna. Lanpostuan ez hiltzea baino gehiago.....	70
3.9	Sindikalismoaren erronkak lan- eta ekoizpen-harremanen errealitate berrien aurrean: teledana, adimen artifiziala, automatizazioa.....	77
3.10	Ekoizpen-birmoldaketa planeta salbatzeko.....	78

IV. KAPITULUA - ALIANTZA SINDIKALAK ETA MUGIMENDU SOZIALAK 80

4.1	Aliantza sindikalak eta esparru bateratuak.....	82
4.2	ESKren sindikalismoa eta mugimendu sozialak.....	84

V. KAPITULUA - ALDAKETA-ESTRATEGIA. EREDU SOZIAL BERRI BAT 89

5.1	Bizitza erdigunean.....	90
5.2	Enplegua eta aberastasuna banatzea.....	90
5.3	Pobreziaren eta bazterkeria sozialaren aurka borrokatzea	90
5.4	Azpikontatrazioaren eta prekarizazioaren aurka borrokatzea	91
5.5	Desazkundera eta ondo bizitzea.....	91

ANTOLAMENDU PROPOSAMENA

VI. KAPITULUA - ANTOLAMENDU PROPOSAMENA	93
6.1 Sarrera.....	93
6.2 Zeintzuk dira V. Biltzar Nagusian onetsi ziren ESKren zuzendaritza organoak?	94
6.3 Nork hartzen du parte zuzendaritza organo horietan?.....	94
6.4 ESKren V. Biltzar Nagusian onartutako antolamendu proposamenaren oinarriak.....	95
6.5 Zer aldatu da, antolamenduari dagokionez, V. Biltzar Nagusitik?.....	96
6.6 Nola jarraitu nahi dugu ESK eraikitzen?	97
6.7 Zer egitura behar ditugu aurrera jarraitzeko?	98
6.8 Zeintzuk izango dira horien lanak eta funtzionamendua?	100
6.9 Nork nahi dugu egitura eta betebeharrak bere gain hartzea?	105
6.10 Barne koordinazioa hobetzeko zenbait ideia.....	108
6.11 Proposatutakoa gauzatzeko zer baliabide bideratu behar/nahi dizkiogu erakundeari? ...	109

SINDIKATUKO FINANTZAK

VII . KAPITULUA - SINDIKATUAREN FINANTZAK:	
KUOTA ETA ELKARTASUN FONDOA.....	111
7.1 Kuota.....	111
7.2 ESK-ko Elkartasun Fondoaren araudia.....	114

EMENDAKINAK AURKEZTEKO ETA EBAZTEKO ARAUDIA

Apirilaren 13tik 26ra Hasierako Ponentziaren emendakinak idatziz aurkeztu ahal izango dira Emendakinen Batzordean. Idatziz aurkeztuko dira posta elektronikoen bidez (emendakinak@esk.eus) edo webguneko formularioaren bidez (esk.eus/asanblada).

Emendakinen Batzordean aurkeztutako emendakinak onartu, ukatu edo negoziatuko ditu batzordeak eta, horren arabera, VI. Biltzar Nagusian eztabaidatuko dira.

ONARTUTAKO emendakinak, oro har, ez dira eztabaidatzen ezta bozkatzen. Onartuta daude eta jatorrizko testuan txertatzen dira. Salbuespen bakarra norbaiten emendakin horietako bat bozkatzeko eskatzea da.

UKATUTAKO emendakinak eztabaidatzen eta bozkatzen dira, emendakina aurkeztu duen pertsonak kentzea erabaki ezean edota emendakina defendatu nahi duen inor ez badago. Eztabaida eta bozketa honela egingo dira: emendakina aurkeztu duen pertsonak hartzen du hitza lehenengoz (edo horren ordezkari bat), gehienez bost minutuz emendakina defendatzeko. Gero, Ponentziak hartzen du hitza, ukatzeko arrazoiak emateko gehienezko bost minutu ditu, eta, azkenean, bozkatu egiten da.

NEGOZIATUTAKO emendakinak, Ponentzia eta emendakina aurkeztutako pertsonen artean adostasuna dagoenez, Ponentziak azalduko ditu eta ez dira eztabaidatuko ezta bozkatuko, bozkatzea eskatu ezean. Negoziatutako emendakin bat jatorrizko testura itzultzeko bakarrik aldatu daitezke. Egoera hori izatekotan, eztabaida eta bozketa honela egingo lirake: lehenengo jatorrizko testua defendatu nahi duen pertsonak hartzen du hitza bost minutuko denbora tartearekin. Gero, Ponentziak hartzen du hitza, negoziatutako emendakinen arrazoiak emateko gehienezko bost minutu ditu, eta, azkenean, bozkatu egiten da.



Web orrian, txostena **pdf** formatuan edo **ebook** formatuetan deskarga dezakezu. **Laguntza-eskuliburua** ere aurki dezakezu, prozesu horrek nola funtzionatzen duen argi eta garbi azaltzen duena.

esk.eus/asanblada

A large crowd of people is gathered for a protest or demonstration. In the foreground, two women are seen from behind, looking towards the crowd. The crowd is dense and diverse, with many people looking towards the camera or the speaker. A sign is visible in the crowd, and a microphone is held up by someone in the foreground. The background shows trees and buildings, suggesting an outdoor urban setting.

PONENTZIA EKONOMIKOA, SOZIOPOLITIKOA ETA SINDIKALA

LABURPENEA

1. SARRERA

2. Biltzar Nagusietako aurreko ponentzietan inoiz ez dugu sarrerarik egin. Argitalpen mota hau liburuetakoa iruditzen zitzaigun gehiago. Gure kongresu-dokumentua irakurri nahi zutenak behar bezala gidatzeko, kapitulu eta epigrafeetan behar adina garatutako aurkibidea proposatzearekin nahikoa geneukan.
3. Oraingoan, aldiz, sarrera hau idazteko erabakia hartu dugu, gure irakurleei erabilgarria izango zaielakoan. Batez ere, kontuan izanda ponentzia luzea izatean epigrafe ugari barne hartzen dituela, kapitulu bakoitzeko ideia nagusiak aurkezteak ondorengo eskaintzen du: erreferentzia-marko orokorra, idatzitako guztiari koherentzia ematen laguntzeko (espero dugu hala izatea eta erraz ulertzeko modukoa izatea) eta epigrafe bakoitzeko edukiaren sintesi argi eta labur moduan.
4. Txarrean jarrita, ponentzia segidan irakurtzeko debora edo gogoia ez duenak hobeto erabaki ahalko du zein kapitulutik hasiko den irakurtzen.

5. I. KAPITULUA TESTUINGURU EKONOMIKO, SOZIOPOLITIKO ETA SINDIKALAREN INGURUKO HAUSNARKETA DA

6. Gizarteko gero eta sektore gehiagok, batez ere elitekoek, barneratu egin dute oraingo eta etorkizuneko egoerak gero eta antza txikiagoa izango duela iraganarekin, eta etengabeko ekonomia-, gizarte-, politika- eta kultura-tentsioek zeharkatuko dutela nahasita. Irteerarik gabeko labirintoan gaude egungo eta etorkizuneko eredu kapitalistan, izan ere, kapitalarentzako onura neurtuen arrakastak gorabehera, pertsonentzako eta haien komunitateentzako bizitza egokia bermatzean ereduak guztiz egin du porrot. Eta ez da hori bakarrik, bizitzarako ezinbestekoak diren baliabideak eta ondasunak azkar batean xahutu dituzte, Lurrak berak bizirautea arriskuan jarritz.
7. Azken hamabost urteetako finantza-, pandemia- eta militar-leherketa anitzek argi uzten dute oraingo kapitalismoaren diagnostikoa, elementu negatiboak baino ezin ditu eskaini; munduko eliteen hitzaldi ofizialak, ordea, ikuspegi berde eta digitala marraztean tematzen da, harrapatuta gauden labirintotik teknologian eta politikan dugun fedea aterako gaituelakoan.
8. I. kapituluak bizi beharko ditugun tentsioak eta mugak azaltzen jarraitzen du. Tentsioen artean, ondorengoak dira nabarmentzekoak: lehenik eta behin, gehiago herrikoiak bizitza garatzen saiatzeko prekaritatea, beti klasearen, generoaren eta etnia/arrazaren eraginarekin; bigarrenaz, demokrazia liberal-ordezkarri ereduak pairatzen duen zilegitasun falta, izan «herriko gobernuko» intentsitate txikia kritikatzeko duten jarreretatik, sistema eta pribilegioak mantentzeko ere erabilgarria ez dela ulertzen dutenetara, abian dagoen olatu

neofaxista adoretuz; eta, azkenik, munduko ordenaren zaugarritasuna, AEBk hegemonia galdu izanaren ondorioz (munduko liskarraren testuinguruan areagotzen dena), multilateralismoa desegitearen ondorioz (nazioarteko instituzioek bereziki pisua galtzea barne hartuta), eta mundu-mailan gerra-erregimena pixkanaka finkatzearen ondorioz.

9. Mugen aldetik, bi dira azpimarratzeko modukoak: muga biofisikoak, jada gainditzen ari garenak edo gainditzeko muga gaudenak (haien artean nabarmenak dira termino sistemikoetan klima-aldaketa eta energia zein ezinbesteko lehengaiak agortzea); eta hazkunde egonkor eta orokor uhin hedakor berria sustatzeko ageriko ezintasuna, finantziarizatu-tako ekonomiaren baitan.
10. I. kapituluaren amaitzeko, pandemiak leher egin zuenetik egondako ekonomia- eta gizarte-politiken deskribapenean lurra hartzen dugu, baita gizartearen portaeran ere, giza-jokaera panoplia ezezaguna erakutsi digu horrek eta bereziki positiboa izan da.

II. KAPITULUAN ESK-REN HASTAPENAK BILTZEN DIRA

12. Esan genezake kapitulu hau gure ponentzietan klasikoa dela, bost urtean behin idazten dugun dokumentuetan logikoa denez (bi Biltzar Nagusien arteko denbora-tartea da hori). ESK bezalako sindikatu batentzat, hastapenak ezinbestekoak dira, praktikan behar bezain beste ateratzen ez ditugula onartu arren, sindikatuaren nortasuna osatzeko gakoa baitira, nola edo hala, gure ekintza sindikala eta soziopolitikoa gidatzen duen iparra adierazten digute.
13. Oraingo honetan, hastapenak sei epigrafeetan bildu ditugu, hau da, sei hastapenen inguruan hausnartu dugu. **2.1. Lanaren aldeko kulturari aurre egitea** epigrafean, ESK sindikatuak hastapenak moldakorrek direla onartzen dituela aitortzen hasten gara, erlijio-fedeko artikuluetatik oso urrun daude. ESK duela berrogei urte jaio zenetik ikuspuntua garatu izanaren adibide argia lanaren aldeko kulturari aurre egitea da. Garai hartan, lana eta enplegua (soldatapeko lana edo merkatuarentzat egindakoa) nahasten genituen, ordaindu gabeko lana ez genuen kontuan hartzen, emakumeek etxeetan egiten dutena eta bizitzak jarraitzeko ezinbestekoa dena, lana/enplegua gizarte-betebeharra zela jakintzat ematen genuen, guztiok txintik esan gabe onartu beharrekoa, lanari esker bakarrik lortu ziteke-elako familia-gastuak ordaintzeko lansaria, eta ongizate estatuko gizarte-eskubideak bermatzen zizkizulako, hala nola osasun-estaldura, langabezia, jubilazio-pentsioak etab.
14. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan patronalaren aurkako borrokako, industria-birmoldaketaren aurkako borroketako, eta, gerora, lan-erreformak bata bestearen atzean egitean enpleguak zeukan gero eta garapen negatiboko esperientziak sortutako hausnarketari esker suntsitu genuen gure lanaren aldeko kultura. Lan-kultura zaharrarekiko begirada aldaketan funtsezkoa izan zen gizarte-mugimenduen ikuspegitik ikasiz joan ginena, kasu honetan, feminismotik eta ekologia politikotik.
15. **2.2. Sindikalismo feminista** epigrafeak eztabaida sortu zuen ponentzia sortzeko orduan: hastapen hau jorratzeko epigrafea idaztea sentsua zuen edo ez. Kontuan izan behar da, ESK bezalako sindikatu batean onartu egin dugula sindikatu feminista izan nahi dugula, zeharka gure ideiak, jarrerak, praktika sindikalak etab. zeharkatzen ditu feminismoak, sin-

dikatuarekin lotutako errealitate guztiak bustitzeko. Aukera «kotoi-proba» onartzea zen: ESK sindikatu feminista izatekotan, ez da beharrezkoa horren inguruan idaztea, ekintzek aitortuko baitute haren feminismoa.

16. Hartutako erabakia sindikalismo feministaren inguruan hausnartu beharra zegoela izan zen, hausnarketari esker amankomunean (Biltzar Nagusiek eskaintzen duten markoa, sentsu honetan, oso baliagarria da) jartzeko zein puntura arte den feminista gure sindikalismoa, non egin dugun aurrera eta non oraindik ere aurrera egiteko asko dugun.
17. Epigrafe honek ESKren baitan feminismoaren problematika guztiak nola bizi diren biltzea du helburu.
18. **2.3. Patronalaren aurka borrokatzea** epigrafean bi ideia mota daude. Lehenengoa, ESKrentzako hastapen bezala zer esan nahi duen, hau da, nortasunaren elementu bezala zer den patronalaren aurka borrokatzea. Tradizioz, sindikatuen ekintza-sindikala bi bloketan sailkatu da: patronalaren aurkako borrokan oinarritutako ekintza-sindikalean sinesten duten sindikatuak, eta, batez ere ekintza-sindikala patronalarekin akordioak eta hitzarmenak bilatzean oinarritzen duten sindikatuak. ESKn beti kokatu gara sindikalki lehenengo blokean. Hortaz, ESKren nortasunean nahitaezkoa da klase-borrokan sinesten duen sindikatu sentitzea, langile-klaseko sindikatu sentitzea, patronala bestte klase bateko subjektu bezala ulertuta, klase kapitalistakoa.
19. Bigarren ideia gehiago garatuko da epigrafe honetan eta azken urteetan patronalaren aurka egindako bi borroka motekin dauka zerikusia: nortasun borrokalaria mantentzeko beharra, patronalaren aurka borrokatzea ekintza-sindikaleko ariketa gisa ikustea, ikasteko, borroka-taktikak hobetzeko eta berritzeko; defentsa- eta eraso-borroka aniztasuna sakoan ezagutzeko beharra, defentsa-borrokak gehiegi erabiltzeak eskubideak defendatzeko horiek bakarrik erabilgarriak direla pentsaraztea saihestuz, kontuan izanda, batzuetan, eskubide gehiago lortzeko eraso-borrokak hobea direla, baita eskubideak defendatzeko ere.
20. **2.4. Sindikalismo ekologista** epigrafea, sindikalismo feminista eta lanaren aldeko kulturari aurre egitea epigrafeak aurkeztean esan bezala, gure nortasun sindikalean txertatutako hastapena da. Izan ere, 2013ko IV. Biltzar Nagusian ideia ekosozialistak onartu genituen, ESK sindikatu bezala jaio zenean antikapitalismoarekin egin genuen bezala.
21. Epigrafe honen edukian, lehenengoz, ESK-k defendatzen dituen ekologismoaren oinarritzko ideiak aurkezten dira; eta, bigarrenez, gaur egun aurre egin beharreko erronkak, ideien arloan, ekintza sindikaletan eta mugimendu ekologistarekin dituen aliantzetan, kontuan izanda sindikalismo ekologistaren parte izan nahi dugula.
22. **2.5. Balioak dituen sindikalismoa** epigrafean hausnarketa oso konplexua proposatzen da, sindikatuen aldetik oso gutxi hausnartu da horren inguruan. Epigrafe honen izenburuak barne hartzen duen guztia jorrazteko asmorik gabe, horri heltzea erabaki dugu, gutxienez ESK-k ideiak dituen bi lan eremutan, ideologiaren eta esperientziaren ondorioz.
23. Lehenengoz, epigrafean azaltzen da ESK-ko afiliatu eta ordezkariak lantokietan sindikatuari nortasuna ematen dioten balioetan oinarritutako portaera etikoak defendatu eta praktikatu behar dituztela. Agerikoa den zerbait da, ESK ez da izan behar feminismoaren balioetan sinesten ez duten afiliatuentzako lekua, edo patronalaren aldekoentzako, edo ekologismoaren aurkakoentzako eta. Baina, era berean, alde pertsonalera jota, ezin da

onartu ESK-ko ordezkariak ordu sindikalak beraien onurarako erabiltzea, adibidez, edo lantokiko beste langileen galdera edo eskaerei jaramonik ez egitea, gure sindikatuan afiliatuta ez egoteagatik.

24. ESK-k jarrera eta portaera etikoak eta balio progresisten aldeko defentsa mantentzeko bigarren eremua afiliazioarekin zuzenean zerikusirik ez duten gertaerak dira. Afiliazioaren bidez, lantoki bakoitzean langileak ordezteko organoetan duen presentziaren bidez edo zuzeneko komunikazio digital zein analogikoaren bidez egin behar du hori. Hainbat adibide daude eta beti bat egiten dute bat pertsona zaurgarrienen eskubideen defentsan aurrerapausoak egiteko beharrean, lantokikoak zein kanpokoak izan: immigranteak, txirotak eta baztertutakoak, erasoak eta tratu txarrak jaso dituzten emakumeak, LGTBIQ pertsonak, langile prekarioak etab.
25. Gure esperientzia sindikaletik abiatuta, bi dimentsio horiek gurutzatzean hartutako antolaketa-moduak indartzen dira. Kapitulu honen beste epigrafeetan ikusi dugun bezala, balioen zein antolaketaren kontua eta haiek gurutzatzea ez dirudi oso zaila. Sortutako aukerak ugari dira eta ez ditugu guztiak aipatuko. Eraginkorragoa da hautatzen ditugun antolaketa-ereduei balioa ematea: edozein antolaketa-ereduan langileen autonomia sustatzea ezaugarri nabarmena izan behar da; batasunaren alde egitea, balioen edo hastapenen kontra egitea salbuespena izanik; asanblada-antolaketa ekimenean alde egitea; sindikatuen interesak gehiago langilearen gainetik ez jartzea etab.
26. Kapitulu honen azken epigrafea **2.6 Euskaltzaletasuna** da. Epigrafe honen edukian, ESK-k euskararekin eta euskal kulturarekin dituen konpromisoak jaso nahi dira eta etorkizuneko helburuak planteatu eremu honetan.

27. III. KAPITULUA. ESPERO DITUGUN BORROKAK

28. Espero ditugun borrokak, ponentziaren kapitulurik luzeena da. Hamar epigrafe ditu eta, alde batetik, datozen bost urteetan borrokatu beharko ditugun ekintza soziopolitiko eta sindikatuko fronteak azaltzen dira; beste alde batetik, borroka-fronte horien ezaugarriak ematen dira, eta baita ESK-k haietako bakoitzari proposatzen dizkien joerak ere.
29. **3.1. Pobrezia eta gizarte-bazterketarekin amaitzeko, Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta** epigrafean, lehenik eta behin pobrezia existitzearen errealitatea aurkezten da, mundu-mailako datuetatik abiatuta Euskal Herrikoetaraino. Datuen gaineko informazioa emateaz gain, COVID-19 pandemia eta geroko hiru urteetan bizitako ekonomia gorakadako egoeretan ere pobrezia zergatik ez den txikitzen azaltzen da, eta zergatik mantentzen edo handitzen den.
30. Gainera, pobrezia «tradizionaletik», nolabait esatearren, haratago, gizarte-bazterketa egoerak nola areagotzen diren aztertzen da, paperarik gabeko immigranteek edo etxebizitzarik eduki ezin dutenek aurkitzen dituzten arazoak direla eta.
31. Bigarrenez, pobreziaren aurka egiteko prestazio publiko baldintzatuen eragin eza azaltzen da, hala nola estatuko BGDS, EAEko DSBE eta Nafarroako EB, baldintzatuak izateak dakartzan zehar-kalte hain larrietan azpimarra jarritz: laguntza ez zaio behar duen jende pobre guztiari heltzen eta heltzen zioen jendearen zati handi bat ez du pobreziatik ate-

ratzen; jende pobre estigmatizatzen du, pobrezia frogatu behar duelako eta kontrol-bal-dintzak eta betebeharrak onartu, gero eta zigortzaileagoak direnak; eta oso garestia den administrazio burokratiko behar da.

32. Hirugarrenez, baldintzatutako prestazio horien aukera bezala BGOE ezartzea proposatzen dugu. BGOEren ezaugarriak azaltzen dira, aurrekontu-bideragarritasuna, ongizate estatuko gizarte-eskubideekin eta bestelako politika publikoekin elkarrekin ezarrita egotea, eta pobreziaaren aurka borrokatzeko aukeraren nagusitasuna, ez bakarrik alor honetan, baizik eta baita berdintasunezko gizarte askeagoa lortzeko ere.
33. **3.2. Pentsio duinak bermatzen dituen sistema publikoaren alde** epigrafeak, lehenik eta behin, 2019ko urtarriletik Euskal Herriko Pentsionistak mugimenduaren historia arrakastatsua jorratzen du. Alde batetik, mobilizazioak hasi zirenean zeuden erreforma hain negatiboak atzera botatzea lortu du; bestetik, mugimenduaren ezaugarriak beraiek nabarmentzekoak dira (bateratua, askotarikoa, anitza, pentsioen markotik harago mobilizatzeko ardatz anitzak elkartzeko ahalmenarekin, solidarioa eta.).
34. Bigarrenez, egiteke dauden aldarrikapenen plataforma proposatzen da eta haren egingarritasuna.
35. Hirugarrenez, ESK-ko jubilatuek mugimenduan duten paperaren gaineko zenbait iruzkin egiten dira eta ESK-ko bizitzan gero eta gutxiago parte hartzen dutela aipatzen da.
36. **3.3. Sektore publikoa defendatzea eta sustatzea** epigrafeak langileek aurre egin behar dituzten arazoak jorratzen ditu, bereziki mugimendu sindikalak sektore publikoan aurre egin beharrekoak. Sektore hori kapitalismo globalizatuak gehien erabiltzen duen froga-bankuetako bat da, publikoari eraso egin ahal izateko, jakin badakitelako, administrazio publikoak zerbitzu publikoetan atzera egitean, kapital multinazionalak lur ongarrirua topatuko duelako erruz dirua egiteko.
37. Epigrafe honetako analisi luzea zerbitzu publikoek aberastasuna banatzeko berme nagusi bezala duten papera azaltzen hasten da, neoliberalismoko hiru hamarkada baino gehiagoko erasoek jada nahiko astindutakoa. Baina, zerbitzu publikoak gutxinaka desagertuz gero, gure gizarte aberatsetan berdintasun eza eta pobrezia gero eta handiagoak izango lirarteke, orain arte ezagutu ez ditugun mailetara heldu arte, Hegoalde globaleko herrialdeetako mailetara.
38. Jarraian, pribatizazioek suposatzen dutena jorratzen da, gutxi batzuentzako berehalako onura eta gutzientzako etorkizuneko pobrezia.
39. Hirugarrenez, ESK-k defendatzen duen joera proposatzen da, Zainketa Sistema Publiko eta Unibertsalaren aldekoa.
40. Azkenik, ESKren ekintza sindikala sektore publikoan duen joera biltzen duen laburpena dago epigrafearen ondorio gisa.
41. **3.4. Zaintza ereduaren aldaketa** epigrafean, lehenik eta behin gaur egungo zaintza-lanen egoera aztertzen da. Jarraian, egoitza batzuetan, etxeko-laguntza zerbitzuetan, esku-hartze sozialeko sektorean etab. egondako borroka-esperientzia batzuk aztertzen dira.

42. Alor honetan ESKren joera nagusia kalitatezko zaintza-sistema publikoa aldarrikatzea da.
43. Azkenik, etxe-langile eta zaintzaileen sindikatu-atalak sortzeko helburuarekin lau lurraldeetan gaiaren inguruko lana garatzea proposatzen da.
44. **3.5. Fiskalitatearen erreforma gizarte bidezko baterako** epigrafean, hiru atal daude. Lehenengoan, neoliberalismoa indar handiarekin herrialde guztietako ideologia eta zerga-politikaren kudeaketan nola sartu ahal izan den azaltzen da. Ondorioz, Iparralde aberatseko herrialdeetan, 1980ko hamarkadatik, zerga-kontrairaultza gertatu da.
45. Bigarrenean, Euskal Herriko fiskalitatearen arazo nagusiak aztertzen dira. Azkenik, hirugarrenean, zerga-politika berrirako hamar irizpide proposatzen dira, neoliberalismoak Eusko Jaurlaritzan eta Nafarroako Gobernuan politika fiskal erregresiboarekin sortu duen etengabeko gainbehera erradikalki aldatzeko. Irizpide horiek euste-horma lirateke, eta baita zerga-politika progresibo erradikal eta berria eraikitzeko zimenduak ere.
46. **3.6. Langile-klasearen banaketak kapitalari bakarrik egiten dio mesede** epigrafeak bi helburu ditu. Lehenik eta behin, azpikontratazioaren aurka erradikalki borrokatzeko joera sindikala proposatzen da, patronalak tokiko langileak eta azpikontratetako langileak banatzeko sortzeko erabiltzen duen modu zabalena azpikontratak direla kontuan izanda. Lehenengo helburu horri lotuta, ekintza sindikaleko hainbat neurri proposatzen dira, enpresa nagusietan zein azpikontratetan burutu daitezkeenak.
47. Bigarren helburua gehiegizko esplotazioaren harrobi izan daitezkeen pertsonen, haien egoeren eta enpresa mota berezien erreparoso egitean datza. Zehazki, azken urteetan ESK-ko ekintza sindikalean hainbat esperientzia izan ditugu hiru errealitatekin. Honako hauez ari gara: autonomo faltsuak, paperarik gabeko immigranteak eta Enplegu-Zentro Bereziak. Azken horiek pertsona disfuntzionalekin lan egiten dute eta azken urteetan EAEn ugaritu egin dira, batez ere Foru Aldundietako politiken babesean, gehiegizko esplotazioa noraino eta zein formula motekin aurrera eraman daitekeen irudi ikaragarriak eskaintzen dituztenak.
48. **3.7. Ekintza sindikala ESK-n** epigrafean, ekintza sindikala eta negoziazio kolektiboa epigrafe bakarrean biltzea erabaki dugu, bi lan eremuen ezberdintasun eta bereizgarritasunak aitortzen ditugun arren. Gurea bezalako sindikatu baten ikuspuntutik, negoziazio kolektiborako epeetatik kanpo ekintza sindikal handia daukana, negoziazio kolektiboa gailendu egiten da ekintza sindikaleko arloan eta batzuetan hori bakarrik jorratzen da hitzarmenak negoziatu behar direnean.
49. ESK-ko ordezkariak afiliazioaren eskaerei erantzun behar diotenez, ekintza sindikalaren zati bat errepikakorra eta are burokratikoa izan daitezkeen arren, epigrafe honetan indartzen dena gure ekintza sindikala irudikorragoa izateko planak egitea da, II. eta III. kapitulueta epigrafeetatik atera ditzakegun elementuetatik abiatuta.
50. Negoziazio kolektiboari dagokionez, ez dugu amore eman behar, ez baita egia oso ezaguna den arloa dela eta bereziki plataformen sorreran dena asmatuta dagoela. Aurreko paragrafoan azaldu dugun bezala, II. eta III. kapitulueta negoziazio-plataformetan ideia berriak proposatzeko nahiko lagungarriak izan daitezkeen ideia-sorta daukagu.
51. **3.8. Lan-osasuna. Lanpostuan ez hiltzea baino gehiago** epigrafean, ponentziak ad-

ministrazio-iturriak erabili ditu eta, tamalez, lan-istripuek azken urteetan izaten ari diren gorakadaren fenomenoaren tamainaren berri ematen digute. Eta, are txarrago, lan-osasunaren aurkako eraso-modu hori galarazteko edo gelditzeko instituzioen ahalmen ezaren berri ematen digute datuek: Lan-istripuak ikusgarrienak eta tragikoenak izan daitezke, baina ez dira gehien hedatutako lan-osasunaren aurkako eraso, izan ere, lan-gaixotasunen inpaktua oraindik ere lan-osasunaren ezkutuko aurpegia dira.

52. Hego Euskal Herriko oraingo lan-osasunaren analisi oso fidagarriaz gain, epigrafe honetan azken urteetan gora egin duten lan-osasunari egindako kalteen kritika ondo argudiatuak ematen dira, eta ESKtik hedatutako ekintzen laburpena. Izan ere, gauzak txarto egitean gure burua kritikatzan dugun bezala, gure aurrerapenak ere aitortu behar ditugu. Lan-osasunean badirudi ESK-k egindako lana azkenengoz gurutzaldi-abiadura hartu duela.
53. **3.9. Sindikalismoaren erronkak lan- eta ekoizpen-harreman berrien errealitateen aurrean: telelana, adimen artifiziala, automatizazioa** epigrafeak bi gai lantzen ditu ikuspegi analitikoetik, hau da, alde batetik, jada lantokietan ezartzen hasitako errealitate gisa zer suposatzen duten eta zein aldaketa sortzen ari diren lan-harremanetan, eta, bestetik, sindikalki nola ekin behar diegun. Bi errealitate horiek teknologia berriak eta telelana dira.
54. **3.10. Ekoizpen-birmoldaketa planeta salbatzeko** epigrafea IV. Biltzarreko Ponentzian (Nafarroa, 2013ko azaroa) txertatutako edukietan aurrerapausoa da. Epigrafe honetan, material- eta energia-kontsumoa zergatik murriztu behar dugun eta txikiagotzeko joera zergatik hartu behar dugun aztertzeetik haratago goaz. Nortasun ekosozialista eta antikapitalista duen korrante baten baitan ikusten dugu gure burua, eta, sindikatu gisa, behartuta gauden Euskal Herriko industriari egin beharko den trantsizio ekosozialaren esperientziekin bat egitera. Zentzu horretan, epigrafe honen amaieran bidezko trantsizio ekosozialari ekiteko bost joera sindikal proposatzen dira.

55. **IV. KAPITULUA. ALIANTZA SINDIKALAK ETA GIZARTE-MUGIMENDUAK**

56. Kapitulu honek bi epigrafe baino ez ditu, lehenengoa aliantza sindikalei eta batasun-markoei bideratutakoa, eta bigarrena ESKren sindikalismoari eta gizarte-mugimenduei zuzenduta.
57. **4.1. Aliantza sindikalak eta batasun-markoak** epigrafeak 2019-2020 ikasturtetik 2023-2024 ikasturtera bitartean ESK-k parte hartu duen aliantza sindikalen eta batasun-markoen funtzionamenduaren balantze laburra egiten du. Azken bost urteak aldi anomaloa izan dira eta ez bakarrik pandemiak 2020-2021ean izandako eraginagatik. Eskubide Sozialen Karta mantendu da eta ESK aktiboagoa izan da horretan zein beste gizarte-mugimendu batzuetan, batez ere feminismoan eta ekologismoan. Bestalde, ekintza sindikalarik ikuspuntutik, erakunde-sindikalen geometria aldakorra gailendu diren aliantzak ikusi ditugu, batez ere negoziazio kolektiboari lotuta.
58. Argi dago, batasun-markoetan eta aliantza sindikaletan, ezin dugula esan bost urte hauetan sindikatu guztien esperientziek jarraitzeko moduko patroia finkatu dutenik.

59. Nabariena LABek ELAk bere gain zuen babesarekin apurtzea izan da eta negoziazio kolektiborako aliantzetan bere kabuz bozkatzea erabakitzea, izan ere, gizarte-mugimenduekin egindako aliantzetan, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta mantentzea funtsezkoa izan da.
60. **4.2. ESKren sindikalismoa eta gizarte-mugimenduak** epigrafeak gizarte-mugimenduen azterketa biltzen du, batez ere haietako batzuekin batera lan egite zer proposatu daitekeenaren inguruan hausnartzeko. ESKren joera beti izan da gizarte-mugimenduekin lan egitea ahalbidetzen duten uneak eta moduak bilatzea.

61. **V. KAPITULUA. ALDAKETA ESTRATEGIAK.**
GIZARTE-EREDU BERRIA

62. Azken kapitulu hau ponentziaren amaiera da eta bi ataletan banatzen da. Lehenengoa, bigarrena baino askoz laburragoa, I. kapituluaren analisiaren jarraipena da. Green New Deal –GND– aukera kritikatzeko, kapitalismo globalizatuaren buruen joera gisa. Azken hiru hamarkada eta erdietan ezagutu eta jasan dugun neoliberalismoaren kudeaketa eredu, jada etorkizunik ez daukana, kudeaketa-eredu berriagatik aldatu nahi dute horren bitartez, aro berde eta digital berrian metatze kapitalista mantentzen dela bermatuz. ESK GND itun berriaren erabat aurka dago eta eredu ekosozialista eta antikapitalistaren alde egiten du, desazkundera oinarrituta.
63. Bigarren atalak ESK-k GNDrako aukera bezala proposatzen dituen helburu eta estrategiak biltzen ditu eta ondorengo epigrafeetan zehazten dira:
64. **5.1. Lantokiko bizitza.**
65. **5.2. Enpleguaren eta aberastasunaren banaketa.**
66. **5.3. Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borroka.**
67. **5.4. Azpikontratazioaren eta prekarizazioaren aurkako borroka.**
68. **5.5. Desazkundera eta bizitze ona.**

I. KAPITULUA

MARKO EKONOMIKO, SOZIOPOLITIKO ETA SINDIKALA

69. 2013ko azaroan Atarrabian ospatutako gure IV. Biltzar Nagusia salbuespena eta mugarrira bilakatu zen marko teoriko eta soziopolitikoaren analisiari dagokionez. Izan ere, Biltzar hartan, ESK sindikatuak nortasun berria hartu zuen, sindikatu ekosozialista eta feminista gisa, eta horrek errealitatearen azterketa sakona egitea eskatu zigun, ikuspegi globaletik; hain zuzen, ordura arte egin gabe genuena. Ordurako, AEBetan 2008an higiezin burbui-laren eta haren lotura finantzarioaren eztearen ondorioz hasitako Atzeraldi Handiaren okerrera pasata zegoen jada. Krisi horrek hankaz gora jarri zuen mundu osoko banka, eta kapitalismo neoliberalaren krisi desberdin batean sartu zela erakutsi zuen. Testuinguru horretan, ESK hausnarketa bat egiteko gai izan zen, gure antolakundean ere mugarrira izan zena.
70. Momentu hartatik aurrera, azken hamarkada eta erdian azkenean baieztatu dena sumatzen hasi zen: egungo eta etorkizuneko egoerak gero eta antz gutxiago izango duela iraganarekin. Azken urte hauetan elkarren artean nahasten diren tentsio sozial, ekonomiko, politiko eta kultural sakonak jasaten ari gara. Gaur egungo testuinguruan, sortzen ari den ziklo historikoa ziurgabetasun eta kontingentzia garai berri gisa plano guztietan aztertze-ko betebeharra eta beharra dugu, eta horrek muga ekologikoak gainditzea du esan nahi du funtsean.
71. Egun indarrean den eredu sozial, teknologiko eta ekonomikoa ondorengoan oinarritzen da: irabazi ekonomikoa atera eta dirua biderkatzeko modua muturreraino hobetzeko, eza-gutza eta boterea erabili dituela, alegia. Baina, hori lortzeko, bizitzarentzako ezinbestekoak diren baliabide eta ondasun ugari ziztu bizian xahutu ditu, desberdintasun eta sufrimendu jasanezinak eragin ditu, eta, une honetan, bizitzaren jarraipena arriskuan jarri du. Eredu kapitalista hori logika zehatz batean harrapatuta dago: ez du gaitasunik berak sortutako arazoak konpontzeko. Hala, lau ardatz ditu oinarri: krisi ekologikoa, energia-krisia, zaintza-krisia eta krisi politikoa. Boterea metatzeko eta pilatzeko eredu arrakastatsua da, baina gaur egun zein etorkizunean, pertsonen eta planetaren bizitza duina bermatzeko lanetan huts egin du.
72. Azken 15 urteotan gertatutako ezte finantzario, pandemiko eta militar ezberdinek egungo sistemaren arrakalak agerian uzten dituzte. Honako ezaugarriak dituzte: kapital-metaketa-aren geldialdia, multinazional handien parekorik gabeko protagonismoa, aldaketa klimatikoaren azkartze esponenziala, energia fosilaren eta materia kritikoen agortzea, erreproduktio sozialaren krisi gero eta sakonagoa, bereziki zainketa-krisiari dagokiona, mundu-ordenaren pitzadura eta demokrazia liberalaren pixkanakako deslegitimazioa.

73. Diagnosi honen aurrean, kapitalaren asmoa kontakizun ofizial batekin konbentzitzea da. Kontakizun horrek bertsio berde eta digital bat eskaintzen digu, eta agenda horrek trantsizio bat gauzatu nahi du, teknologian oinarrituko dena eta ez politikan, eta bost gaketan oinarrituta dagoena.
74. Kapitalismoarentzat, hazkundera, deskarbonizazioa, desmaterializazioa eta inklusioa fenomeno guztiz bateragarriak dira. Hala da, kapitalismoak hazkundera soilik balio onuragarri gisa ulertzen duelako. Deskarbonizazio-jarduera guztiak (ekonomia birmoldatzea, CO2 emisioak jaitsi daitezen, edo CO2a atzemateko), desmaterializazio-jarduera guztiak (ekonomia birmoldatzea, material gutxiago behar izateko eta produktu analogiko gutxiago eta lineako produktu gehiago ekoizteko) eta inklusio-jarduera guztiak (kapitalismoak merkaturatik kanpo funtzionatzen duten esfera ekonomikoak atzemateko duen gaitasuna, beraz, merkatura sartzeak) hazkundera eragingo luke.
75. BAU (Business As Usual) masiboki aplikatuko zaie energia berriztagarriari eta digitalizazioari. Hau da, nahiz eta egoera katastrofikoak izan, egungo ekonomia eta ekoizpen-sistema arazo horiek bere metodoen arabera konpontzen saiatzen da, ia aldaketarik gabe, horrek kolapsatzera edo zuzenean desagertzera eramango gaituen arren.
76. Multinazional handiek, botere korporatiboaren jaun eta jabe direnak, uste osoa dute erabat berpiztuko direla energia enpresa erraldoiak, industria militarra, enpresa teknologiko handiak eta inbertsio-megafuntsak.
77. Gaur egun zalantzan jarri arren, balio-kate globaletan konfiantza dago oraindik ere. Horrek ekoizpenaren nazioarteko banaketa suposatzen du, alegia, ekoizpena hainbat herrialdetan egiten diren jardueretan eta zereginetan banatzea. Horri esker, hainbat ekoizpen-etaparen bidez produktu amaitu bihurtzen doan heinean, produktuari neurrira egindako balio gehigarria egotzi dakioke.
78. Zerbitzu publikoetan formula berriak probatzen ari dira, korporazio kapitalista handien esku pribatuetara pasa daitezela.
79. Egungo testuinguruan, ez dirudi etorkizunik izango duenik kapitalismoaren bertsio berde eta digitalak ekar lezakeen trantsizio baten kontakizunak. Kapitala metatzeko ustiapen eta desjabetze-dinamikek, tentsio oso esanguratsuak izateaz gain, egiturazko mugak ere izaten dituzte.
80. Kapitalak proposatzen dizkigun errezetetako batek ere ez ditu, inondik inora ere, egun jasaten ari garen tentsioak konpontzen edo arintzen.
81. Erreproduktio sozialaren krisiak zera esan nahi du: herritar gehienek beren bizitzak prekaritate gero eta sakonagoan garatzen dituztela. Klaseak, generoak eta jatorriak zeharkatzen duen prekaritate hori ez da neoliberalismoak proposatzen dituen alternatiben bidez konponduko. Areagotu egingo da. Erreproduktio sozialaren krisi horren barruan eta emakumeek pairatzen dituzten desberdintasun askoren arrazoia, zaintzaren krisia da.
82. Demokrazia liberal-ordezkatzailearen eredia zilegitasuna galtzen ari da, bai "herriaren gobernu" gisa duen balio urria kritikatzeko duten jarrerak daudelako, bai sistema eta bere pribilegioak mantentzeko baliagarri ere ez dela irizten diotenak daudelako. Ondorioz, martxan dagoen uholde neofaxista ahalbidetu egiten da.

83. Mundu-ordenaren zaugarritasunak ere dinamika ofiziala apurtu du; izan ere, AEBek hegonia galdu dute, eta horrek gatazka globalaren testuingurua azkartu du. Neurri batean, eredu multilateral desagertu da, nazioarteko erakundeek indarra galdu dute, eta planeta- eskalan gerra-erregimena era progresiboan ezarri da.
84. Tentsio horiek definitutako markoa, kapitalismoaren bilakaeraren berezko mugekin osatzen da. Berezko muga horiek ustiapen identitatearekin zein desjabetzearekin dute zerikusia. Alde batetik, dagoeneko gaintzen ari garen muga biofisikoen multzoa topa dezakegu, eta horien artean, sistemikoki, klima-aldaketa eta funtsezko energia eta lehengaien agortzea nabarmentzen dira. Bestalde, hazkunde egonkor eta orokor bat eragingo duen uhin hedakor berri bat bultzatzeko itxurazko ezintasuna dago, ekonomia finantzatuaren esparruan.
85. **I. I TRANTSIZIO EKOSOZIALA: KONTZEPTUA EZTABAIDAGAI**
86. Trantsizio ekosozial emantzipatzaile baterako oztopo nagusia kapitalismoak “instituzionalizatutako ordena” da. Sindikatu ekosozialista, feminista eta antikapitalista garen aldetik, gure ortzi-muga langileen esplotazioarekin amaitzea da, bai eta kapitalak lapurtutako naturaren, zaintzaren eta komunaren desjabetzeari amaiera ematea ere. Horrela soilik lortu ahalko dugu Trantsizio Ekosozial Bidezkoa gauzatzea, betiere, deskolonizatutako eta despatriarkalizatutako gobernantza globalean oinarrituta egongo dena.
87. Gainera datorkigun kolapso ekologikoa ezin da bere osotasunean ulertu zainketen krisia ere kontuan hartu gabe. Zainketen krisi horrek eragin handiagoa du emakumeengan, genero-ardatzak ez ezik, arraza, jatorri eta klase-ardatzak ere zeharkatzen baititu. Gutxiengo aberats eta pribilegiatuena da planetaren jasagarritasunean eragin negatiboena duen sektorea.
88. Elite ekonomikoek, mundu mailan, gatazka ekosozialak biderkatzen dituzte, eta euren jardunak eragin zuzena du herri indigenetan eta nekazaritza-komunitateengan. Gainera, giza eskubideen urraketa ugariaren erantzule dira, batez ere emakumeei dagokienez.
89. Pobreziak emakume aurpegia du, eta hori energia-baliabideetara eraman daiteke. Izan ere, emakumeak dira energia-pobrezia gehien pairatzen dutenak, eta, zehazki, zaintza-lanez arduratzen diren emakumeak, haiek baitira etxeetan denbora gehien ematen dutenak.
90. Era berean, generoa faktore erabakigarria da krisi klimatikoaren erantzukizun indibidualei dagokienez. Gizon gisa sozializatutakoei lotutako portaerek eta rolek jokaera eta harreman-eredu desberdinak dituzte ingurumenarekiko, emakumeen jokaerekin alderatuta. Gizonek, oro har, klima-aztarna handiagoa eragiten duten portaerak eta jokabideak dituzte (ibilgailu pribatua gehiago erabiltzea, hondakin gehiago sortzea...). Patriarkatuarengandik eta kapitalismoarengandik eratorritako ondorioak direla eta, emakumeak eta kolektibo zaugarrienak dira bizi dugun larrialdi-egoeraz gehien jabetzen direnak.
91. COVID-19 pandemiaren krisiaz geroztik, iparraldeko herrialde aberatsetan orokortutako kudeaketa ekonomikoa eta Atzeraldi Handiaren ezta sistema kapitalistaren etorkizua

na mehatxatu zuen urte giltzarriak alderatzen baditugu, elite ekonomiko eta politikoen begietara (2008-2010), aro berri batean sartu garela lirudike. Atzeraldi Handiaren ondoren, politika austerizida basati eta kriminala ezarri zen, langile-klasea eta herri-sektore oro, bai eta Europar Batasuneko herrialde ahulenak ere (Grezia, Portugal, Espainia eta Italia) krisiaren gastuak ordainarazi asmoz. Bost axola zion krisi hori eragin zuena finantza-sektorea zela onartzeak, eta gainera, Estatu guztiek sektore hura laguntzea ontzat hartu zuten, kapitalismo globalizatuan zuten zeregina funtsezkoa baitzen sistemak bere horretan jarrai zezan.

92. 2019an, COVID-19aren krisiaren atarian, Atzeraldi Handiaren ondorioak iraganeko kontua zirela zirudien, munduko ekonomiako datuek kontrako adierazi arren. Izan ere, atzeraldi berri baten mehatxua aditzera ematen zuten datuok. Hala ere, pandemiaren unerik gorenetan ekonomia kudeatzeko moduak zerikusi gutxi izan zuen Atzeraldi Handiaren urteetako kudeaketarekin. Egoera horrek gogoeta egitera bultzatu gintuen orduan, eta orain ere hala egiten jarraitu behar dugu, testuinguru horretan, sistema kapitalistaren aldakortasuna agerian geratu baitzen. Botere politikoeak beti sustengatuko dute sistema, bere labirintotik irteteko gai ez izan arren, egoeretara egokitzen joateko formulak bilatzen trebeak baitira.
93. Kapitalak dakarren immobilismoaren eta fikziozko irtenbideen aurrean, eta soilik gutxi batzuen onura ekonomikoan oinarritutako interes patriarkalei eta pribatuei baino ez die-na erantzuten, ESK-k egoera horri ekosozialismotik eta feminismitik erantzuteko apustua egin behar du.

94. **1.2 COVID-19TIK ERATORRITAKO OSASUN-KRISIA ETA KAPITALISMOAK INPOSATUTAKO ATERABIDEA**

95. COVID-19aren pandemiak agerian utzi zuen bizitzaren sostengurako oinarrizko diren zerbitzu publikoen ahultasuna: osasun publikoa, gizarte zerbitzuak, etab. Privatizazio-politikak garatzen urte asko eman ondoren, pandemiaren ezta salbuespenezkoak ziren neurriak hartu behar izatea eragin zuen. Neurri horiek, kasu askotan, birusaren hedapena saihesteko baliabide faltagatik hartu ziren, eta osasun-sistemaren eta gizarte-zerbitzuen ahuleziak eraginda.
96. Gogoan izan behar da langile klaseak krisi osoan zehar erakutsi zuen erantzukizuna, benetan funtsezkoak zirela frogatu zuten zerbitzuetako langileen konpromisotik hasi eta funtsezkoak ez ziren jardueren etetea behartu zuten langileenganaino. Azkenik, gobernuek funtsezkoak ez ziren jarduerak geldiarazteko erabakia hartu zuten, baina gogoratu behar da ez zela erabaki baketsua izan, eta berandu eta gaizki egin zela, ordaindutako baimen berreskuragarri baten bidez. Baimen hori langile-klasearen bizkar egin zen, eta enpresentzat ez zuen inolako gasturik suposatu.
97. Honi guztiari ABEE-aren figuraren aplikazioa gehitu zitzaion. Izan ere, langileen estaldura gutxituz joan zen pixkanaka, enpresentzako finantzaketa mantentzen zen bitartean, eta hori patronalaren galeren sozializazioaren adibide argia baino ez da. Patronal horri ez zitzaion inoiz zalantzan jarri espediente horiei heltzeko unean bere kontuek milioi askoko irabaziak ote zituzten ala ez.

98. Ezin dugu ukatu salbuespenezko neurrien aplikazioak 2020an eta 2021ean pandemiaren ondorio sozialak are gehiago areagotuko zituen kaleratze uholdea geldiarazi zuela. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu langile-klaseak osasunaren alde, ekoizpena geldiarazi zuela eta industriak bere jarduerari eusteko metatu zituen NBE (norbera babesteko ekipamendua) guztiak osasun, gizarte eta funtsezko zerbitzuetara bideratzeko eskatu zuela. Bitartean, Arantxa Tapiak, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailburuak, enpresei ekoizpena mantentzeko beharrezko babes-materiala ematea defendatzen zuen. Tapiak adierazpen horiek egin zituen egun berean, COVID-19ak kutsatutako lehen erizaina hil zen lanean ari zela. Horrek, beste behin, Gobernuen profila erakutsi zuen, eta agerian utzi zuen hartu ziren neurri guztiak euren borondatearen aurkakoak izan zirela.
99. Pandemiak sistema kapitalistaren josturak utzi zituen agerian eta osasuna ekonomiaren gaineratik jartzen zuten neurriak hartu baziren, sistema soilik horrela mantentzeko izan zen. Madril, Gasteiz eta Iruñeko alderdiek, gure bizitzak defendatu eta babestu beharrezkoak, kapitalaren interesak defendatzea izan zuten nahiago. Horrek askoz kezkatzen zituen.
100. COVID-19aren pandemia bukatu zen, baina zinez astintzen gaituen pandemia, egoera hau lehendik zena baino are zailagoa izatea eragin zuena, zalantzarik gabe, kapitalismoa da. Hori da gure pandemia. Eta pandemia honetarako, sekulako txerto dugu: klase elkartasuna eta elkarlana.

101. I.3 BALIABIDE NATURALEN ESKASIA, GERRAK ETA NAHITAEZKO MIGRAZIOAK

102. Baliabide naturalen urritasunaren testuinguruak, munduaren taula-joko berri bat aurkeztu digu: aldeaniztuna eta gerraz josia. Egun, 53 inguru mundu osoan.
103. Baliabide natural urrienak kontrolatzeko gerra hasi besterik ez da egin, eta errealitate geopolitikoa ziurgabetasunak, zalantzak eta balizko aliantza aldeaniztunek markatzen dute.
104. Migrazioak gero eta ohikoagoak dira. Gatazka armatuek, bizimodu duina izateko baliabide faltak, baldintza klimatikoek eta bizimodu hobea baten ametsak, milioika pertsona beren jatorrizko lekuetatik irtetera eramaten ditu. Horrek herrialde aberastuetako langile klasea zuzenean interpelatzen du eta, zalantzarik gabe, Euskal Herrian gure arreta guztia pertsona guztiarentzako eskubideen defentsan jartzeko beharra dugu.
105. Egungo atzerriartasun legeak ez du inolako arazorik konpontzen, eta, horrez gain, lehendik zeudenak biderkatzen ditu, milaka pertsona egoera irregularrean utziz eta beren bizi-proiektua gauzatzeko politikoki, sozialki eta ekonomikoki ezgaituz. Egoera horrek eragin ikaragarria du emakumeengan, eta etengabeko abusu eta esplotazio-egoerak jasaten dituzte.
106. Era berean, mugen inguruko politikak, politika hiltzaileak dira, eta urtero hamarnaka mila lagun erailten dituzte. Elkartasun internazionalista eta makina gisa bere onurarako

erabiltzen gaituen sistema ekonomiko baten aurkako borroka behar-beharrezkoak dira egungo testuinguruan.

107. I.4 2020AZ GEROZTIK EZARRITAKO NEURRI SOZIOEKONOMIKOAK: ETORKIZUN HURBILARI SO

- 108.** Munduko ekonomia COVID-19aren krisitik suspertu egin da dagoeneko, eta errezeta zaharrak berrartu nahi dituen garai batean sartu da. BAUk bere gain hartu behar izan du zenbait galderari erantzuteko beharra, besteak beste, hurrengoak: nola egin daiteke lurreko bizitzaren etorkizuna bermatuko duen trantsizio ekosoziala, muga ekologikoak gainditzeko ari diren ebidentzia zientifikoak onartuta? Eta horrek kolapsoan pentsarazten digu, konpondu ezean, gero eta gertuago dagoela.
- 109.** Atzeraldi Handian, sistema salbatzeko, Estatuak bankuak salbatzeko haina izan zen kapital oparitu zuten. COVID-19aren pandemian, berriz, erreakzionatzeko eta krisia botere ekonomikoari funtzional izateko aste batzuk behar izan bazituzten ere, hamarkada hau ardaztuko zuten neurri sozioekonomikoak ezartzen hasi ziren.
- 110.** Gako nagusiak berreraikuntzarako funts europarrak injektatzean datza eta honek Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan forma hartu du. Plan hori Next Generation funtsetatik eratorri da, zerutik eroritako mirari baten gisara saltzen digutena. Funts hauek, baina, erabat pozoituta daude, Europako Batzordeak ezarritako erreforma sozial, ekonomiko eta pentsioen erreformek baldintzatuta daude eta.
- 111.** Espainiako gobernuak berreskuratze-plan osorako 2021ean proposatutako 69.500 milioi euroei 93.500 milioi euro gehiago ematea onartu zuen Europako Batzordeak 2023aren amaieran. Horrela, 163.000 milioi eurora ailegatuko da, erdia baino gehiago kredituetan, eta guztira espainiar Estatuaren BPGaren % 12a.
- 112.** Egiatan ez dakigu 163.000 milioi euro zer diren. Gezurra dirudien arren, diru hori xahutzea ez da erraza izango. Eta kopuru hori, ziur aski, ESK-k nahi duen trantsiziorako ez da nahikoa izango. Funts hauen % 60a Europako Itun Berdeari lotuta egon behar dute. Argi dago ez garela trantsizio mota beraz ari.
- 113.** Planaren lehen ordainketa onartzearekin batera, betiko kontu bera jarri ziren mahai gainean: AHTa, garraio pribaturako azpiegiturak, proiektu faraonikoak... eta hori guztia, trantsizioarekin duten harremana hutsaren hurrengo denean edo zuzenean kontrako norabidean egiten duenean.
- 114.** Enpresa handiek erakundeei finantzaketarik gabeko proiektu horiek eskaintzeko probestu dute aukera, kaxoiren batean hautsa pilatzen ari baitziren. Hori da ebaluatzerantz bidalitako proiektuen zerrenda guztiz inprobisatzearen arrazoia.
- 115.** Horixe da kapitalak nahi duena; nahiago du Gobernuak diru publikoa porlanean xahutu dezaten, zerbitzu publikoetan edo benetako trantsizio ekologiko batean inbertitzea baino.
- 116.** Kapitalak, Europako berreraikitze-funtsen dirua, diru publikoko beste partida batzuekin egiten duen bezala, berea izan behar dela uste du. Aurreko birmoldaketetako esperientziak gogoratzen baditugu, ezin gara baikor izan etorkizuneko emaitzarekin.

- I 17.** Funts horiei dagokienez topa dezakegun beste arazoetako bat da laguntza horien gaineko gutxieneko kontrol demokratikorik ere ez dagoela. Erabakiak hartzerakoan ez dago parte-hartzerik, enpresa handiei eta haien megaproiektuei bakarrik erantzuten baitzaie.
- I 18.** Ekonomiaren Berreskurapenerako eta Eraldaketarako Proiektu Estrategikoak administrazioen, enpresen eta ikerketa-zentroen arteko lankidetzak eskatzen duten proiektu estrategiko handi gisa definitzen dira, eta datozen urteetan industriaren eta ekonomiaren etorkizuna ardaztuko dute.
- I 19.** Pandemiak gehien kolpatutako sektoreak, osasungintza eta hezkuntza, egoitzak barne, ez dira proposatutako zerrendan agertu ere egiten. Eta, jakina, etxebizitza-eskubidearen aldeko apusturik ere ez dago, ezta bestelako mugikortasun baten aldeko proposamenik, edo agroekologiaren aldeko proposamenik, edo, adibidez, turismotik, gaizki ordaindutako enpleguetatik eta hondamendi ekologikotik aldentzea proposatzen duten proposamenik ere.
- I 20.** Europar funtsei dagokionez, herri honetako ezkerria (begirada Gasteizen, Iruñean edo Madrilen izan), ez da gai izan proposamen alternatibo bat egiteko edo suposatzen duen tranpari iskin egiteko. Sindikalismoa borrokalari eta eraldatzailetik ere ez gara gai izan diskurtso praktikoa on bat artikulatzeko. Ez gara gai izan, funtsak txertatzearen aldeko tasun bat artikulatzeko, baina, ez baldintza horietan, ezta onartu diren proiektuei babesa emanez.
- I 21.** Etengabe ari zaizkigu egoera zehatzak (COVID-19a, Ukrainako gerra, etab.) egungo egoeraren arrazoi-iturri bailitzan edo eskubideak murrizten eta gure bizi-baldintzak okertzen jarraitzeko aitzakia gisa saldu nahian. Baina, jakin badakigu, gure krisi iraunkorrak izen zehatza duela: kapitalismoa. Eta egungo ekoizpen eta kontsumo ereduak jasanezina dela.
- I 22.** ESKtik zera defenditzen jarraituko dugu: interes ekonomikoen gainetik pertsonak eta hauen beharrak daudela. Horretarako, baina, kalitatezko zerbitzu publikoak garatzea ezinbestekoa da, pertsona guztientzako eskubide sozialak bermatu eta horrez gain, aberastasunaren banaketan eta justizia sozialean oinarritutako trantsizio ekologikoa martxan jarri.

I 23. I.5 MADRIL, IRUÑEA ETA GASTEIZKO GOBERNUAK: KAPITALAREN INTERESEN DEFENTSAN

- I 24.** Pandemiako une kritikoenak igarota, eztabaida publikotik at eta era guztiz hertsian, Madrilen lan-erreforma berri bat negoziatu zen, aurreko lan erreformarekin alderatuta aldaketa gutxi batzuk izango dituen eta jakina, Rajoyren erreformaren alderdi kaltegarrienak ere ezabatzen ez dituen. PSOEren eta UPen arteko gobernu akordioak lan-erreforma indargabetzea jasotzen zuen arren, eta EH Bilduk eta PSOEek ere sinatu zuten arren, Madrilgo gobernuak lan-erreformarekin aurrera egin zuen. Baina ez zen hitzemandakoa izan, eta ez dio langile klaseari, lan-harremanei dagokionez, inolako hobekuntzarik ekarri.
- I 25.** Alderdi politikoek, CCOOek eta UGTk langileen bizitza baldintzatzen duten erreformetarako oinarriak ezartzen dituzten bitartean, lbex-35eko enpresek milioi askoko iraba-

ziak metatzen jarraitzen dute.

- 126.** Sektore publikoko negoziazio kolektiboaren izoztea ekuazio horren barruan sartzen da, baldintzekin markatzen baitira Estatuko aurrekontu orokorren legeetan langile publiko guztientzat. Hau guztia, alderdi abertzaleen oniritziarekin, arlo horretan ez baitute ahotsa goratzen autogobernuaren defentsan, eta pozarren onartzen baitituzte Gobernuak CCOOekin eta UGTrekin adostutako baldintzak elkarrizketa sozialeko mahai antzuan, non administrazio publikoen mendeko langile guztientzat erosteko ahalmenaren galerak sinatzen jarraitzen duten. Une honetan erosteko ahalmena % 20tik gora murriztu da.
- 127.** Arlo publikoaren pribatizazioa administrazio publiko guztien eskumen guztietan mantendu da, eta kasu gutxitan hartu dira zerbitzu publikoak indartzeko edo azpikontratatu-tako zerbitzuak publiko bilakatzeko neurriak. Pandemiaren gertatutakoa ere ez da nahiko izan Gobernuak zein kapitalak herritarren oinarrizko premiekin negoziatio egiteko grinari uko egin diezaioten.
- 128.** Pentsioen erreformak pentsioen sistema publikoa pribatizatzeko bidea ere urratu du, BGAEei atea irekiz eta erretiro-adina 67 urtera arte atzeratuz. Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduaren etengabeko mobilizazioak bakarrik lortu ditu gehiengo sozialen aldeko aldaketak, pentsioak KPlaren arabera doitzea eta gutxieneko pentsioen igoera nabaria. Hala ere, oraindik ere 1080 €-ra iristeko bidea egiteke dago, izan ere, generoaren arabera soldata-arrakala onartezina murrizten jarraitu beharra dago, gaur egun batez beste % 37ra iristen baita.
- 129.** Emakumeek pairatzen dituzten desorekak begi bistakoak dira edozein esparrutan; esparru ekonomia eta laborala ez dira salbuespena. 2024an, emakumeek gizonek baino gutxiago kobratzen jarraitzen dute: urtean 6.000 € gutxiago EAEn eta 7.000 € baino gehiago Nafarroan. Horrek esan nahi du Euskadin soldata-arrakala % 17,9koa dela eta Nafarroan % 22,37koa; Europako batez bestekoa baino askoz handiagoa, izan ere, % 16koa baita.
- 130.** Egun, Europako Gutun Sozialesan adierazitakoari jarraiki, eta kontuan hartuta 2022an erreferentziazko batez besteko soldata hileko 2.278 € gordinetara izan zela EAEn 14 ordainsaritan eta hileko 2.209 € gordinetara 14 ordainsaritan Nafarroan, gutxieneko pentsioek 1.256 €-koa izan beharko lukete EAEn eta 1.192 €-koa Nafarroan. Nafarroan Foru Gobernuak pentsioak 1080 €-ra arte osatzeko urratsak egiten ari den arren, egiari zor, egun ez Iruñeko Gobernuak, ez Gasteizkoa eta are gutxiago ezta Madrilgoa ere, ez dira pertsona guztientzako gutxieneko pentsio duinak bermatzen ari, haien esku egon arren.
- 131.** Nahiz eta LGSa Europako Gutun Sozialesan ezarritakotik oso urrun egon, lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera handia azpimarratu behar da, gaur egun hilean 1.134 eurokoa baita, 14 ordainsaritan. Hala ere, nahiz eta LGSaren igoera oso nabarmena izan, inflazioak, higiezinaren espekulazioak eta langile-klasearen lan-baldintzek, LGSaren igoera urriegia dela aditzera aditzera ematen dute, eta gero eta langile pobre gehiago dago.
- 132.** Nahiz eta ekonomia eta lan arloan lege-aldaketa lotsatiek herritar klaseen beharrak ez

- dituzten batere asetzen, nahitaezkoa da onartzea arlo sozialari dagokionean aurrerapauso handiak eman direla. Ildo horretan, nabarmentzekoa da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alorrean eta LGTBIQ+ eskubideen arloan azken urteotan egindako aurrerapenak. Zalantzarik gabe, politika publikoetan eta LGTBIQ+ kolektiboetan eragiteko gai den mugimendu feminista indartsu baten indarrak eragin ditu aurrerapauso horiek, eta haien aldarrikapenak eta eskubide oinarritzkoenak agenda politikoan jartzea lortu dute.
- I33.** Egoera horren aurrean, argi dago ESK-k neurri sendoak hartu behar dituela langile klasearen eta planetaren bizitzaren interesen alde, eta hori mobilizazio orokor eta iraunkorretik baino ez da posible izango. Estutzeko garaia da, kaleak hartzeko eta gobernu eta patronalaren aurrean planto egiteko. Gure apustua mobilizazioarena da.
- I34.** ESKn argi daukagu langileen bizkar egindako negoziazioek ez digutela ezer onik ekarriko. Urte hauetan, negoziazio mahaian indarrak metatzeko eta mobilizatzeko prozesurik gabe esertzeak zera ekarri duela ikusi dugu: alderdi immobilisten eta patronalaren jarraera erreakzionarioek aurrera egiten dutela, langileen borrokari gero eta ekarpen txikiagoa egiten dioten sindikatuen beharrezko konplizitatearekin.
- I35.** Jakin badakigu herri honetan errealitate sozial eta sindikal zehatz bat dagoela, indar korrelazio oso jakin bat duena, Eusko Jaurlaritzaren zein Nafarroako Gobernuaren politikak baldintzatzeko gaitasuna duena. Baina, ez gara nahi beste tenkatzea lortzen ari.
- I36. I.6 ESK, JENDEAREN SINDIKATUA**
- I37.** ESK sindikatu ezberdina da, baliabide mugatukoa, baina ilusio eta bestelako jendarte bat eraikitzeko gogotsu lanean diharduena. Denontzako jendarte bat; feminista, ekologista, antikapitalista, antifaxista, antirrazista... Beste mundu posible bat.
- I38.** Azken 5 urteotan, 3 greba orokorretan parte hartu dugu: 2019ko irailean, klimaren aldeko mundu mailako greban; 2020ko urtarrilaren 30ean, pentsio, enplegu eta bizitza duinen alde; eta 2023ko azaroaren 30ean, greba feminista orokorrean, zaintza sistema publiko baten defentsan.
- I39.** Gainera, beste hamaika ekintzatan ere parte hartu dugu, eta hamarnaka antolakunde sozialekin batera, 22.075 sinadura bildu genituen. Sinadura horiek Eusko Legebiltzarrean aurkeztu ziren, HEL (Herri Ekimen Legegilea) batek bultzatuta, Euskal Autonomia Erkidegoan pertsona guztientzako OEU (baldintzarik gabeko errenta unibertsala) bat ezar zedin.
- I40.** ESKn harro gaude gure sindikatuaz, gurea, guztion artean eraikitako sindikatua delako. ESK osatzen dugunok gara eta dugun onena, zalantzarik gabe, sindikatua osatzen duten pertsonak, ordezkariak, langileak, kidegoa... dira.
- I41.** V. Biltzar Nagusitik gaurdaino inoiz imajinatuko ez genukeen errealitate bat bizitzea egokitu zaigu, COVID-19aren krisiak une historiko bat seinalatu du, baina egungo errealitatea ere baldintzatu du. Egoera horren aurrean, beste behin ere, ESK-k erakutsi du bere

balioak lehenesten dituen sindikatua dela, pertsonak eta inguratzen gaituen errealitateak kezkatzen gaituela, eta hori guztia, gure jendeak egin du eta egiten jarraitzen du. Une zail eta korapilatsuenetan, beldurra eta ziurgabetasuna sentitu arren, aurrerapausoa ematen duten pertsonak gara; antolakundeko langileak, gure ordezkariak, gure kidegoa... Mundu justuago eta berdinzaleago baten alde lanean ari direnak. Pertsona orok toki bat izango duen jendarte bat eraikitzeko egunero borrokatzen duten pertsonak. ESK hori da; jendearen sindikatua.

- I 42.** Sistema kapitalista, arrazista, patriarkal eta kolonial honen abiadura honen aurrean, ESK-k pertsona guztien eskubideen alde borrokan tinko jarraitzen du. Bizitzea merezi duten bizitzen alde lanean dihardu eskura duen arma bakarra erabiliz; gure jendea.



II. KAPITULUA

ESK-REN

SINDIKALISMOAREN

PRINTZIOIOAK

143. 2.1 LANAREN KULTURARI AURRE EGIN

- 144.** Lanaren kulturari aurre egitea, ESKren VI. Biltzar Nagusiaren Ponentziaren II. kapituluaren proposatzen diren sei printzipioetako bat da. Antolakunde batentzat, sindikatua izan edo beste mota bateko antolakunde bat izan, printzipioak oso garrantzitsuak dira, bere historian sustraituta daudelako eta, azken batean, bere programen eta ekintzen bidea ardazten dutelako. Edo, behintzat, hala izan beharko luke.
- 145.** Printzipioak, baina, garrantzitsuak izan arren eta dimentsio historiko nabarmena izan dezaketen arren, ez dira aldaezinak, eta ez dira betidanik antolakundeetan egon. ESKn, lanaren kulturarekiko kritika apurka-apurka ezartzen joan da, eta hein batean, aurreko mendeko 1970-80ko hamarkadetakoko sindikalismo erradikal obreristaren ideietako batzuk zalantzan jartzearekin batera heldu da. Sindikatuek, izan diren ideia berritzaile guztiak, euren programetan hobeto edo txarrago txertatu dituzte. Gainera, ekintza sozialerako erabili dituzte, baita ekintza sindikalean ere, neurri txikiagoan bada ere. Mugimendu sozialetatik etorritako ideiak dira, hala nola feminismotik, ekologismotik, gerraren aurkako mugimendutik, LGBTBIQ mugimendutik, etab. Errealitate hori oso modu positiboan baloratu daiteke, nahiz eta sindikalismoak ez dituen garai berriak ardazten dituzten dinamika horien ondorio guztiak barneratu. Hiru eremutan hankamotz gelditu dira, eta horiek funtsezkoak dira sindikalismo eredu hobetzeko.
- 146.** Lehenik eta behin, ekonomian eta gizartean gertatu diren aldaketak aintzat hartzeari dagokionez, eta sindikatuen izatearen, funtzioen eta egituraren oinarri izan diren balio eta kontzeptuei dagokienez.
- 147.** Bigarrenik, eta aurreko puntuaren jarraipen gisa, mugimendu sindikalak kultur birmoldaketa sakona egin behar du, enpleguan oinarritutako eredutik bizitza erdigunean jartzera igarotzeko aukera emango diona. Ikuspegi hau Latinoamerikako mugimendu sozialetatik dator, eta mugimendu feministak trebetasunez bere egin du. Bizitza erdigunean jartzea politika, kultura, ekonomia eta komunitateak eraikitzea da, pertsona guztientzat bizitza duina eta bizitzea merezi duen bizitza bermatzea lehentasun gisa hartuta. Bizitza erdigunean jartzea komunitateak eraikitzen ditugula bermatzea da: inork ez dio beldurrik izango etorkizunari eta inor ez da bihar zer gertatuko zaion pentsatzearen beldur izango.
- 148.** Hirugarrenik, mugimendu sindikalak, enplegu-dinamikak mugimendu korporatibisten logikarantz bultzatzea saihestu nahi badu, mugimendu sozialekin aliatu beharko du, jendarte hobe baten eraikuntza bilatzen duten helburuak erdietsiz. Sindikalismoak gutxienez bi

mendeko historia du. Kapitalismoarekin batera jaio zen langile klasea defendatzeko. Eta zer zen, ustez, kapitalaren ustiapenaren aurrean defendatzea merezi zuen langile-klasearen funtsezkoena? Lan-indarra, hau da, enplegua. Duela bi mendetik hona, enpleguaren defentsa bizitzaren defentsa gisa ulertu izan du sindikalismoak. Aspaldi konturatu ginen, baina, enplegua defendatzea eta bizitza defendatzea ez direla zertan baliokideak izan, sindikalismoaren kulturaren hala izaten jarraitzen du.

- 149.** Lanaren kulturari heltzeko orduan, gogoan izan behar dugu, termino historikoetan, soldatepeko lanak, enpleguak, ez dituela 300 urte baino gehiago, oso errealitate berria dela, alegia. Bien bitartean, lan erreproduktiboa eta zaintza-lanak beti egon dira krisian, patriarkatuari esker, sistema mantentzeko funtsezko elementua dena.
- 150.** Zentzu horretan, lan erreproduktiboak edo zaintza-lanak egiten dituztenen eskubide sozialak (langabezia-prestazioak, gaixotasun-estaldura, erretiroak, etab.) eskuratzeko jasaten duten diskriminazio izugarriari heldu behar zaio.
- 151.** Premiazkoa da lan-denbora banatzea eta lanak banatzea, baita zaintza-lanak ere. Lan gehienak emakumeek egiten dituzte, lanaren banaketa sexualaren ondorioz.
- 152.** Lan-denboraren banaketan jarrera irmorik hartzen ez badugu, kapitalak banatuko dizkigu denborak, 2008ko krisi sistemikoa piztu zenetik egiten ari den bezala, kontratazio partzial eta pobreziatik ateratzea ahalbidetzen ez duten enplegu prekario gisan. Lan-denbora murrizteak ezin dio, inolaz ere, erosteko ahalmen galera suposatu langile klaseari, trantsizio ekologiko justu baten eskemaren baitan.
- 153.** Baina horrek ez du ezertarako balioko enplegua gure jardunaren zentrotik aldentzen ez badugu. Zentraltasun horren ondorioz, geure buruak enplegu txarrak defendatzera behartzen ditugu; energiari, ingurumenari, segurtasunari eta abarri dagokienez, baldintza guztiz prekarioetan, gehiegizko malgutasunarekin, eta horrek enpresen produkzio-beharrak pertsonen bizi-premien gainetik jartzen ditu, besteak beste.
- 154.** ESK-ko kideok Oinarrizko zein Baldintzagabeko Errenta Unibertsalaren defendatzaile sutsuak gara. Pertsona guztientzako bizitza duinak bermatuko lituzke, izan ere, denok sostengatzen baitugu jendarte hau.

155. 2.2 SINDIKALISMO FEMINISTA

- 156.** Aurreko kapituluaren deskribatutako eredu heteropatriarkal kapitalista, besteak beste, esplotazioan oinarritzen da. ESK-k etengabe salatu du hori. Sektore erreakzionarioen aldetik feminismoa gutxieteko saiakerak eta aipatutako errealitateak, argi uzten du sindikalismo feministaz hitz egiten jarraitzeko beharra eta, ESKren zutabeetako bat den heinean, hala aldarrikatu behar dugu.
- 157.** Egia da ESKren eta mugimendu feministaren beraren helburua genero-ikuspegia eta feminismoa zeharkakoak izatea dela, baina feminismoa bera kontzeptualizatzeko beharra ere badago. Izendatzen ez dena ez da existitzen, eta sindikalismo feministaz hitz egitea, gaur egungo egoeran, betebeharra da ESKrentzat.

- 158.** ESK-k eredu guztiz feminista baten alde egiten jarraitu behar du. Mugimendu feministeko konplizitate eta babesetik harago, diskurtso formalak irauliko dituen feminismo baten aldeko apustua egin behar du.
- 159.** Gure sindikatuak, kanpora begira, feminista izan behar du, baina bereziki, barrura begira. Horretarako, sindikalismoa bere osotasunean eta geure antolakuntza propioa berrikustea ezinbestekoa da. Sindikalismoa, funtsean, patriarkala da eremu laborala, hastapenetatik ere, hala delako.
- 160.** Lan-harremanak sistema sakon patriarkal batean kokatu eta sortu dira historikoki, eta emakumeak lan-mundura sartzea bera, parametro horien baitan gertatu zen. Hasieratik, emakumeak ez ziren gizonen baldintza berdinetan lan-mundura sartu, ez enpleguen aitoren sozial eta ekonomikoari dagokionez, ez eta antolamenduari dagokionez ere. Hasiera-hasieratik emakumeak langile-mugimenduetan parte hartu bazuten ere, ez da harritzea mugimendu horiek gizonen eta gizonentzat sortu izana eta emakumeen parte-hartzea eta inplikazioa sistematikoki ikusezin bihurtu izana. Izan ere, gaur egun, oso gutxi dakigu emakumeek bizitza sindikalean parte hartzeko izan dituzten baldintzen inguruan: absentzia, bazterkeria, parte-hartzea eta emakumeen ordezkartza, besteak beste.
- 161.** Lurraldearen arabera datuak aldatzen badira ere, Lanaren Nazioarteko Erakundeak adierazten duen bezala, azken 40 urteotan emakumeek jardura sindikalean duten parte-hartzea nabarmen handitu da, eta gaur egun, afiliarioari dagokionez, gizonen dutena baino handiagoa da. ESKn, gure afiliarioaren erdia emakumeak dira, baina hori ez da islatzen ez egituretan ez parte hartzeko espazioetan.
- 162.** Hego Euskal Herrian, nabarmenki, emakumeak sindikatuen egituretan ez ezik, esparru exekutiboetan ere sartzen joan dira. Hala ere, esparru horiek, neurri handi batean, gune arrotzak dira oraindik ere haientzat, eta ikuspegi patriarkalei eta praktika feministatik oso urrun dauden militantzia-ereduei erantzuten diete. Emakume sindikalistak erabakiguneetan sartu dira, eta botere-mailak lortu dituzte, baina egitura patriarkalen mende izaki, jardura sindikala haienak ez diren bestelako tresnekin garatu behar izan dute. Emakumeek ongi dakite, Audre Lordek zioen bezala, nagusiaren tresnek ez dutela inoiz nagusiaren etxea desegin. Horregatik, ESK-k sindikalismo feminista errealera eraikitzeko bidean aurrera egin behar du, mugimendu feministarengandik ikasitako guztia balioan jarriz, baina batez ere praktikan jarriz, gure antolakundearen egitura eta harreman-eredu ez-patriarkalak sortuz. Gure praktika militantean ere pertsonen bizitzari eta zaintzari zentraltasuna emanez.
- 163.** ESKren erronka handienetakoa bat hurrengoa da: emakume afiliatuak egituretan parte hartzea eta bizitza sindikalean modu aktiboan parte hartzea. Argi dago hori gerta dadin, gaur egungoetatik urrun dauden militantzia-ereduak garatu behar ditugula. Pertsonen ongizateari lehentasuna ematen dioten militantzia-ereduak, haien denborak eta beharrak errespetatzen dituztenak, askoz ere eredu parte-hartzaileagoak... Azken batean, militantzia-eredu bat, bizitzarekin bateragarria dena, eta sindikalismoa feminismotik eraikiko dena, eta ez alderantziz.
- 164.** ESK-k irmoki sindikatu feminista izateko borondatea defendatzen du. Honek esan nahi du, gure praktikak, ezinbestean, horra bideratuta egon behar duela; gure ekintza sindikaletik proposamen feminista eta eraldatzaileak eratorri behar dira, baina hori ez da inoiz posible

izango emakumeek, erabakiak hartzeko orduan, parte hartzen ez badute. Ez du inolako zentzurik sindikatu batek bere burua feministatzat izatea, bertako emakumeek parte hartzen ez badute.

- 165.** ESK-k gure sindikatuan, hauteskunde sindikaletan, ordezkarien izendapenean, militantzia-zereginen banaketan eta abarretan emakumeek duten lekuaz kezkatzeko eta arduratzeko betebeharra du. Jakin badakigu gure ekintza sindikalean emakumeen parte-hartzea lehenesteak desadostasunak ekar ditzakeela, gizonetzko lankideek uko egitea ekar dezakeelako, baina berdintasuna gatazka da, bestela ez litzateke beharrezkoa izango. ESK-ko gizonak beren botere-mailei eta pribilegioei uko egiteko ahalegina egin behar dute.
- 166.** Jarduera sindikalean emakumeen parte-hartzea txikiagoa izateko arrazoiak askotarikoak dira, baina argi dago diskurtso sinplistikak deseraiki egin behar direla. “Emakumeek militantzian parte hartzen ez badute nahi ez dutelako da” gisako diskurtsoekin amaitu beharra dago. Begirada zabalagoa izatea beharrezkoa da baita analisi konplexuagoak egitea ere. Emakumeek militantzia-guneak uzteak lotura estua du ereduarekin berarekin eta emakumeek gehien-gehienetan geure gain hartzen ditugun zaintza-kargekin. Emakumeek beren bizitza militantea garatzeko denbora ez izateak, genero-estereotipoek, militantzia-espazio arrotzek eta patriarkatuak berak, emakumeek beren aktibismoa alde batera utzi eta beren gaitasun politikoei uko egin behar izatea dakar.
- 167.** ESK-k beharrezko baldintzak sortu behar ditu emakumeek antolakundean parte har dezaten, eta eskura dituzten baliabide guztiak jarri behar ditu hau errealitate bihur dadin.
- 168.** Sindikalismo feministak borroka molde tradizionaleri, ekoizpen ekonomikorako moduei eta feminizatutako beste enplegu batzuen kaltetan (funtsezkoak direnak), soldatapeko lan batzuei egotzi zaien zentralitateari, beste modu batean begiratu behar die. Zaintza-lanen duintzeak, generoaren araberrako soldata-arrakalaren aurkako borroka, lan feminizatuaren errekonozimendu sozial eta ekonomikoak eta negoziazio kolektiboan eta gure ekintza sindikalean ikuspegi feminista txertatzeak lehentasuna izan behar dute ESKrentzat.
- 169.** ESK-k, nahitaez, haratago joan behar du, eta kontuan hartu behar ditu emakumeek lan-merkatuan parte hartzeko dituzten baldintzak, euren parte-hartze sindikala eta emakumeen bizipenak, genero-sozializazioaren arabera, eta horrek zer nolako eragin duen haien lan-eskubideetan eta militantzian. Hori kontuan izateak, emakume langileei balioa ematera eta hauei espazioak uztera behartzen gaitu, antolaketa erraztuz. Lan-eskubide hobek eta sektore jakin batzuen errekonozimendu handiagoa lortzen baditugu, sektore batentzat eskubideak irabazteaz ez ezik, eredu ekonomiko desberdina zalantzan jartzen eta arrakalatzan ari garela esan nahi du, eta dena alda dezakeen ordena berri batean aurrera egiten ari garela.
- 170.** Helburu horretan aurrera egiten jarraitzeko, beharrezkoa da ESKren Lan Talde Feminista bezalako tresnak izaten jarraitzea, baita sindikatuan ikuspegi feminista zeharkakoa izaten lagunduko diguten hausnarketarako espazioak izatea ere eta sindikatuaren agenda feminista lehentasunez finkatuko duena.
- 171.** ESK sindikatu feminista bihurtzea feminismoa antolakunde osoan zeharka onartu eta integratzea da. Begi bistakoa da emakumeen parte-hartzea funtsezkoa dela helburu horretarako, baina praktika feminista ezin da egon gure antolakundeko emakume feministen borondatearen eta militantziaren mende; horregatik, ezinbestekoa da gure delegatu guztien

eta antolakundeko egituretako kide diren pertsona guztien derrigorrezko formakuntza ezartzea.

- 172.** Emakumeok diskriminazio ugari jasaten ditugu, eremu pribatuan, zein publikoan, baina, zalantzarik gabe, emakume izate hutsagatik gure aurka ezarrita dagoen egiturazko indarkeria da aurre egiteko egoerarik zailena. ESK-k, emakumeen partaidetzarako gune irekia izateaz gain, indarkeria sexistarik gabeko gune segurua izan behar du. Hori horrela izan dadin, ESK indarkeria sexistaren aurkako protokolo bat lantzen ari da. Protokolo hori VI. Biltzar Nagusiaren osteko lehen Batzorde Nazionalean berretsiko da.
- 173.** Sindikatu feminista izateak emakumeek ESKren barruan politikan parte hartzeko duten eskubidea bermatu behar dela esan nahi du, hala, euren kezka espezifikoak onartuz. ESK-k paradigma aldaketa egiteko betebeharra du, berdintasunari lehentasuna emanez eta feminismoa lehen lerroan jarritz. Emakumeek ESK behar dute haien lan-eskubideak defendatzeko eta horien alde borrokatzeko, baina baita bizitzako esparru guztietan jasaten dituzten indarkeria- eta diskriminazio-egoerak ikusarazteko ere. ESKren sindikalismo ereduaren benetako berdintasuna lortzeko beste tresna bat izan behar du, eta mugimendu feministaren ezinbesteko aliatua, ez lelo edo asmo-adierazpen gisa, baizik eta horren baitako elementu gisa.

174. 2.3 PATRONALAREN AURKA BORROKATU

- 175.** VI. Biltzarraren Ponentziaren 2. kapitulu honetan “patronalaren aurka borrokatu” epigrafe sartzeko badugu, ESKrentzat gai honek gure printzipio edo balioekiko berebiziko garrantzi duela da. Eta bi arrazoi nabarmenengatik egiten du, biek ala biek izaera materialista dutenak.
- 176.** Patronalaren aurkako borroka klase borrokaren funtsezko elementua da. Lantokietan langileak aurrez aurre jartzen dituen patronalaz ari garenean, patronal zehatza agertzen da, hitzarmen bat edo Enplegua Erregulatzeko Espediente bat negoziatzen ari garen unean aurrez aurre duzun hori. Negoziazio horietan, besteak beste, kaleratzeak, lanaldiaren aldaketak, aldi baterako langabezia, mugikortasun funtzional edo geografikoak, etab. Negoziatzen dira.
- 177.** Kasu horietan, ESK bezalako sindikatu borrokalari baten nortasuna beste batzuegandik bereizten da. Bestelako sindikatuak, akordioa edo ituna borrokarik gabe bilatzeko konfiantza dute, eta gu, sindikatu garen aldetik, konbentziturik gaude, ideologiagatik ez ezik, 40 urte hauetako esperientziagatik ere, borrokaren bideak emaitza hobeak ematen dizkigula hotzean sinatutako akordioekin baino.
- 178.** Eta hona hemen bigarren arrazoi materialista: patronala, beste klase batekoa da, kapitalista; izaten jarraitu nahi badu, langileak esplotatzera kondenatuta dagoena, bere etekinak ustiapen horretatik lortzen direla kontuan hartu behar duena. Bistan da ez gaudela duela bi mende Ingalaterrako langile-klasea zegoen egoera berean. Garai haietan patroiek gaixotu edota hil arte esplotatzen zituzten langileak, izan meategietan, ehun-fabriketan, edonon. Izarretik izarrera lanean, baita haurrak ere, soldata ziztrin baten truke, lan-eskubiderik gabe, segurtasunik gabe, etab.

- 179.** Orduan, esplotazioa nabarmenagoa zen, eta horren bidez etekin kapitalista lortzen zen. Mozkin horren pilaketak kapitalen eta sistema osoaren hazkundera ahalbidetzen zuen, eta errazagoa zen hori ikustea, salatzea eta haren aurka borrokatzea. Orain zailago dugu, baina klase borroka eta klase kapitalistaren aurrean gure langile klasearen alde egin beharrak ez dute bere betiko funtsa aldatu. Arazoa, langileok dugu, enpresa munduak ez baitu zalantzarik, ia inoiz ez aitortu arren, kapitalak ezartzen digun esplotazioa argitara ateratzeko eta, haren aurka bat eginez, borrokara joateko.
- 180.** Gaur egun, gainera, patronalarekiko lehiak bizitzaren eta kapitalaren arteko talka aurrez aurre azaleratzen digu. Patronalak malgutasun-mekanismo nabarmenak sartzea ahalbidetuko duten lan-harremanak behar ditu, pertsonen bizitzak produkzio-beharretara egokitzeke. Horrela, errealitate hori hainbat esparrutan aurkitzen dugu:
- 181.** - Gizarte zerbitzuetan, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua horren adibide argia da. Ia egunero Administrazio Publikoaren zerbitzura dauden enpresen beharren arabera areagotzen edo murrizten diren jardunaldi partzialak, erabiltzaile kopuruaren arabera langile kopuruaren arabera kontratazioak...
- 182.** - Ehungintzan edo elikagaien sektorean, enpresek dendak astelehenetik igandera, jaiegunetan edo era guztietako ordutegietan irekitzeko duten joerarekin, ugazaben beharrak langileen atsedenen eta bizitzaren antolaketaren aurretik jartzen dira.
- 183.** - Industrian, malgutasun basatia inposatuz, ABEEak erabiliz, bata bestearen atzetik aplikatzen baitira inolako kontrolik gabe, produkzio-beharrak bizitzari eusteko pertsonen premien gainera jarri.
- 184.** Kezkagarria da, gainera, Administrazio Publikoak gero eta joera handiagoa duelako patronala zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratatzeke. Enpresa hauek ez dute inolako eskrupulurik eta, inolako kontrolik gabe eta inpunitate osoz langileen nominak ordaintzeari uzteko zalantzarik ez dute izaten, hala nola, Correosen garbiketan, edo ez dituzten gutxieneko segurtasun-neurriak betetzen, Grup La Pau anbulantzien kasuan.
- 185.** Patronalak badaki bere estrategiei aurre egiteko langileok dugun modu bakarra, langile-klasearen antolakuntza dela. Horrela, antolakuntza sindikalaren aurkako eraso zuzenak aipa ditzakegu, ekintza sindikal antolatuaren hedapena ekidin nahi duten kaleratze eta zigorrekin, azken urteotan neurri handiagoan gertatu direnak.
- 186.** Zailtasun handiak ditugu pertsona migratuak antolatzeko. Esplotazio onartezina jasaten dute hainbat sektoretan, hala nola, zaintzaren sektorean edo elikagaien industrian. Hemen jarri behar ditugu gure indarrak, eta gure ekintza kolektiboa irauli, pertsona guztientzat eskubide guztiak lor ditzagun.
- 187.** Testuinguru honetan, ESK-ko sail sindikalek etengabe egin dute lan enpleguaren defentsan, inflazio zoroaren aurrean erosteko ahalmenaren defentsan, patronalaren zerbitzura dagoen lan-malgutasunaren aurka, sindikatuon aurkako errepresioaren aurka, eta hobekuntzak bilatu ditugu lantoki eta sektore bakoitzeko sektore prekarioentzat. Bide horretan, gainerako sindikatuarekin batera egindako lanari esker lortu dugu patronala ahalik eta lanpostu gehienetan, gutxieneko batzuk errespetatzera behartuko duten sektoreko hitzarmenak berreskuratzea eta mantentzea.

- 188.** Erosteke ahalmenaren defentsan borroka erreferentzialak ezagutu ditugu dozenaka enpresatan. Borroka bera mantentzea ia ezinezkoa zen toki horietan, eta plantillaren borroka hori lortu du kasu gehienetan. Irtenbide jasangarri eta berritzaileak bultzatu ditugu enpleguari eusteko, Mecaner-en adibidez. Enpresaren gustura ezarritako malgutasunaren aurka eta langileen bizitza lau ogerlekoren truke saldu nahi zutenen aurka borrokatu gara, hala nola Mercedesen. Kontratazio publikoetan ugazaben abusu zigorgabeen aurka ere borrokatu gara, hala nola, Correos-eko garbiketako sektorea. Alcampon igande eta jaiegunetan saltokiak irekitzearen aurka egin dugu, hainbat enpresatan sindikatuen errepresioaren aurka borrokatu gara eta grebak eta mobilizazioa oinarri hartuta, kaleetan hitzarmen sektorial garrantzitsuak irabazi ditugu, hala nola, Osakidetzaiko garbiketako sektorean, Bizkaiko eta Arabako metalean, Esku-hartze Sozialaren sektorean edo Osakidetza pribatizatutako anbulantzietan.
- 189.** Patronalaren aurkako borroka ez dira soilik borroka hauek. Gatazka hauek (eta etorkizunean sortuko direnak) erabili behar ditugu kontzientzia pizteko eta haratago heltzeko, borroka hauek bestelako eremuetara hedatu ditzagun.
- 190.** Aurretik aipatutako borroka horiek patronalaren aurkako etorkizuneko borroka bateratu baten aurrekari izan behar dute, eta horrek ponentzia honetan jorratutako alderdi laborala zein sozialak batu behar ditu. Gero eta langile gehiago daude, enplegu bat izan arren, pobreak direnak, eta horien guztien batasuna bilatu behar dugu borrokatzeko. Zalantzarik gabe, horretarako gai izan behar dugu.
- 191.** Kapitalak subjektuen beharrak eta nahiak hedatzen ditu, eta, aldi berean, haien soldatak eta diru-sarrerak murrizten ahalegintzen da, eta gero eta tentsio handiagoa sortzen du kontsumo-baliabideak ziurtatzeko lan-indarra behar duen patronalaren eta diru-sarrera txikiak kontsumitzeko aukerarik ematen ez dion langile klase pobretuaren artean.
- 192.** Mahai gainean, enpleguaren diru-sarrerak murrizteko beharra dugu, era berean, lan-denboraren murrizketa zorrotza eta banaketa bultzatuz, bai eta oinarritzko errenta unibertsal eta baldintzarik gabea ere, patronalaren aurka borrokatzeko aukera emango duena, enpleguaren xantaia gaituz. Xantaia bikoitza da pertsona migratuen kasuan, euren oinarritzko beharrak asetzeko soldataren menpe egoteaz gain, enpleguaren menpe ere baitaude, kasu gehienetan eren egoera erregularizatzeko beharra baitute.

193. 2.4 SINDIKALISMO EKOSOSIALISTA

- 194.** Epigrafe hau idazteko, Adrián Almazán eta Luis González Reyes-en “Decrecimiento: del qué al cómo” liburuaren sarrerako pasarteak erabili ditugu
- 195.** 2013ko azaroan Atarrabian (Nafarroa) egindako ESKren IV. Biltzar Nagusian, gure sindikalismoaren printzipiotzat hartu genuen ekosozialismoa. Gure sindikaturako printzipioak bi oinetan finkatzen dira. Lehenengoa errealitatearen oina da, eta horrek aditzera ematen digu gure egiten dugun edozein printzipiok mundu errealean kokatu behar duela. Edo, bestela esanda, mundu errealekoak izan behar dute. Bigarren oinak, hausnarketa eta lanketa konplexuagoa eskatzen du, errealitatearen printzipioa oinarri duen esfera analiti-

koa gainditzen baitu, eta printzipio horrek sindikatu gisa dugun ikuspegiari eta jarduteko moduari ematen dion balioa osatzen duten indar-ideiak biltzen ditu.

- 196.** ESKren ekosozialismoak errealitatearen ikuspegi jakin bat du oinarri, azterketa ekologikoan oinarritzen dena. Ondorengo ideietan, funtsean:
- 197.** 1) Muga material eta energetikoak. Egia da energiaren eta materialen eskuragarritasunaren esparruan ez dagoela adostasun zientifiko indartsurik Klima Aldaketari buruzko Gobernu arteko Panelaren (IPCC) edo haren biodibertsitatearen homologoaren (IPBES) aldean; hala ere, jarrera desberdinak egoteak ez liguke inoiz “baikorrak” besarkatzera eraman behar, eta, beraz, gure jardun politikorako aldea uste baino askoz zabalagoa izango litzateke. Horrela jokatzuz gero, zuhurtziaren printzipioa urratuko litzateke.
- 198.** 2) Biodibertsitatearen galera, ondorengoak dira ertz nagusiak: gehiegizko ustiapena (mozketa, ehiza eta arrantza), industria-nekazaritza, hiri-garapena, espezie inbaditzaileen eta gaixotasunen hedapena, ingurunearen aldaketa eta klima-aldaketa. Bioaniztasunaren galera eragiten duten arroi horien guztien erroa bat eta bakarra da: gizarte industrialen funtzionamendua bizitzari eusteko beharrezkoak diren baldintzen aurka egiten duela.
- 199.** 3) Larrialdi klimatikoa. Klima-aldaketa ekosistemak desoreka sakonak eragiten ari da, izaki bizidunen banaketa, mugikortasuna, ugaritasuna eta elkarrekintzak errotik eraldatuz. Klima-aldaketaren eraginak hain dira handiak, ezen ezinezkoa baita kapitalismo globalaren funtzionamendua era egokian garatzea, etengabeko ezusterik gabe: lehorteak, euri-jasak, zikloiak, akuiferoen gazitzea, suteak, etab.
- 200.** 4) Teknologiak ezingo dio datorkigunari aurre egin. Gure jendartean, zientziak eta teknologiak dena konpon dezaketen mitoa oso zabaldua dago, eta, ondorioz, krisi sistemiko bati iskin egiteko funtsezko tresnak direla sinetsita dago. Hala ere, gaur egungo sistema tekno-zientifiko indartsua ez da gai sistemari ezagutzen dugun moduan eusteko. Besteak beste, zientzia neutrala izatetik urrun dagoelako eta ideologiaz beteta dagoelako. Ez da gizartean garrantzitsua izan daitekeen hori garatzen, merkatuak egokitzen jo dezakeen hori edo Estatuaren kontrol- eta hedapen-beharrizanetarako funtzionala dena baizik.
- 201.** Geure printzipio ekosozialistaren bigarren oinarria ondorengo ideietan sustraitzen da, denak ala denak Desazkundearekin lotutakoak.
- 202.** 1) Kontsumo material eta energetikoaren murrizketa ekologikoki bideragarria den eszenatokira heldu arte. Ekonomiaren esfera materiala murriztea da kontua, eta horrek ez du esan nahi ekonomia osoa murriztu behar denik. Are gehiago, ekosistemak eta pertsonak zaintzen dituen ekonomiak bere horretan eta konplexutasunean hazi beharko luke. Gure iritziz, pertsonak eta bizitza dira babestu beharko liratekeenak, ez ekonomia.
- 203.** 2) Ekonomiaren birlokalizazioa eta dibertsifikazioa. Egungo eredu mundializatuak inpaktu ekologikoak eta sozialak metatzen ditu, eta Desazkundeak horiek eten nahi ditu. Ekonomia birkokatzea gizartearen beharrian gehienak tokian tokiko lurraldeek asetzea esan nahi du. Horrek kapitalismo globalizatuaren esparruan espeziali-

zatuz joan diren gizarte-jardueren dibertsifikazio handiagoa ekarriko du.

- 204. 3) Metabolismo soziala metabolismo sistemikoaren baitan kokatzea. Ekosistemek kapitalismo industrialak baino askoz indar gehiago eta moldatzeko gaitasun handiagoa dute. Ekosistemen ahalegina zikloen itxiera eguzki-energia erabiliz, aniztasuna maximizatuz eta koordinazio-tasa handitzean zentratuko balitz, logikoa litzateke giza ekonomiek gauza bera egiten saiatzea.
- 205. 4) Eremu produktiboa eta erreproduktiboa unitate ekonomiko bakarrean integratzea. Ez dira lan batzuk besteetatik bereizi behar, biak modu banaezinean lotuta baitaude. Are gehiago, erreproduktzio-lana produktzio-lan oro ahalbidetzen duena da. Gainera, esan beharra da, garaia dela lan horiek genero desberdinen artean banatzeko, gaur egun duten banaketa desorekatu eta bidegabea hautsiz.
- 206. Gure interdependentzia eta ekodependentzia bere gain hartuko dituen ikuspuntutik, zaintza-lanak funtsezkotzat jotzen direnak izan behar dira, eta, beraz, baliotsuenak.
- 207. 5) Lurralde arteko eta lurralde barneko aberastasunaren birbanaketa sendoa, justizia globalean oinarritutako irizpideekin. Horretarako, hainbat neurri hartu beharko lirateke, hala nola, ondare handien desjabetzeak, oinarritzko errenta ezartzea, zerga-politika birbanatzaileak, enpleguaren banaketa, etab.
- 208. Nazioartean, besteak beste, zor ekologiko edo kolonialak kitatzeaz arituko ginateke.
- 209. 6) Pertsonen autonomia ekonomikoaren areagotzea. Honek, funtsean, desalarizazio eta desmerkantilizazio prozesu sakonak martxan jartzea dakar, eta jabetza eta ekoi-zen forma kooperatibo eta autogestionatuetarantz aurrerapauso irmoak ematea. Desazkundean oinarritutako ekonomia baten helburua ez da soilik soldatapeko lanaren baldintzak duintzea edo ongizate-estatuari eustea eta zabaltzea. Azaldutako eraldaketak lortzeko, ez da nahikoa izango lana berrantolatzearekin: gainera, beharrezkoa izango da soldatapeko lanaren mekanismoekin haustea, harreman sozialak antolatzeko funtsezko ardatza baita..

210. 2.5 BALIOAK DITUEN SINDIKALISMOA

- 211. Izan zirelako gara. Gure antolakundea, urteetan zehar, aldatuz joan da, ESKren norabidea markatu duten erronka eta apustu desberdinak onartuz. Hala ere, hasieratik bere horretan mantendu dela esan dezakegun zerbait badago: ESK-ko gizon eta emakumeen praktika sindikala, hain zuzen ere. Gure aurretik ibili ziren horiek bezalaxe, ESKren nortasun-ezaugarriek praktikan aurrera jarraitu dute, balio eta printzipio jakin batzuetan oinarrituta.
- 212. Praktika hauek, gure jendearen gardentasunean eta zintzotasunean oinarritzen dira. Egunero egunero, euren lantokietan langile-klasearen interes kolektiboen defentsa egunero praktikan txertatzen saiatzen diren gizon eta emakumeak, interes partikularren eta sindikatuaren beraren interesen aurretik. Gure sindikalismo eredu, boterea metatzeko helburuarekin delegatu eta afiliazio kopurua kosta ahala kosta handitu nahi duen sindikalismo ereditik oso urrun dago. ESKren aberastasuna ez da ehuneko baten arabera neurtzen; ESK-k pertsonen bizitza hobetu nahi du, lantokietan eta lantokietatik kanpo.

- 213.** Afiliazioa garrantzitsua zaigu, noski, baina inporta zaigu pertsonak axola zaizkigulako. Horregatik, ezin dugu eta ez dugu afiliazio-fitxa bat egiaztatzeke zain egon nahi. Gure helburua tresna eraldatzailea izatea da, langile klasearen osotasunarentzat erabilgarria, arreta berezia, hain zuzen ere, sistemak gehien zigortzen dituen pertsonengan jarritz.
- 214.** ESK hobekien ordezkatzeko duena gure jendea da: militanteak, delegatuak... Horregatik, ESK-k ez du bere siglak erakusteko beharrik, ezta kostatuta ere. Gure helburua ondorengo da: lan-baldintzen defentsan eta horien hobekuntzan, langileen arteko batasuna erraztea. Enpresa Batzordeak eta Langileen Batzordeak hori lortzeko behar diren ekintza guztiak sustatuko dituzte.
- 215.** Gaur egungo sistema kapitalista, androzentriko, klasista, arrazista eta kolonialak haustura eta desberdintasun handiak dituen mundu batera eramanez gaitu. Milaka pertsonak, eguneroko migrazioa erabakia hartzen dute, beste leku batean, bizitzeko baldintza duinagoak bilatu asmoz. Gizateriaren historia osoa migrazio-mugimenduek zeharkatzen dute: batzuek jatorrizko lekuetan dauden zailtasunengatik migratu dute eta beste batzuek, ordea, behartuta egin dute, giza-trafikoak ahalbidetuta, besteak beste. Gure lurraldera beste toki batzuetatik iritsi diren pertsona horiek, gutako askok lehenago egin genuen bezala, gure lankideak eta borrokakideak dira. Kasu askotan, lan prekarizatuak egin behar izaten dituzte, eta, era berean, gehiegikeriak jasateko aukera gehiago dituzte, bai enpleguari dagokionez, bai enpleguaren bilaketari dagokionez ere. Gure ekintza sindikalean adi egon behar dugu euren lan eskubide eta baldintzen defentsan, askotan bereziki zaila egiten baitaie laguntza bilatu eta aurkitzea.
- 216.** Argi dago oraindik bide luzea dugula egiteko, baina praktika feminista gure jardura sindikalean txertatzea errealitate bat izan behar da. Feminista izatea ez da aukera bat, premia bat baizik. Feminismoa, definizioz, sindikalismoa bezalaxe, berdintasun ezaren aurka dago; borroka feminista, zalantzarik gabe, sindikala da, eta alderantziz; izan ere, Angela Davisen ondo dioten bezala, klasea, arraza, sexualitatea eta generoa elkarri lotutako elementuak dira. ESK-k ezin du feminista, antirrazista, ekologista, dekoloniala, borrokalaria edota justizia sozialaren defendatzailea ez den eredu sindikalarik bat egin. Azken batean, geurea, bere ekintza sindikala lan-esparrutik haratago eramango duen eredu sindikala izan behar da. Eguneroko praktika horrek definitu behar du gure antolakundea.
- 217.** ESKn bestelako erronka batzuk ere baditugu: kapazitismoari eta adinkerari aurre egitea. Soldata miserableak dituzten lan-harremanetan aniztasun funtzionala duten pertsonen jasaten duten diskriminazio sistematikoaren aurka borrokatzea, batzuetan, ustezko “enplegu babestuen” babespean daudenak. Borroka honek gure ekintza sindikalaren parte izan behar du. ESK pertsona guztiak hartuko dituen sindikatua bada, desoreka eta zigor handienak jasaten dituzten horien arreta jartzea beharrezkoa da. Esparru horretan lanean jarraitzea nahitaezkoa da, beraz. Era berean, delegatu eta ESK-ko militante gisa, gazteengan arreta jartzea ere garrantzitsua da. Adinekoak mespretxatu eta, aldi berean, gazterari gorazarre egiten dion gizarte batean bizi garen arren, lan-munduak batzuk zein besteak zigortzen ditu. Hala ere, gazteenak dira lan-munduan sistema kapitalista honen prekaritatearik lotsagabeena pairatzen ari direnak. Instituzioek babestutako patronalak, praktika-kontratuen bidez, besteak beste, pertsona horiek lan-merkatuan sartzeko neurriak adosten ditu. Kasu gehienetan, esperientzia handiagoko beste pertsona baten lan bera egiten dute, baina pobrezia muga ozta-ozta gainditzen duen soldata baten truke. Horrek, ezinbestean, bizitza-proiektu bati ekiteko aukerak zailduko ditu.

218. Defendatzen dugun sindikalismoaren antolakuntza

- 219.** ESK-k jendearen sindikatua izan behar du. Langileen parte-hartzean oinarritutako sindikalismoan oinarritua, borrokak gauzatzeko beharrezko tresna bihurtuz. Ezin dugu inoiz eurentzako oztopo izan. Eredu horretan, sindikatuko liberatuek afiliazioarekin batera eskuz-esku egingo dute lan, erabakiekiko errespetuan oinarrituta, eta inoiz ez “nik hala agintzen dudalako” gisako logika erabiliz. Kasu bakoitzean, bakoitzaren bizi-egoera ulertuta eta zeharkatzen gaituzten ardatzez jabetuta. Beharrezkoa da borroka ezberdinetan bidelagun izatea eta gure praktika sindikaletik ikusaraztea langileok jasaten ditugun inposizioen eta tratu txarraren aurrean daukagun alternatiba bakarra, klase-antolaketa eta klase-elkartasuna direla.
- 220.** Pertsonen eta sail sindikalen autonomia antolaketa-balio gisa aintzat hartzeko beharra dago, izan ere, ESKren iragana eta oraina ezingo litzateke hori gabe ulertu. ESK-ko kideen autonomia sustatzea, delegatuen parte hartze aktiboa balio bat izateaz gain, aholkularitzako kideei lan karga lausotu diela esan daiteke.
- 221.** ESK sindikatu horizontala izan da, da eta jarraituko du izaten, geure DNAren parte da. Horrexegatik, eredu honetan aurrera egiten jarraitzea ezinbestekoa da, sindikatua osatzen dugun guztiok antolakundea gure sentitu dezagun. Ez afiliazio fitxak hala diotelako, nahi dugun antolakundea denon artean egunero eraikitzen dugulako baizik.
- 222.** 40 urte beteko ditugu eta zalantza gabe aldaketa asko jasan ditugu urte hauetan guztietan. Testuinguru soziopolitiko eta lan-harremanak ez dira duela 40 urte zirenak eta, kontaezinak dira jasandako aldaketak, etorriko direnak bezainbeste. Hala ere, ESK-k ezin dio ondorengoari uko egin: borroka izpirituari, alegia, eta dena aldatzeko izugarrizko grina.
- 223.** Sindikatua sortu zutenek zerbait erakutsi badigute zera da: beste modu bateko sindikalismoa egin daitekeela, alegia. Zintzotasuna, konpromisoa eta gure antolakundearen balioek pertsonak eta denbora gainditzen dituzte. ESK-k gure identitatearen parte diren balio horiek guztiak berreskuratu eta hedatzen jarraitu behar du. ESK-k gure ezaugarri diren balio horiek guztiak berreskuratzearen eta zabaltzearen aldeko apustua egiten jarraitu behar du, eta horretarako tresna on bat da jokabide-konpromisoak edo balio-kodeak moduko batzuk sinatzea. Garen hori islatuko duten balio kodeak, baina eztabaida sortzen eta ESK antolakundeaz haratago zabaltzen ere lagunduko digutenak.

224. 2.6 EUSKALTZALETASUNA

- 225.** ESK sindikatuak Hego Euskal Herrian garatzen du bere jarduna eta sindikatuaren ondorengo printzipio hau mantendu du: gure herriarekiko, hots, kulturarekiko nortasuna errespetatzea. Euskara, beraz, gure herriaren eta kulturaren adierazle argia izan da beti.
- 226.** Euskararen erabilera eta normalizazioan urratsak egitea, zalantzarik gabe, gure antolakundearen egiteko nagusienetakoa da, azken urteotan konpromiso hori lortzeko aurrerapauso handiak eman ditugun arren.

- 227.** ESK-k euskararen erabilera bultzatzeko eta sustatzeko betebeharra du, bere barne zein kanpo mailako harremanetan.
- 228.** Azken urteotan, euskararen presentzia gure komunikazioetan gero eta handiagoa izan da, bai barne zein kanpo mailan, eta presentzia handiagoa izan du sail sindikalen komunikazioetan ere. Hala ere, oraindik bide luzea dugu egiteko, eta ezinbestekoa da beharrezkoak diren tresnak martxan jartzea sindikatua, gero eta gehiago, euskararen eta gure kulturaren defentsaren eta hizkuntza-normalizazioaren aldeko apustuaren isla izan dadin.
- 229.** Gainera, azken urteotan pairatutako eraso judizialek ondorengo aferei buruz gogoeta egitera behartzen gaituzte: gure hizkuntza-eskubideek jasaten duten urraketa sistematikoa, hizkuntza-normalizaziorako politikak eta azken lau hamarkadetan politika hauek emandako emaitzak. Hauez gain, etorkizuneko erronkez ere hausnartu beharko genuke.
- 230.** ESK-k pertsona guztiek gure hizkuntza ikastea bermatuko duen eredu benetan publikoen aldeko apustua egiten du. Gure hizkuntza ezagutzea eskubide bat izateaz gain, ezin da inola ere ordain dezakeenaren pribilegio bat izan, ezta jendearen ahaleginaren eta sakrifizioaren gain erori ere.
- 231.** Euskara gure herriaren identitatearen seinale da, eskubide bat eta, zalantza gabe, osagai integratzaile ere behar du izan. Zentzu honetan, ESK-k argi utzi nahi du euskal eskola publikoaren aldeko apustua, euskalduntzerako esparru nagusi eta murgilketa linguistikorako berme gisa.
- 232.** Era berean, Nafarroan indarrean dagoen zonifikazioarekin behingoz amaitzea premiazkoa dela uste dugu, nafarren hizkuntz-eskubideak urratu, murriztu eta ukatzen baititu. Egoe-ra honek, Nafarroako euskarazko alfabetatzea eragozten du eta bertako hurrek euren hezkuntza prozesua euskaraz garatzea galarazteaz gain, milaka haur hezkuntza sistema publikotik kanpo uzten ditu.
- 233.** Datozen 5 urteotan, ESK-k sindikatuaren euskalduntzearen aldeko apustu argia egin behar du eta hau posible izan dadin neurriak abian jarri.

III. KAPITULUA

ETORRIKO DIREN

BORROKAK

234. **3. I. POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETAREKIN** **AMAITZEKO, BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO** **ERRENTA**

235. Ponentziaren III. kapitulu honetan, xeheki errepasatuko ditugu datozen bost urteetan espero ditugun borrokak, baldin eta aldarrikatzen ditugun zenbait helburu lortu nahi baditugu pertsonen eta bizi garen planetaren bizitza hobetzeari dagokionez. Kapitulu honetan landuko ditugun gaiak zehaztaperen-maila handia dute gure euskal errealitatean, baina bizi dugun egoera globala ahaztu gabe, are gehiago hain ezkorra eta larria izanik.

236. Abiapuntu gisa pare bat ideia nabarmenduko ditugu, 2023ko irailean egindako Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) NBEren goi-bileran aurkeztutako dokumentuan agertzen direnak, zeinaren azpitituluak hala dioen: “Pertsonak eta planeta erreskatatzeko plan baten alde” Inguruan dugun egoera kritikoaz jabetzen lagunduko digu horrek.

237. Sarreraren hasieran esan bezala: askotariko krisien edo polikrisien aroan sartu gara. Gatazkak, klima-aldaketa, COVID-19aren pandemiaren ondorioak eta munduko beste erronka batzuen eraginez, desagertzeko zorian daude GJHak betetzeko hainbesteko ahalginaz lortutako aurrerapenak.

238. Pandemiaren ondoren, garapen-bidean dauden herrialdeek aurre egin behar diote aurrerarik gabeko kanpo-zorraren igoerari, eta egoera larriagotu egin da inflazioaren, interes-tasak igotzearen, tentsio komertzialen eta gaitasun fiskal mugatuaren ondorioz. Premiazkoak dira munduko gobernuen eta nazioarteko finantza-erakundeen erreformak, dagozkien helburuetara eta etorkizunera moldatzeko, eta garapen-bidean dauden herrialdeei ahotsa emateko eta haien parte-hartzea sustatzeko.

239. **Pobrezia eta bazterkeriaren aurka Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Estatuan dagoen borroka-eredua ez da gai izan pobrezia eta bazterkeria desagerrarazteko.**

240. EAEn, 2023ko martxoaren 29an sartu zen indarrean 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena. Eusko Legebiltzarrean onartu zen, EAJren, PSEren eta ELKARREKIN/PODEMOS-IUren aldeko botoei eta EH Bilduren abstentzio konplizeari esker. 2024ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean azaroaren 21eko 173/2023 Dekretua, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamendua onartzen duena.

- 241.** Atzeraldi Handia (2009-2013) izenez ezagutzen den finantza-krisia hasi zenetik eta Lanbidek 2012. urtearen amaieran Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) kudeaketa bere gain hartu zuenetik, okerrera egin du nabarmen Eusko Jaurlaritzak pobrezia arintze-ara bideratutako politikak: 2011n legea aldatu zen DSBEa eskuratzeko beharrezko urteei zegokienez, urtebetetik hiru urtera areagotuta; enplegarritasunaren kontraprestazioa sakondu zen, enplegu-eskaintzei uko egiteko aukerak hirutik bakarrera murriztuta; DSBEaren indexazioa ezabatu zen, lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) % 88an ezarrita zegoena, eta zenbatekoa % 7 murriztu zen Eusko Jaurlaritzaren 2012ko aurrekontuetatik eta ordutik ez da berreskuratu; Lanbideren funtzionamendu administratibo tamalgarria, zeinak paper erre bihurtu baitu DSBEa eskuratzeko eskubide subjektiboa, etab.
- 242.** Hala ere, ez diegu engainatzen utziko: Eusko Jaurlaritzaren politika honek etengabe agertzen dituen gabeziak egiturazko arazoak sortzen dituzte, eta 1989an EAEn ezarritako baldintzapeko gutxieneko errenta bermatuen eredutik datoz.
- 243.** Hiru hamarkada eta erdian, honako hau frogatu du eredu horrek:
- 244.** 1) Pobrezia desagerrarazteko gaitasunik eza. Eusko Jaurlaritzak ahoa betetzen du esanez pobrezia-aren aurkako bere borroka-eredua arrakastatsua dela, baina kontrakoa adierazten dute, hain zuzen ere, bere datuek. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Bereziak egiten duen azken PGDI inkestaren arabera (Pobrezia-ri eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkesta), eragin positiboa izan arren pobrezia larriena murrizteari dagokionez, agerikoa da pobrezia desagerrarazteko gaitasunik eza: 2022ko PGDIren arabera (argitaratutako azkena), pobrezia-arriskuan zeuden pertsonen laurdenak ez zuen DSBEa jasotzen, eta eskuratzen zutenen erdiak pobrezia-egoeran jarraitzen zuen.
- 245.** 2) Ahalegin etengabekoa eta alferrikakoa eskubide subjektibo bikoitzaren falazia ezartzeko. Eskubide subjektibo bikoitzak esan nahi du Eusko Jaurlaritzaren pobrezia-aren politikak beti bermatzen duela eskubide independenteak izango direla, batetik, bizitzeko diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzea; eta bestetik, lan-merkatuan sartzea sustatzeko bitarteko jakinak eskuratzea, enplegurik ez duenak erdietsi dezan.
- 246.** Bi eskubideok ez dira sekula independenteak izan. Ez dira sekula bereizita egon. Aitzitik, gero eta gehiago, batez ere 2012. urteaz geroztik, laguntza publikoak jasotzeko funtsezkotzat jotzen den betebeharraren (enplegua) menpe dago oinarritzeko baliabideak eskuratzea. Enplegurako aktibazioa kontraprestazio bihurtu da, eta mardirikazio saihestezina bailitzan jazartzen ditu DSBEa jasotzen duten pertsonak. Jakina, horrek ez die inola ere bermatzen enplegua eskuratzea, are gutxiago kalitatezko enplegua.
- 247.** 3) Pobreenganako mesfidantza, jazarpena eta estigmatizazioa eragiteko konplizitateak, EAeko administrazioak nahita bultzatua. Baldintzapeko gutxieneko errenten edozein ereduren oinarrian baldintza eta betebeharraren ugari daude, bermatutako errenta jasotzeko eskubidea izateko bete behar direnak. Ondorioz, lehenik eta behin, prestazio hori kudeatzen duen administrazioak mesfidantza izan behar du engainatzeko jarrera izan dezaketenez pobreekiko. Horrek, objektiboki, kolektibo hori estigmatizatzen du, baina ez da hori gertatzen dagozkien administrazioei herritar

eskubideak eskatzen dizkieten beste kolektibo batzuekin.

- 248.** Pobrezia betikotu ahala, baldintza- eta betebeharr-sistemetan oinarritutako ereduak konplexuago bihurtzen dira, eta areagotu egiten dira zaintza- eta kontrol-neurriak, baita eredu horien izaera zigortzaile eta segregatzailea ere.
- 249.** 14/2022 Legearen artikuluetan nahikoa argi ez bazegoen, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzen duen 173/2023 Dekretuak frogatu du halako eredu baten legitimitate soziala mantentzeak pobreen arteko zatiketa dakarrela ezinbestean; haietako batzuk pixka bat laguntzen ditu, eta beste batzuk birrindu egiten ditu. Ondorioz, gizartearen gehiengoaren ustez euren pobreziaren errudun dira, arduragabeak, antisozialak eta, azken batean, sozialki arriskutsuak. Pisua partekatzerara behartuta daudenak, beren bizilekua babesteko titulu juridikorik ez dutenak, gazteak —neurri handi batean—, administrazio-egoera irregularra duten migratzaileak, okupak eta etxegabeak dira, batez ere.
- 250.** Ezin da inola ere espero lege berriak eta DSBEaren erregelamendu berriak pobrezia desagerraraziko dutenik. Izan ere, egungo baldintza eta betebeharr ia guztiak mantentzen dira, eta ondorioz, DSBEa jasotzen ez duen eta pobrezia-arriskuan dagoen herritarren laurden horrek egoera berean jarraituko du.
- 251.** Prestazioaren zenbatekoa handitu denez, baliteke hartzailleek euren diru-sarrerak hobetzea eta, agian, pobre izateari uztea. Hala ere, ezinbesteko kritika dagokio: lege berriarekin aurreikusitako gastua 50 milioi eurokoa izango da, eta kalkulatzen da Eusko Jaurlaritzak urteroko diru-sarrera 187 milioi eurokoa izango dela, kupoaren bidez, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) txertatzeagatik —zeinaren finantzaketa Gizarte Segurantzari baitagokio—.
- 252.** Halaber, ezin da inola ere espero DSBEa jasotzen duten pertsonen enplegarritasuna hobetuko denik. Enplegua areagotzeko arazoaren jatorria ez dago, funtsean, DSBEa jasotzen duten pertsonentzat Lanbidek abian jar ditzakeen mekanismoetan.
- 253.** Areagotu egingo dira pobreen kontrola, jazarpena eta estigmatizazioa. Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren legerian lehen aldiz jaso da Lanbideko ikuskaritza zerbitzua sortzea; 20 langile izango ditu, eta haien funtzio eta eskumenek Lanbideko benetako polizia bihurtuko ditu. Ikuskarien kontrol-lanak estu lotuta daude zigortzeko ahalmenarekin, eta arau-hauste eta zigorren araubidea 18/2008 Legea baino askoz zigortzaileagoa da. Ez da kasualitatea gai biak atal berean jaso izana: IV.TITULUA. IKUSKATZEKO AHALA ETA ZEHATZEKO AHALA.
- 254.** DSBEa arautzen duen 173/2023 Dekretuan, 2. artikuluan, zehaztu egiten da DSBEa jasotzeko eskubidea izan nahi duten pertsonak zer-nolako etxebizitzetan bizi behar duten; horrek zailtasun handiak eragingo dizkie zaugarritasun handiko egoeran dauden pertsonen, eta etxebizitza partekatzerara behartuko ditu. Bestalde, hori bera gertatzearekin batera, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) desagertuko da —alokairu-gastuak ordaintzera bideratua— eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoak ordeztuko du (EPE) apiriletik aurrera, orduan jarriko baita indarrean. Prestazio hori Etxebizitza Sailak kudeatuko du, eta laguntzarik gabe utziko ditu orain arte EPOren babesa zuten pertsonak: diru-sarrerarik ez dutenak, DSBEa jasotzen dutenak eta alokairuan edo berralokatutako logetan bizi direnak..

- 255.** Nafarroan, 1999an, 9/1999 Foru Legea onartu zen, zeinaren bidez ordu hartan Oinarrizko Errenta deiturikoa onartu zen. Mobilizazio sozialari esker lortu zen legea, HEL baten ondoren eta greba orokor baten ondoren, eta haren ondorioz arautu ziren asteko 35 orduko lanaldia administrazioan eta Oinarrizko Errenta. 2012an, baldintzapeko errenta horrek Inklusio Sozialeko Errenta izena hartu zuen, eta 2016tik, Errenta Bermatua deritzo. Praktikan, EAEko DSBEaren oso antzeko garapena izan du; hura eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak handitu dira eta hainbat aldaketa izan ditu, baina ez du balio izan pobrezia desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.
- 256.** Espainiako estatuko beste lurraldeetan, 2020. urtera arte, ez zen txertatu inolako errentarik enplegutik eratorritako eskubide sozialen mende ez zegoenik. Urte hartan, iragarki handinahien ondoren, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara onartu zen, zeinak, zoritxarrez, erreferentziatzen hartzen dituen EAEko eta Nafarroako ereduak. Hortaz, beste behin ere, pobrezia aurka borrokatzeko neurri eraginkorrak izatetik urrun dagoen eta guztiz estigmatizatzailea den baldintzapeko errenten eredu bat da.
- 257. Beharrezkoa da Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta ezartzea**
- 258.** ESKn, argi daukagu: gure esku dagoen guztia egin behar dugu salatzen Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen eraso, prekaritatearen, pobrezia eta bazterkeriaren aurkako politikan ezarritako lege-aldaketaren bidez egindakoa. Era berean, argi daukagu arlo horretan egiten dugun borroka ez duela soluziorik izango, harik eta gai izan arte bermatutako eta baldintzapeko gutxieneko errenten eredu desagerrarazteko eta, horren ordez, beste bat ezartzeko, aukera emango diguna kalitatezko bizi-baldintzak baldintzarik gabe, maila indibidualean eta modu unibertsalean eskuratzeko. Izan ere, badago horretarako baliabide nahikoa, batzuei emateko besteei kendu beharrik gabe. Pertsona orok, izate hutsagatik, bermatuta izan ditzake kalitatezko bizi-baldintzak. Ez dago muga materialik hori eragozten duenik; baliabideak gutxi batzuen irabazietan oinarrituta kudeatzen dituen gizarteak, besterik ez.
- 259.** Goiko paragrafoan aipatu dugun horren izena, besterik gabe, **BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTA** da (BGOE). Intelektualki sortu zenetik, BGOEk bidea urratu zuen gure sindikatuan, gizarte eraldatzeko beste tresna bat den neurrian; izan ere, botere publikoen bidez herritar guztiei diru-sarrerak bermatzen dizkie, bizi-proiektu duinago bat aurrera eramanez.
- 260.** ESK-k babestu egin zuen EAEn **BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTAREN ALDEKO HERRI-EKIMEN LEGEGILEAREN (HEL)** proiektua, atxikimendua eman zuten beste 80 antolakunderekin batera. Ilusioz beteriko proiektua izan zen. Eusko Legebiltzarrean eztabaida zedin 22.000 sinadura jaso arren (egungo legeriak eskatzen duen bikoitza baino gehiago), 2022ko maiatzaren 5ean aurkako botoa eman zuten EAJ, PSE, PP eta VOXek ordezkatutako gehiengoak, eta alde bozkatu zuten EH Bildu eta Elkarrekin-Podemosek.
- 261.** ESK-k arrazoi askorengatik defendatzen du BGOE baldintzapeko errenten aldean (hala nola DSBE, BGDS edo Nafarroako Errenta Bermatua). Izan ere, hainbeste urteren ondoren pobrezia desagerrarazteko gai ez direla erakustez gain, baldintzapeko errenten ere-

duaz guztiz bestelako eredua denez, ez ditu eragiten baldintzapeko errenten albo-kalteak, egitura aldetik saihetsezinak.

- 262.** BGOEren ezaugarriak dira, besteak beste, baldintzarik gabekoa izatea, sinpletasun administratiboa eta bazterkeria soziala prebenitzeko helburua, gutxieneko segurtasun ekonomikoa bermatzen baitu, eta ondorioz, pobre izatearen estigmatizazio soziala saihestu. Izan ere, pertsona orok hautematen du, eta gainera, birbanaketa-sistema bidezkoagoa da, aberastasunaren birbanaketa bermatzeko edo haren aldeko neurri fiskalen bidez finantzatzen delako. Egiaztatu da diru-sarrerak handienak dituztenen % 20 ordaintzaile garbiak direla, eta gainerako % 80 onuradunak direla.
- 263.** Orain arte, baldintzapeko errentek ez dute pobrezia prebenitu, ezta desagerrarazi ere. Are gehiago, kanpoan utzi dituzten beti migratzaile edo asilo-eskatzaile asko, ez dituztelako betetzen DSBEa, Errenta Bermatua edo BGDS eskuratzeko eskatzen dizkieten baldintzak.
- 264.** Badakigu ez dituela arazo guztiak desagerraraziko. Zalantzarik gabe, BGOEk lotura izan behar du zerbitzu publikoen defentsarekin, zaintza-sistema unibertsal eta publikoaren defentsarekin, politika feministekin, Atzerritarren Legea eta politika arrazista eta diskriminatzaile guztiak indargabetzearekin, baita enplegua eta zaintza-lanak birbanatzearekin ere.
- 265.** ESKren ustez, premiazko neurria da Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta. Eskaera pragmatikoa da, eskubidea. pertsona pobretuen oinarrizko premiak ase behar dira. Ezin dugu espero bermatutako errenten eta enplegu prekarioen bidez irtenbide eraginkor bat topatzea, herritar guztiei bizitza duina bermatuko diena.

266. 3.2 PENTTSIO DUINAK BERMATUKO DITUEN SISTEMA PUBLIKO BATEN ALDE

- 267.** Pentsio duinak defendatzeko borrokaren oinarrian Pentsio Sistema Publikoaren gakoak daude: modu solidarioan banatutako ondasun komuna. Belaunaldiarteko eta lurraldearteko elkartasunean oinarritutako banaketa-eredua. Errentak birbanatzeko mekanismo bat da.
- 268.** Beharrezkoa da haren gabeziak nabarmentzea eta, aldi berean, haren indarguneak defendatzea. Banaketa ekitatiboa izan behar da; horregatik, gutxieneko pentsio bat aldarrikatzen da, pentsio altuen eta baxuen —gizon eta emakumeen— arteko aldeak murrizteko.
- 269.** Banaketa-sisteman oinarritutako pentsio publikoaren eskemak etengabeko erasoak pairatzen ditu. Gaur egun, sistema horiek hainbat finantzaketa-arazo dituzte, biztanleria zahartzea, soldaten hazkundea moteltzea, produktibitatea jaistea eta errentaren banaketaren aldaketak direla medio.
- 270.** Metodoa baliozkoa da, baina finantzaketa-iturriek huts egiten dute, alegia, eskura dauden baliabideen banaketak eta kudeaketak. Ezinbestekoa da kotizazioen ondoriozko diru-sarrerak areagotzea, jardunean dauden langileen ordainsariak eta lan-baldintzak duinduz. Eredu kolektibo hori babesten jarraitu behar da, etorkizuneko belaunaldientzat mantendu dadin.

- 271.** Soldaten igoerarik eza eta soldata-desparekotasuna konpondu beharra dago, pentsio publikoen arazoak banaketa-sistemaren bidez konpontzeko, finantzatutako sistemetara — eta horien ondoriozko kalteetara— jo beharrik gabe.
- 272.** Gizarte Segurantzaren sistema publikoa bermatzeko, proposatzen da auditoretza bat egitea, amaitu egingo dena Gizarte Segurantzaren kutxari itzulita estatuko gobernuek hari ez dagozkion beste gastu batzuetarako kendutako zenbatekoak. Halaber, pentsio-funts pribatuak, kolektiboak nahiz banakakoak, ez dira sustatuko laguntza fiskalen edo bestelako bidez.
- 273.** Elite politikoei proposatutako pentsio mistoen ereduak, hala nola langile guztientzako BGAE bat bultzatzeak (borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundea), ez dio laguntzen pentsioen sistema publikoari, eta ez lieke mesederik egingo pentsiodunei, oro har. Egungo egoera larriagotuko litzateke: soldata-ordainsarien zati batek Gizarte Segurantzari kotizatzeari uztea, eta baliabideak ogasun publikoetatik ateratzea, zerga-arinketen bidez.
- 274.** ESK beti egon da izaera kolektiboko pentsio-plan osagarrien aurka, esaterako, enplegu-modalitateko BGAEak. Pentsio publiko duinen defentsari erasoak dira pentsio osagarri pribatuak; unibertsalizatu ezin direnez, pentsio publikoek baino askoz desparekotasun gehiago sortzen dituzte; pentsio osagarrien onuradun nagusiak horien funtsak kudeatzen dituzten finantza-erakundeak dira.
- 275.** Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak erakutsi du, beste inork baino gehiago, bere konbikzioen irmotasuna, mobilizazio-gaitasun iraunkorra eta Pentsio Sistema Publikoaren defentsa gogorra.
- 276.** Duela 6 urte, pentsiodunen mugimenduak Hego Euskal Herriko kaleak eta Espainiako estatuko herriak hartu zituen. Harrezkero, astelehenero kontzentrazioak egiten dira hiriburuetan eta hainbat herritan.
- 277.** Printzipioen adierazpen jendetsuez harago, beste batzuk nabarmentzekoak dira baita ere: 2020ko urtarrilaren 30eko greban egindako mobilizazio orokorra, Hego Euskal Herriko kaleetan 150.000 pertsonatik gorako protestak ekarri zituena; Pentsiodunen Bizikleta Martxa, 2022ko udan hamahiru egunez 20.000 pertsona hartu zituena, 80 herritan baino gehiagotan; edota pentsiodunen mugimenduko emakumeen asanblada nazionalak 2021.-2023. urteen artean.
- 278.** EAEko parlamentuan, Gasteizen, eta Nafarroako Foru Parlamentuan, Iruñean, egindako protesta eta manifestazioak gai izan dira Estatuko pentsiodunen plataformekin sartzeko, eta protesta bateratuak antolatu dituzte Madrilgo Diputatuen Kongresuan. Horietako azkena 2022an izan zen, eta hori baino lehen, Hego Euskal Herrian sinadurak biltzeko kanpaina antolatu zen; 70.000 sinadura eskuratu zituzten.
- 279.** Halaber, gogoan daukagu 2021ean Bruselara egindako bidaia eta bertan, Europako Parlamentuan, egindako kontzentrazioa. Elkartasuna eta babesa adierazi zioten, baita ere, Frantziako Estatuan erretiro-adina atzeratzeko eta pentsioak murrizteko Macronen planaren kontrako mobilizazio-deialdiari.
- 280.** Herri askotan, pentsiodunen mugimenduko kolektiboek herrietako udal-korporazioetara jo dute pentsiodunei eta haien aldarrikapenei babesa eta aitortza adierazi diezaieten. Ho-

- rietako askotan, hainbat udal-taldek —are alkate batzuek ere— beren aitortza adierazi dute.
- 281.** Kalean egoteko modua, leiho eta balkoietan zapiak eta banderak jartzea, kolore bereizgarriak, kalejira alaiak eta jai-giroa, pankarta eta ikur aldarrikatzaileak, batzuetan txistulariekin eta beste musikari batzuekin batera, ekitaldien ostean pintxoak eta edariak eskaintzea, are ehunka pentsiodun elkartu dituzten bazkari herrikoiak. Horrek guztiak kaleetan borroka egiteko eta kaleak hartzeko modu berriak erakutsi dizkigu.
- 282.** Argi eta garbi eztabaidatu eta partekatzen dute edozein ekimen, adierazpen, manifestu, dokumentu, kartel eta abarren prestaketa. Larunbatero, etenik gabe, albisteak eta informazio interesgarria biltzen dituen buletin bat banatzen dute; 5.000 pentsioduni eta interesa duten kolektibo soziali zuzenean banatzen diete, eta zeharka, beste milaka pentsioduni ere.
- 283.** Are gehiago, oinarritzko mugimendu sozialen adibide bikaina dira: koordinazio horizontala, udalerrri-mailako autonomia eta emakumeen ordezkartza handia daukate, eta gai dira zubi-lana egiteko eta beste kolektibo batzuekin konektatzeko. Beste borroka politiko eta sozialetan parte hartzen ikusi ditugu, eta beti erakutsi dute pentsio duinen alde borroka guztiona dela.
- 284.** Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak ekimen garrantzitsuak egin ditu, baita ere, egoiliarren senideen elkarrekin babesa eta elkartasuna adierazteko, hala nola egoitzetan adinekoei kalitatezko arreta ematearen alde eta bertako langileen soldata- eta lan-baldintzen alde; atxikimendua adieraziz osasun publiko, unibertsal eta doakoa defendatzeko osasun-sindikatuaren deialdiei; eta egoitzetako langileen alde agertuz, baita ospitale eta lehen mailako arretako langileen alde ere. Eskakizun eta salaketa garrantzitsuak sustatu dituzte anbulatorio eta mediku-kontsultategiek herritar guztien —batez ere adinekoen— premiak ase behar dituztela exijitzeko.
- 285.** Mugimendu horretako pertsona asko ESK-ko afiliatuak izan dira, edo badira oraindik ere. Gure antolakundearen ezagunak dira, eta garai batean hainbat borrokatan trebatutako langileak izan ziren, hala nola langile-borroketan eta borroka sozialetan, errepresioaren aurkakoetan, askatasun demokratikoen aldekoetan eta, horietako asko, Euskal Herriaren askatasun nazionalaren aldeko borrokan. Diktadura urteetan eta ondorengo hamarkadetan piztutako kontzientziarik eta bizi izandako esperientziarik gabe, oso zaila izango litzateke pentsiodunen mugimenduaren ezaugarriak azaltzea. Zalantzarik gabe, lortutako partaidetza- eta antolakuntza-mailarik gabe ezingo zukeen borrokan jarraitzeko prest egon, gaur egun dagoen moduan.
- 286.** ESK-k, jakina, bere egiten ditu haien aldarrikapenak:
- 287. Soldata duinak defendatzea, KPI errealaaren arabera eguneratuak**
- 288.** Pentsioen atzerakadak amorruta piztu eta nekea eragin zuen. Lehenik eta behin, Zapateroren gobernuak 2011n agindutako izozketagatik, eta ondoren, Rajoyren gobernuak 2013-2017 urteetan ezarritako % 0,25eko eguneratze ziztrinengatik. Ondorioz, pentsiodunen antolakundearen artean adostasun orokorra lortu zen, eta kalera

atera ziren sekulako protestak antolatuta.

- 289.** 2018. eta 2019. urteetan aurrera egin ahala, pentsioen lehen hobekuntzak lortu ziren: bi urte horietan, KPlaren igoera baino zertxobait gehiago igotzea; alarguntza-pentsioaren ehunekoa hobetzea, ezkontidearen pentsioaren % 54tik % 60ra igotza; jasangarritasun faktorearen ezarpena atzeratzea; etab. Aldi berean, mugimenduaren barruan zenbait desadostasun pizten hasi ziren, lortutako hobekuntzak egoki samarrak zirela uste zutenen eta oso eskasak zirela uste genuenen artean.
- 290.** Urte horietako borrokari esker, lorpen batzuk erdietsi dira. Dena den, oraindik ere, pentsiodunen mugimenduaren aldarrikapen asko lortzeke daude. 2023. urtean kotizaziopeko pentsioak % 8,5 eguneratu dira, eta kotizazio gabekoak, berriz, % 15; ezin da hori azaldu, neurri handi batean, Euskal Herriko eta estatuko beste erkidego eta herrietako pentsiodunen mugimenduaren presio eta mobilizazio sozialari esker izan ez balitz. Baina ezin dugu ahaztu pentsioek jasandako galera edo atzerakada, batez ere 2021. eta 2022. urteetan. Bi urte horietako bakoitzean, % 2,5eko eguneratzea baino ez zen aplikatu, nahiz eta urte arteko KPla % 5,5ekoa izan 2021ean, eta % 6,8koa 2022an.
- 291.** Soilik bi urte horietan, % 7,4ko galera metatua izan zuten pentsioek; horri gehituz gero aurreko urteetan izandako % 4,2ko galera, guztizko galera % 11,7 ingurukoa da.
- 292.** % 8,5eko eguneratuta, galdutakoa berreskuratzeaz gain, 2023ko amaieran urte horretako KPla gehitu beharko da. Bestalde, 2021. eta 2022. urteetan ez zaizkie ordaindu zegozkien guztizko atzeraeraginak, eta Estatuko gobernuak ez du hala egiteko borondaterik. Gainera, gogorarazi beharra dago 2023ko eta 2024ko eguneratzeekin, 815 euro ingurukoa izango dela bakarrik bizi den 65 urteko edo gehiagoko erretiratu baten gutxieneko kotizaziopeko pentsioa. Kotizazio gabekoa, 502 euro ingurukoa izango da.

293. Soldata-arrakala desagerraraztea

- 294.** Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak salatu egin du emakume pentsiodunek jasaten duten «genero-arrakala», alegia, soldata edo pentsioa jasotzean gizonen-emakumeen artean desparekotasunak eragiten dituen sistema. Genero-arrakalaren jatorria ez da emakumeek lan egin ez izana. Izan ere, kasu askotan, lanaldi bikoitzak dituzte: lanekoa eta etxekoa. Emakumeek dituzte prekarioak eta soldata baxukoak diren lanpostu gehienak. Emakumeei aldi baterako kontratu gehiago egin zaizkie, egiten zaizkie, eta hala izaten jarraituko du hori eten ezean. Gainera, pentsiodunen mugimenduak gogor kritikatzin du emakumeak direla ezkutuko ekonomian lan egin dutenak, eta lan feminizatuak direla okerren baloratu eta ordaindutakoak, hala nola garbiketa edo adinekoren zaintza.
- 295.** Ondo adierazten dutenez, «emakumeok gure ibilbide profesionala eten behar izan dugu, edo eszedentziak eta baimenak eskatu, zaintza-lanetan aritzeko. Horrek guztiak eragin zuzena du kotizazio-denboran, eta beraz, gure pentsioa murriztu egin da. Ohartarazten dute Euskal Herriko emakumeen pentsioa, batez beste, «gizonena baino % 37 baxuagoa dela, gutxi gorabehera».

296. Zailtasunak zailtasun, euskal pentsiodunen mugimenduak tinko eta aktibo darrai 2018ko urtarriletik

297. Pentsiodunen mugimendu demokratiko, plural, ireki, unitario eta antolatua soilik eutsi eta mantendu daiteke bere horretan. Euskal pentsiodunen mugimenduko kide askok euren erreferentzia sindikal edo politikoak izan arren, erabateko askatasuna, autonomia eta burujabetza dute edozein sindikatu edo alderdirekiko. Erantzun sozial bateratu, zabal eta masibo baten adibide bikaina dira, pentsio eta soldaten atzerakada geldiarazteko eta pentsio-sistema publiko eta kalitatezkoa eskatzen duena.

298. ESKn aitortza adierazi nahi diogu duela sei urtetik gaur arte euskal pentsiodunen mugimenduak urratu duen borroka-ibilbideari, erdietsitako lorpenengatik. Halaber, babesa adierazi nahi diegu orain eta etorkizunean pentsio publiko duinak izateko lortzeke dauden aldarrikapenei; bereziki, 1.080 euroko gutxieneko pentsioari dagokionez, eguneratu egin behar dena sei urteko inflazio larriaren eta bizitzaren garestitze handiaren ondoren, izugarri murriztu baita pentsioen eta soldaten erosteko gaitasuna. Adierazi nahi dugu, baita ere, borronte irmoa dugula euskal pentsiodunen mugimenduaren protestak babesten jarraitzeko, lortzeke dauden aldarrikapenak erdietsi arte. Kosta ahala kosta, pentsioak defendatuko ditugu.

299. 3.3 SEKTORE PUBLIKOA DEFENDATZEA ETA SUSTATZEA

300. Aberastasuna banatzeko berme nagusia dira zerbitzu publikoak

301. Justizia soziala eta aberastasuna banatzeko mekanismorik onena da osasuna, hezkuntza, mendekotasunerako arreta, zaintza eta oinarrizko gizarte-zerbitzuak —unibertsalak eta doakoak— eskuratzeko sarbidea, gure oinarrizko eskubideak bermatzen dituztenak, baita gure sozializazioa eta “bizitza” ere.

302. Gure ekintza soziopolitikorako premisa bat izan behar da hori. ESKn, gure borroka soziopolitikoan, etengabekoa izan behar da guztientzako bizitza duina bermatzeko eskakizuna. Borroka hori zerbitzu publikoen etengabeko murrizketak salatzen harago doa. Helburu izan behar du zerbitzu publikoetara (hezkuntza eta osasuna, adibidez) bideratzen den gastu publikoa handitzea, etxebizitza duina bermatzeko gastu hori etxebizitzaren eremura zabaltzea, edo mendekotasunaren arretarako eta zaintzarako sistema publiko unibertsala garatzea.

303. Horregatik, ESKren ustez, zerbitzu publikoak defendatzeko funtsezko abiapuntua da zerbitzu horiek eskubide unibertsaltzat hartzea: Alegia, aurrekontuen menpe ez dauden eskubide subjektibotzat, eta beraz, botere publikoek nahitaez eskaini beharrekoak.

304. Pribatizazioak. Gutxi batzuentzako berehalako onurak, guztientzako pobrezia etorkizunean

- 305.** Kapitalaren suntsitzeko gaitasunak ez du mugarik, eta aspaldi jarri zituen atzaparrak zerbitzu publikoetan, enpresa publiko estrategikoetan eta guztion baliabide naturaletan.
- 306.** 2008ko krisiaren ondoren, kapitalismoa berrantolatu egin zen, eta ustiapen-kapitalismoaren eredutik erauzketa-kapitalismora aldatu zen. Horretarako hobi perfektuak ziren zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza, baita gas-, elektrizitate- eta ur-hornidura ere), eta hori guztia SEPIren (Estatuko Industria Partaidetzarako Sozietatea) babespean dauden enpresa instituzionalen sarearen bidez gauzatzen zen. SEPIk, enpresa horien esku-hartzea eta kontrola sustatu ordez, klientelismoa erraztu eta etekin handiak eskuratzen laguntzen dio sektore pribatuari.
- 307.** Kontuan hartu beharreko beste elementu bat gizartearen pobretzea da, planifikatutako miseria gisa. Zentzugabea dirudi, baina hezkuntzan inbertitu ezean, osasunean desinbertitzen da eta erakunde publikoak desegiten dira; horrela, nahita suntsitzen da zuzenbide-estatu soziala, eta nahita sortzen dira pobrezia-baldintzak, herritarrei egitura soziala eta aukerak kenduta.
- 308.** Gaur egun, zerbitzu publikoen egoera gero eta okerragoa da, hainbat ikuspegitatik.
- 309.** Osasun arloan hainbat barne-zerbitzu azpikontratatzeko dira, baliabide-falta dago zerbitzuaren etengabeko hondatze eta degradatzeagatik, ondorioz itxaron-zerrenda amaiezinak daude, eta, are okerrago, horrek eragindako desilusioak mesede egiten dio mutuen eta aseguru pribatuen sektoreari. Hezkuntzan, etengabeko murrizketa orokorrak daude, eta zehazki, EAEn, irakaskuntza pribatuaren aldeko Euskal Hezkuntza Legea dago, irakaskuntza publikoaren kaltetan. Zaintza-, laguntza-, kultura-zerbitzuei eta abarrei dagokienez, zerbitzu pribatizatuak edo hitzartuak dira, inoiz ez dira zuzenean publikoak... Kalitatezko zerbitzu publikoak hobetzeari eta eskaintzeari dagokionez, etengabekoa da borondate politikorik eza.
- 310.** Osasunaren eta hezkuntzaren aurkako eraso zuzen hori, eta laguntza- eta zaintza-zerbitzuak zuzenean ez ematea, heteropatriarkatuaren eraso zuzena da emakumeen aurka; nagusi den sistemak behartu egiten ditu emakumeak, emakume izate hutsagatik, zaintza-lanez arduratzera, eta edozein murrizketa edo pribatizazio biderkatu egingo ditu inposatutako zereginak.
- 311.** Zerbitzu publikoak —eta baliabide natural eta estrategikoak— pobretzeko eta pribatizazioaren bidez bereganatzeko kapitalaren politiken aurka, zeharo erradikala izan behar du ESKren ekintza soziopolitikoak. Publikoaren defentsan, geurearen defentsan, atzerapausorik ez.
- 312.** Argudiaketa erraza da. Enpresen irabaziek daramate pastelaren zatirik handiena, eta kuadeaketa publikoa, bidezkoa, arrazionala eta gardena, gizartearen onurarako da zuzenean. Horixe da abiapuntua sektore publikoaren pribatizazioei zuzenean aurre egiteko; adibidez, enplegu publikoaren % 30 ingurura hurbiltzen diren ereduak bultzatuta, Europa iparraldekoea bezalakoa, hemengo % 13tik oso urrun baitago.

313. Zaintza-sistema publiko unibertsala

- 314.** 2023ko azaroaren 30eko greba feministaren eta ESKren ibilbidearen ondorioz, zaintzen gaia eta aldarrikapena gure sindikatuaren ekintza sindikal eta soziosindikalaren ardatz nagusi izatera igaro dira.
- 315.** Gaur egun, ia erabat pribatizatuta dago etxetik kanpoko zaintza eta mendekotasunaren arreta, edo patronatuen, hainbat hitzarmenen eta abarren mende dago. Adinekoentzako egoitzetako, etxeko laguntzako, zerbitzu soziosanitarioetako, eraikinen garbiketako eta erakunde publikoetako langileek —gehienak emakumeak— zerbitzu publikoetako homologazioaren oso azpitik dauden hitzarmenak dituzte, eta oro har, lan-baldintza diskriminatzaileagoak. Eta ez dugu aipatu herritar eta erabiltzaileei emandako zerbitzuaren kalitatea; izan ere, enpresaren irabazien izenean, beti murrizten da, langileen ahalegina gorabehera.
- 316.** Ikuspegi soziopolitikotik, ezinbestekoa da zerbitzu horien publikazioa aldarrikatzea. Ikuspegi sindikaletik, ezinbestekoa izango da langile horiek guztiak sistema publikoan asimilatzeko aukera emango duen ikuspegi zabala izatea (subrogatzeko kausa berezia izan daiteke).

317. Gure Ekintza Sindikala sektore publikoan

- 318.** Sektore publikoko langileak defendatu behar dira, baita haien lan-baldintzak ere.
- 319.** 2023. urte amaieran, EAEko sektore publikoaren azken greben ardatz mobilizatzaileak izan dira erosteko ahalmenaren galera (% 18 inguru, 2010az geroztik), osasungintza eta irakaskuntzako ratioen igoera, negoziatzeko ahalmenaren galera (CCOOk eta UGTk estatuko zergapetze-akordioak sinatu zituzten), eta lan-baldintzak eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko aldarrikapenak.
- 320.** Hego Euskal Herriko sindikatuen aldarrikapenetan barneratu behar dira aldarrikapen horiek (erosteko ahalmena berreskuratzea, birjartze-tasak ezabatzea, negoziazio-esparru propioa...). Halaber, sektore publikoko langileen irudia defendatu behar da, askotan zalantzan jartzen baita, batez ere Urkulluren gobernuak.
- 321.** Lege-iruzur egoeran dauden langileak egonkortzeko ebazpena defendatu behar da, ESK-k onartutakoa. % 40 inguruko bitartekotasun-tasa onartezina da. Lan egin beharra dago egonkortze-prozesuak burutu daitezzen, lege-iruzur egoeran dauden langileen eskubideak aitortzeko. Izan ere, legeari esker alderdirik kaltegarrienak ezabatu zituen, baita ESK-k estatu mailan egindako ahaleginari esker ere.
- 322.** Gure ekintza sindikaletik, lehenetsi egin behar dugu azpikontratazioak ezabatzea eta zerbitzuen publikazioa. Zaila da azpikontratutako zerbitzuak publikatzeko prozesua, eta are gehiago zailtzen du nahitaezko subrogazioaren aldaerak (langileak baldintzarik eskatu gabe lanpostuetan hartzea, kutunkeria, merezimenduzko oposizio-lehiaketa ezabatzea...).
- 323.** Gure ustez, pribatizatutako zerbitzuak lehengoratzeko prozesuetan, lan-kontratudun langile gisa subrogatu behar dira langileak; gogoan izan behar dugu Euskal Enplegu Publikoaren I/2022 Legeak, 26. eta 29. artikuluetan, enplegatu publikoen pare jasotzen dituela langile horiek.

- 324.** Era berean, uste dugu langile horiek betetzen dituzten plazak bitartekoak izan behar direla. Hala, LEP batean sartuko da plaza hori, lehengoratzeko-prozesutik datorren titularrak lanpostua utzi eta berehala, arrazoia edozein dela ere.
- 325.** Jakina, enplegu publikoa lortzeko salbuespenezko prozesua da hori, eta beraz, enplegu publikoan hasten diren langileek ez dituzte gainerako langileen sustapen-eskubideak izango. Hau da, pertsona horien lan-bizitza osorako egoera finkoa izango da, eta beraz, beste edozein plaza eskuratu nahi badute, behartuta egongo dira LEP batean parte hartzera.
- 326.** Era berean, kutunkeria eta iruzurra saihesteko, subrogazioaren xede izango dira soilik zerbitzua zuzenean ematen duten langileak; hala, prozesu horretatik kanpo geratuko dira ordura arte zerbitzuaren titularra izandako enpresako kudeaketa-langileak.
- 327.** Lehengoratzeko-planteamendu horrek ezin gaitu mugatu administrazio publikoak azpikontratutako enpresetan egiten dugun ekintza sindikalean. Izan ere, hobetu egin behar ditugu azpikontratutako eta kanporatutako zerbitzuen lan-baldintzak, baita herritar eta erabiltzaileei ematen zaien zerbitzua ere, eta eraginkorrak izan behar dugu gastu publikoan, enpresa-irabaziak eta gutxi batzuen trikimailuak arlo publikotik desagerrarazteko.
- 328.** Pandemiak akituta utzi ditu gure langile publikoak. Sistemaren egiturak erakutsi dizkigu eta erakundeak interpelatu ditugu beharrezko inbertsioak egin ditzaten zerbitzu horiek handitzeko. Era berean, agerian geratu da premiazkoa dela egungo lan-kargari buruzko azterketa zorrotza egitea, lanpostuen arrisku psikosozialen ebaluazio egokiaren bidez, horiek berregokitu eta birdimentsionatzeko, eta langile gazteagoak hartzeko erretiro aurreratuko planak bultzatzeko.
- 329.** Barne-mailan, indartu egin behar dugu arlo publikoan dugun hazkundera eta ordezkaritza. Gure ordezkaritza indartu egin da, eta ildo horretan, indartu egin behar dugu ordezkaritza dugun esparruetako lan nazionala: osasuna, toki- eta foru-administrazioa, esku-hartze soziala... Horretarako, lantalde nazional egonkorrak sortu behar ditugu.
- 330.** **3.4 ZAINZA EREDUAREN ALDAKETA**
- 331.** Azken hamarkadetan eremu ekonomikoaren hazkundera neurritz kanpokoak izan da, biosferaren eta pertsonen kontura. Bizitzarekin nekez bateragarria den sistema eta mundua eragin dute, besteak beste, ekonomiaren eta hura errazten duten oinarri materialen arteko loturarik ezak, alegia, gure erabateko mendekotasuna kontuan ez hartzeak —naturarekiko zein fisikoki eta/edo emozionalki gure gorputz zaurgarri eta amaikorrek zaindu eta sostengatzen dituzten pertsonetikiko—.
- 332.** COVID-19aren krisiaren ondorioz munduko ekonomia gelditu zenean, agerian geratu zuen: benetan funtsezkoa den bakarra gure bizitzak eta planetarena eusten dituen da. Argi eta garbi egiaztatu zen, horrela, kapitalaren eta bizitzaren arteko dikotomia. Zaintza-lanak eta horien kudeaketa, eremu pribatuan zein publikoan, erabat lotuta daude ekonomiarekin eta testuinguru soziopolitikoarekin.
- 333.** Izaki ekodependenteak eta interdependenteak gara. Ekodependenteak gara, naturaren parte garelako. Baliabide naturalak, gure bizitzak bezala, mugatuak dira eta muga horie-

kin kontziente eta kontsekuente izan behar dugu. Interdependenteak gara, gure bizitzak konplexutasun osoarekin mantentzeko beste pertsona batzuk behar ditugulako. ESK oso kontziente da dependentzia horietaz, gure zaurgarritasunaz. Horregatik, uste dugu ezinbestekoa dela paradigma-aldaketa bat. Errotik aldatu behar dira gizakiek elkarren artean eta planetarekin duten pertzepzioa eta harremana.

- 334.** Ekonomiak ere bizitzan jarri behar du arreta, ez daitezen merkatuak izan gure denbora eta espazioa antolatu eta arautzen dituztenak. Bizitzari —eta hura zaintzeari— lotutako kategoria bihurtu behar da ekoizpena, eta ez gutxi batzuei bakarrik mesede egiten dien etekin ekonomikora lotutakoa, behe klaseak bizitza miserableetara kondentzen baitituzte. Sozialki beharrezkoak eta ekologikoki jasangarriak diren ekoizpenak behar ditugu.
- 335.** Ekonomia prozesu bat da, zeinaren bidez onurak lortzen diren bizitzaren erreprodukzioa gauzatzeko; beraz, erdigunean helburua —bizitza bera— kokatu behar da, eta ez bitartekoa.
- 336.** Pertsonen bizitzak erdigunean kokatzeak nahitaez esan nahi du produkzio-ereduak birplanteatu behar direla, eta etengabe zalantzan jarri behar direla. Horrek esan nahi du sektore batzuk desagertu egin behar direla, eta beste batzuk, berriz, nahitaez hazi eta sustatu behar direla, zaintza-lanekin lotutako sektoreak, adibidez.
- 337.** Sektore feminizatuak, horietako asko zaintza-lanekin lotuak, sektore prekarizatuagoak dira, gizartearen eta ekonomiaren aldetik errekonozimendu gutxi edo batere ez dutenak, eta ondorioz, emakumeak diskriminazio-egoeretara eta pobretzera kondentzen ditu. Emakumeok jasaten ditugun desperekotasunen gakoetako bat da lanaren banaketa sexuala, baita estereotipoak, rola eta genero-sozializazioa ere. Egiturazko diskriminazioa ez da soilik enplegu ordainduaren eremuan erreproduzitzen, hortik harago doa. Hala, tradizionalki emakumeoi egokitzen zaizkie zaintza lanak, eta ondorioz, eremu pribatuan geu gara zaintza-lanak asumitzen ditugunak, eta horrek gure garapen profesionala, pertsonala, soziala eta politikoa mugatzen du, baita zenbaitetan eragotzi ere.
- 338.** Beharrezkoa da balorazio-irizpide hori iraultzea. Izan ere, estu lotuta dago lanaren antolaketa interesatu bati, zeinak sistema kapitalista heteropatriarkalari bakarrik mesede egiten dion eta gizonen pribilegioei eusten dien.
- 339.** Soldatapeko lanak berez emantzipazioa eta emakumeen askapena ekarriko zituelako ilusioa ez da gauzatu. Emakume askok, enpleguaren bidez, autonomia handiagoa lortu dute gizonetik, baina ez kapitalarekiko. Emakumeak lan-merkatuan sartzeak eragindako aldatetei esker aldatu egin dira etxeetako eremu pribatuko dinamika jakin batzuk, baina oro har, ez dira gizonen eta emakumeen arteko harremanak aldatu. Are gehiago, kapitalismoak aberastasun-iturri handia topatu du genero-desperekotasunean.
- 340.** ESK-k irmotasunez lan egin behar du feminizatutako lanak aitortzeko; bereziki, zaintza-lanak, inork nahi ez dituen lan erabat prekarizatuak. Badakigu egoera hori genero-ardatzak zeharkatzen duela, baina emakume zuri eta pribilegiatuak garen neurrian, ezin dugu ahaztu ardatz erabakigarriak direla, baita ere, arraza, jatorria eta klase soziala. Zaintza-lanak hainbat testuinguru soziopolitikotan gauzatzen dira, eta hainbat forma hartzen dituzte, baina pertsona oro zeharkatzen dute salbuespenik gabe, zaintzak jaso edo eman behar izateagatik. Horrek ez du esan nahi pertsona guztiak berdin zeharkatzen dituztenik.

- 341.** Zaintza-lanak, horien antolaketa soziala eta ekonomikoa, desparekotasun- eta bazterkeria-iturri dira. Eta kapitalismoa denez egungo egitura sozialaren onuradun nagusia, bistakoa da daukagun eraldaketa-tresna nagusia, hain zuzen ere, zaintzak direla: zaintza-lanen banaketa eta egitura soziala erabat aldatzea, funtsezko lan gisa balioestea eta aitortza sozial eta ekonomikoa ematea.
- 342.** Zaintza-lanak erantzukizun kolektiboa dira, enplegua antolatzeko moduak zuzenean eragiten du zaintzan. Hortaz, horien garrantziari eta antolaketari buruzko paradigma-aldaketa lortzeko borrokatzeak zuzenean zalantzan jartzen du kapitalismoa eta haren ekoizpena eta lan-munduaz harago doa.
- 343.** Zainketei buruz aritzean, ezinbestean bi dimentsiotan aztertu behar ditugu: emakumeek gehienbat eremu pribatuan egiten dugun ordaindu gabeko lana eta sektore feminizatuen soldatapeko lan prekarizatua.
- 344.** Argi dago zaintza-lanen pribatizazio eta birfamiliarizazio prozesua bizitzen ari garela. Zaintzak salerosketarako erabiltzen ari dira, eta administrazio publikoak eta enpresa pribatuak negozio bilakatzen ari dira premia eta eskubide dena. Era berean, batez ere sistema publikoaren etengabeko murrizketen eta kapitalaren interesen eraginez, zaintza-lanak birfamiliarizatzen ari dira; hala, familiei egokitzen zaizkie, alegia, emakumeei.
- 345.** Pertsona guztiok, gure bizitzako unerren batean edo bizirik gauden bitartean, zaintzak beharko ditugu edo beste batzuk zaindu beharko ditugu, eta beraz, zaintzea edo zaindua izatea ezin da pribilegio bat izan, eskubide bat baizik. Sistema kapitalistak eta androzentristak zaintzarako baldintzak ezarri ditu maila estrukturalan, eta baldintza zehatzak sortu eta arautu ditu. Horrela, zaintzak nork jaso behar dituen eta zer kalitate izan behar duten zehazteaz gain, nork eman behar dituen ere zehaztu du.
- 346.** Mendebaldeko gure gizartean emakumeak masiboki sartu ziren lan-merkatuan. Ondorioz, iragan mendearen amaieran, administrazio publikoek sistema publikoak indartu behar izan zituzten, produkzio-lanean hastean emakumeek partzialki bete ez zituzten erreprodukzio-beharrak asetzeko. Sistema publiko horiek, neurri batean, eremu publikotik asetu dituzte emakumeek gauzatutako zainketa-lanak: osasun-sistema publikoa, egoitzak, etxe-ko laguntza-zerbitzua, hezkuntza publikoa, telelaguntza, esku-hartze sozialeko zerbitzuak, eguneko zentroak...
- 347.** Azken urteotan, ordea, sistema publikoan murrizketa ugari izaten ari dira, eta baliabide publiko asko pribatizatzen ari dira, batez ere kanporatze eta azpikontratazioen bidez, baita zaintza-zerbitzuen merkantilizazioaren eta pribatizazioaren bidez ere. Egoera horrek bi alderdi ditu: batetik, emakume langileen lan-baldintzak are gehiago prekarizatzen ditu; eta, bestetik, zaintzak ordaindu ditzakeenaren eskura dauden pribilegio bihurtzen ditu. Ondorioz, emakumeak eremu pribatuan zaintzera behartuta daude, eta eremu profesional, sozial eta politikoari uko egitera.
- 348.** Sektore publiko pribatizatuetan, langile klaseak kontrabotere bikoitza egin behar du. Izan ere, esan genezake bi patronalen aurka borrokatu behar dugula: batetik, administrazioak azpikontratutako enpresak, askotarikoak; eta, bestetik, bigarren patronal ezkutu eta askoz boteretsuagoa, hau da, administrazio publikoa, kontratazio publikoaren legearen babespean baitago.

- 349.** Horrek negoziazio amaigabeak eragiten ditu. Ikusi dugun arren mobilizazio eta borroken bidez hobekuntza nabarmenak lortu ditugula langileentzat eta herritar zaugarrirei eskainitako zerbitzuetan, oso zaila da dagokion administrazioak esku hartzea. Gainera, esku hartzen duenean gatazkan inplikaturako aldeek sortutako egoera konpontzeko, “bitartekaritzaz” edo salbazio-figura bat baliatzen du, eta ez dugu lortu erantzule zuzen gisa joka dezan, hala den neurrian. Horrela, oraindik ere emakume langileei apurrak ematen dizkie administrazioak. Gainera, konplize dira enpresak negoziatzeko prest daudelako bakarrik administrazioek bere gain hartzen dutena, ohiko negoziazio kolektiboaren ohiko parametroetatik erabat aterata.
- 350.** Batzuetan, erabakiak benetan hartzen dituenarekin benetako negoziazioa izatea lortu dugu, baina kasu gehienetan erabat mugatzen gaitu administrazio publikoaren kontratazio-agirietan esku-hartzerik ez egoteak. Horregatik, ESKren aldarrikapen nagusietako bat da kudeaketa zuzeneko eta kalitatezko sistema publikoaren defentsa.
- 351.** 2023an Euskal Herrian egindako Greba Feminista Orokorra mugarri izan da zaintzarako eskubidearen aldarrikapenean. Grebak lan-arloan izandako irismenez eta eraginaz harago, zaintzak politizatu ditu, terminoa birkontzeptualizatu du eta emakume zaintzaileak subjektu politiko gisa aitortu ditu. Zaintza-lanak aitortzeko lehen urratsa da, zalantzarik gabe, horien dimentsio politikoa identifikatzea.
- 352.** Sistema patriarkalaren arabera, emakume gisa sozializatutako pertsonak berezko gaitasun eta trebetasunak dituzte emakume izate hutsagatik (garbitzea, janaria prestatzea, premia emozionalak asetzea...). Gizonek, aldiz, trebetasun horiek eskuratu egin behar dituzte. Zaintzari lotutako lan feminizatuek balio sozial eta ekonomiko gutxiago izateko arrazoietako bat da hori. Soldatak finkatzeko eta batzuen zein besteen lanak ebaluatzeko orduan, generoan oinarritutako aurretiko jarrera dago. Halaber, ezin ditugu ahaztu kapitalak lortzen dituen onura handiak lanaren sexu-banaketari esker, baita emakumeek familian eta eremu pribatuan doan egiten duten lanari esker. Familia nuklearra, binarismoa eta heteroaraua mantentzea ezinbestekoa da emakumeek zaintza-lanak doan egiten jarraitzeko eta kapitalak horren etekina lortzen jarraitzeko.
- 353.** Kontuan hartuta zaintza-lanen kudeaketa eta banaketa dela emakumeek pairatzen duten desparekotasunaren arrazoi nagusietakoa, eremu sindikaletik lan egitea beharrezkoa da zaintzarako eskubidea—zaintzeko eta zainduak izateko— negoziazio kolektiboan sartzeko, zaintza-lanen banaketa bidegabea desagerrarazteko neurriak proposatuz. Ezin dugu normalizatu zaintzagatiko eszedentzien % 92 emakumeek eskatzea, eta partzialtasun-indize handienak emakumeenak izatea.
- 354.** Era berean, ESK-k apustua irmoa egiten du zerbitzu publiko guztiak indartzearen alde. Alde horretatik, uste dugu ezinbestekoa dela Zaintza Zerbitzu Publiko unibertsala, kalitatezkoa eta doakoa ezartzea, pertsona guztiak zainduak izateko duten eskubidea bermatzeko, eta aldi berean, baita zaintzak lan-baldintza duinetan egingo direla bermatzeko ere. Zaintzak eskubidea dira, eta ez dira emakumeen ardura, gizarte osoarena baizik. Hala, gizarteak bermatu behar ditu.

355. 3.5 FISKALITATEAREN ERREFORMA GIZARTE BIDEZKO

BATERAKO

- 356.** Zergen beharra ez du zalantzan jartzen gizarte kapitalista batean bizi den inork. Zergarik gabe, ez dago dirurik gastu publikoak ordaintzeko. Eta gasturik gabe, erakundeek ezingo lukete funtzionatu, horien menpe baitaude zerbitzu publikoak eta prestazio sozialak.
- 357. Neoliberalismoak fiskalitatea suntsitzen du**
- 358.** Arazoa, beraz, ez da zergen aldeko edo aurkako eztabaida, baizik eta ESK bezalako sindikatu batek zergei buruz duen iritzia. Izan ere, joera aurrerakoi batean kokatzen gara; zehazki, gure burua ekosozialista eta antikapitalista gisa identifikatzen dugu, eta pentsamendu hori erabat aurkakoa da azken lau hamarkadetan gure kultura sozioekonomikoa hegemonizatu duen neoliberalismoarekin alderatuta.
- 359.** VI. Biltzar Nagusiaren ponentzia honetan, neoliberalismo terminoa baliatu dugu maiz, eta ziurtzat jo dugu sobera ezaguna zela eta ez zuela definizio zehatzagoa behar. Hala ere, epigrafe honetan hain zuzen ere, egokia iruditu zaigu neoliberalismo terminoaren definizio zehatzagoa ematea, fiskalitateari buruz hitz egiteko.
- 360.** 1970eko hamarkadaren erdialdetik aurrera garatzen hasi zen kapitalismo historikoa da neoliberalismoa. Haren oinarritzko ezaugarriak, besteak beste, honako hauek dira: merkatuak aberatsen mesedetan arautzea, errenta eta aberastasun oparoenei zergak murrizteko politika fiskalen bidez; ordurako errotuta zeuden ongizate-estatuaren garaipen batzuk partzialki suntsitzea; sindikatuen aurkako ofentsiba; ekonomiak finantzarizatzea; eta desparekotasunak areagotzea, herrialde aberatsetan inoiz ikusi ez den moduan. Kapitalismoa beti egon da araututa, baina oso modu desberdinean une historikoaren arabera. Desberdin arautu zen Bigarren Mundu Gerratik 1970eko hamarkada bitartean, eta ordutik aurrera; horrexegatik deitu zitzaion, orduan, neoliberalismo. 1930etik 1980ra, errentaren gaineko zergaren gehieneko tasa marjinala, batez beste, % 78koa zen AEBn, eta 1951tik 1963ra, % 90etik gora ere igo zen. Erresuma Batuan, 1941 eta 1953 artean, % 98ra iritsi zen. Ondorioz, hamarkada horietan izugarri jaitsi zen errenta- eta aberastasun-kontzentrazioa, eta aberatsek boterea galdu zuten.
- 361. Euskal Herriko zerga-sistema, neoliberalismoak kutsatuta**
- 362.** Orain arte, EAEk ez du zerga-politika propiorik izan. Besterik gabe, Espainiako estatuko neurri fiskalak kopia dira —denboran eta forman—, eta deskontu bat gehitu da, sozietateen gaineko zergari dagokionez beti bereziki handia izan dena. Ondorioz, presio fiskala txikiagoa izan da eta ez da nabaritu zerbitzuak ematean, bi arrazoiengatik. Lehenik eta behin, kupoa eta beste doikuntza finantzario batzuk zehazteak (BEZagatik doikuntza edo finantza-konpentsazioak) zerga-beherapenen zati bat konpentsatu dutelako. Bigarrenik, estatuko gainerako erkidegoak baino aberatsagoa delako EAE, eta presio fiskal txikiagoarekin, per capita baliabide handiagoak lortu dituelako. Konparazioa egiteko oinarria beste autonomia-erkidego batzuetako prestazioak direnez, badirudi EAE gai dela zerga baxuagoekin zerbitzu hobek emateko. Errealitateak dio, ordea, EAEk behar baino zerbitzu gutxiago ematen dituela (hezkuntza, osasuna, adinekoentzako laguntza, eta abar),

garapen ekonomikoaren mailagatik eman beharko lukeenaren aldean. Estatuko zerga-sistemaren arazo asko jaso ditu oinordetzan EAEko zerga-sistemak. Hain zuzen ere, araudi bidegabea duen zerga-sistema sortu du, iruzur-maila oso handia duena. Arazo horiek zi-legitasuna kentzen diote zerga-biltzaileari, eta gainera, zergak igotzeko aukera mugatzen dute. Izan ere, azkenean, ezin da beti handitu zergadun batzuen gaineko presio fiskala (batzuetan asko ordaintzen dute dagoeneko), eta berriz, beste batzuei zergak saihesteko aukera eman. Diru-bilketa handitzea zailagoa da EAEk apenas duelako autonomiarik zeharkako zerga garrantzitsuenei dagokienez (BEZa, fabrikazio-zerga bereziak, etab.). Aurreko guztiaren ondorioz, zerga-sistema bidegabea da eta ez da oso malgua krisi ekonomikoak eta etorkizuneko aurrekontu-erronkek epe laburrean eragindako finantza-beharrei aurre egiteko.

- 363.** Zerga-bilketari dagokionez, PFEZak eta BEZak, ia zati berdinetan, EAEko bilketan % 70eko ekarpena egiten dute. Sozietateen gaineko zergaren diru-bilketa oso lotuta dago koiunturarekin; azken urteotako bilketan % 12 inguruko ekarpena egin du. Hidrokarburoen gaineko zergak (% 9) eta tabakoaren gaineko zergak (% 3), batera, % 12ko ekarpena egin dute baita ere. Gainerako zergek bilketa baino ekarpen gutxiago dituzte. Nabarmentzekoa da ondarearen gaineko zerga 2009-2010 aldian ezabatu zela, eta ondorioz, errenta altuenak zituztenen zergak % 10 baino gehiago murriztu zirela, horiexek baitziren zerga hori ordaintzen zutenak.
- 364.** Arautzeko ahalmenari dagokionez, foru-ogasunek ahalmen handia dute zuzeneko zergetan, baina ez dute ahalmenik zeharkako zerga garrantzitsuetan. Funtsean, Lurralde Historikoek ahalmena dute beren diru-sarrerara fiskalen % 50 arautzeko, eta aldiz, gainerako % 50 arautzeko ahalmen gutxi edo batere ez. Baina, egia esan, ahalmen hori ia guztia pilatu egiten da PFEZn eta sozietateen gaineko zergan, arautzeko ahalmena duten diru-sarreraren % 95 baino gehiago ordezkatzeko baitute.
- 365.** Aro neoliberallean sartzearekin batera, lan-errentek garrantzia galdu zuten kapital-errenten mesedetan, neurri batean, zerga-sisteman egondako aldaketengatik. Horrela, aberastasuna metatu zen, eta inoiz ez bezala areagotu ziren desparekotasunak. Fenomeno globala izan zen, eta, jakina, gure lurraldean ere eragina izan zuen. Azken hamarkadetan joera argia egon da bai EAEn bai Nafarroan: kapitaletik lortutako errentak murriztea izan da erreformen helburua. Zentzu horretan, hainbat neurri ezarri dira, besteak beste PFEZaren tasa altuenak murriztea, tarifa espezifiko askoz baxuagoa sortzea kapital-errentetarako, tarteak murriztea, sozietateen gaineko zerga murriztea, ondarearen gaineko zerga aldi baterako ezabatzea, BEZa eta tasak igotzea, etab. Gainera, 2008ko Atzeraldi Handiaz geroztik, are gehiago nabarmendu da aipatutako joera. Zerga itunduen bilketaren eboluzioa aztertuz gero, EAEko zein Nafarroako 2007ko datuak eta 2021ekoak alderatuta (2021. urtea da argitaratutako datuak dauden azkena), ondorio hauek atera ditzakegu:
- 366.** - **Sozietateen gaineko zergaren bilketa izugarri jaitsi da**
- 367.** EAEn, 2021ean, 2017an baino % 43 gutxiago bildu zen: 2021ean 1.155 milioi euro, eta 2017an, 2.034 milioi euro.
- 368.** - **Lan-etekinen bilketa handitu da**
- 369.** Epealdi berean, atal honetan % 40ko igoera egon zen: 2017an 4.041 milioi eurokoa izan zen, eta 2021ean, 5.639 milioi eurokoa. Nafarroan % 56 igo zen: 946 milioitik

1.478 milioira.

370. - BEZaren bilketa igo da

371. EAEn % 29,3 igo zen: 2017an 4.037 milioi euro eta 2021ean 6.257 milioi euro. Nafarroan, % 56 igo zen: 946 milioi eurotik 1.478 milioi eurora.

372. - Europarekin alderatuta, bilketari/BPGri dagokionez azkenetakoak dira bai EAE eta bai Nafarroa

373. 2020an (kalkulatu daitekeen azken urtea), Nafarroan % 31,6 izan zen, eta EAEn, % 33,7. Europako Batasuneko batez bestekoa % 40,2 zen, alegia, bi lurraldeetan baino 8,6 eta 6,5 puntu gorago. Danimarkan eta Frantzia % 46,8 eta % 45,8koa zen, hurrenez hurren. Presio fiskala EBko batez bestekoarekin berdinduz gero, EAEn 4.640 milioi gehiago bilduko lirarteke EAEn, eta Nafarroan, 1.746 milioi gehiago.

374. - Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala Europako baxuenetakoa da

375. Presio fiskal osoari dagokionez, Europa osoko azken postuetan zeuden EAE eta Nafarroa, baina are okerragoa da sozietateen gaineko zergaren presio fiskalaren egoera. Sozietateen gaineko zergaren bidez bildutakoa, batez beste, BPGren % 2,42koa izan zen EB-27n, 2020an. EAEn, berriz, % 1,46koa izan zen, eta Nafarroan % 1,27koa. Sozietateen gaineko zergan aplikatutako tasa baxuaren eta iruzur fiskalaren ondorioz, zerga horren presio fiskala EBko baxuenetakoa izan zen. Sozietateen gaineko zergaren presio fiskala Europako batez bestekoarekin berdintzeko, 691 milioi bildu beharko lirarteke EAEn. Nafarroan, aldiz, 235 milioi gehiago beharko lirarteke. Ondorioa argia da: enpresei zergak igotzeko tarte sobera dago.

376. - Iruzur fiskala ohikoa da oraindik ere

377. Gogoratu beharra dago sozietateen gaineko zergak bakarrik enpresek eta sozietateek aitortzen dituzten onurak zergapetzen dituela. Hortaz, irabazirik ez dutela edo galerak dituztela alegatzen dutenek ez dute zerga hori ordaintzen. Zerga horretan izan den iruzurraren erakusgarri da, beste behin ere, EAEn 2018ko ekitaldian (eskuragarri dagoen azken datua) zerga hori ordaindu zuten enpresa eta sozietate guztien % 48,1ek galerak aitortu izana, eta % 19,1ek 6.000 eurotik beherako irabaziak aitortu izana. Nafarroan, 2020an, 19.389 sozietatek aitortu behar izan zuten sozietateen gaineko zerga; horien guztien artetik, 5.897 sozietatek (% 30) irabazirik ez izana aitortu zuten eta 7.846 sozietatek (% 40k) galerak aitortu zituzten. Hau da, enpresen eta gainerako sozietateen % 70ek aitortu zuten 2020an ez zutela ezer irabazi edo galerak izan zituztela. Bistakoa da datu horiek ez dutela errealitatea islatzen. PFEZn aitortutako batez besteko errenta ere bada iruzur fiskalaren beste adierazle bat. Euskal Ogasunaren Urteko azken Txosten Bateratuaren arabera, lan-errentek 2018an aitortutako batez besteko errenta 25.509,34 eurokoa izan zen; aldiz, jarduera ekonomikoagatik aitortutako batez besteko errenta 16.042,53 eurokoa izan zen, alegia, 9.500 euro inguru gutxiago. Nafarroan, 2020ko lan-errentak 22.110 eurokoak izan ziren, batez beste; enpresa- eta lanbide-jardueren errentak, berriz, 8.050 eta 10.362 eurokoak, hurrenez hurren. Zifra horiek agerian uzten dute jarduera ekonomikoak aitortzen dituztenek iruzur fiskala egiten dutela.

378. Zerga-politika errotik aldatzeko irizpideak

379. EESKn ez daukagu proposamen zehatzen katalogorik fiskalitatearen sakoneko erreforma bat planteatzeko. Horrek ez gaitu kezkatzen. Duela urte batzuetatik hona egiten ari garen hausnarketei esker, aldiz, gure ustez baditugu irizpideak gizarte hobea erdiesteko oinarri materialei eusteko. Alegia, bizitza erdigunean jartzea eta bizileku dugun planetaren etorkizuna bermatzea xede duen gizarte erdiesteko.

380. Irizpide horiek ditugu ipar —jarraian aipatuko ditugu—, aski baitira egokitzen zaigun koiunturan proposamen fiskal zehatzak proposatzeko.

381. 1) Gehiago duenak, zerga gehiago ordaindu behar du komunitatean bizitzeak dakartzan beharrak asetzeko. Hori ez da konpontzen, soil-soilik, egungo PFEZaren eskala —zeinaren tasa marjinala % 50era ere iristen ez baita— baino progresiboagoa den eskala ezarrita.

382. Jakina, ESKn zuzeneko zerga guztien progresibotasuna defendatzen dugu, baina be-tiere zerga erreala bada. Horretarako, ezartzen den edozein eskala progresibok kontuan hartu behar ditu ondasun ekonomiko guztiak, dela pertsona bat, dela sozietate edo antolakunde bat, haren parte bada eta onurak partekatzen baditu.

383. 2) Nolanahi ere, progresibotasuna mota guztietako ondasun ekonomikoei aplikatu behar zaie. Eta bereziki ondarearen kasuan, nolabait desfiskalizatu egin baita ia. Gaur egun, erabat egiaztatuta dago ondareak eragiten dituela —denboran metatuta eta herentziaren bidez transmitituta— gure gizarte irteerarik gabeko kalezulora daramatzan aberastasun kontzentrazioaren hiru laurdenak.

384. 3) Oro har, zergapeko ondasuntzat hartuko dira baliabide material guztiak, esaterako irabaziak, lan- edo lanbide-jardueratik lortutako produktuak, enpresa- eta finantza-jarduerak eta zorizko jokoei dagozkienak, edo ondasun higiezinetatik, nekazaritza-ondasunetatik (lurrak, basoak, etab.), luxuzkoetatik edo herentzia bidez lortutakoak.

385. 4) Zergak diseinatzeko orduan, zerga-politikak ezartzen dituen irizpideak ahalik eta sinplifikatuena eta gardenena izan behar dira. Esperientziak frogatzen duenez, irizpide ugari kudeaketa-komplexutasun handia eragiten dute, eta ondorioz, errazagoa da zerga-kargak saihesteko lege-zirrikituak erabiltzea.

386. 5) Zerga-politikan edozein desgrabazio eta salbuespen ezabatzearen alde gaude. Ia kasu guztietan, enpresa-munduko eta aberastasun handiko kapitalak ezkutatzen laguntzeko diseinatuta daude. Eta, ia salbuespenik gabe, beti eragiten dituzte desparrekotasunak eta mesedezko tratuak.

387. 6) 6. Bereziki defendatzen dugu generoari dagokionez joera diskriminatzaileak errazten dituzten xedapen guztiak ezabatzea, baita pertsonarteko harreman eredu jakinak lehenesten edo bultzatzen dituzten kontsiderazioak ezabatzea ere, adibidez, PFEZren “baterako aitopenenak”.

- 388.** Defendatzen dugun gizarte-ereduan, eskubide osoko herritarrak dira pertsonak, norbanako gisa, eta erabakitzen dituzten harreman-ereduek ez lukete inolako pribilegio edo diskriminaziorik eragin behar. Hortaz, zerga-aitorpena herritar bakoitzari dagokio bakar-bakarrik, maila indibidualean.
- 389.** 7) Ondasun-herentzia eta -dohaintzek garrantzi berezia izan behar dute zerga-tratamenduan, funtsezkoak baitira aberastasun handiei eta elite ekonomikoei eusteko eta indartzeko. Zenbateko jakin bat salbuetsita —arrazoizkotzat jotzen dena ondorengoan ekonomia erraztera bideratutako familien aurrezkiak sustatzeko—, eskuratutako gainerako baliabideak baino ehuneko handiagoan zergapetu beharko lirateke ondasun-herentzia eta -dohaintzak.
- 390.** 8) Goiko horrek ez du esan nahi administrazioek desjabetzea baliatu ezin dutenik —adibidez, lursail ez-emankorrak, erabili gabeko higiezinak, etab.— herritarren interes orokorra argudiatuz.
- 391.** 9) Tasa eta zerga bereziak. ESKren ustez, tasek eta zerga bereziek eginkizun bikoitza izan behar dute. Batetik, administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu kolektibo jakinen erabilera eta gozamenen ekitatea lortzea. Hala, garraio-zerbitzuen, aisialdi-lekuen (kiroldegiak edo bestelakoak) eta abarren erabilerari tasaren bat ezarri beharko litzaioke, herritarren sektore jakinen arabera oso erabilera desberdina baitute, betiere kontuan hartzen badira pertsona bakoitzaren diru-sarrerak eta birtarteko horien erabilera-maiztasuna.
- 392.** Bestalde, zerga bereziak zuzenak eta espezifikoak izan behar dira, eta ingurumena hondatzen duten jarduera, erabilera, produktu eta kontsumoetara bideratu behar dira, are gehiago irabazi pribatuak eskuratuzera bideratzen direnean, baliabide naturalen merkataritza-aprobetxamenduaren bidez. Esate baterako, jarduerak lotura dutenean erregai fosilekin, uraren erabilerarekin, airearekin, basoekin, mendiekin, ibaiekin, itsasertzarekin eta abarrekin.
- 393.** Jarduera horien gaineko zigor ekonomikoek helburu izan behar dute komunitatearekiko eta naturarekiko harreman-eredu jasangarriagoa eta ekologikoagoa erraztea.
- 394.** 10) Goiko puntuetan aipatutako ikuspegi fiskaletik, gure ustez honako hauek dira zerga-kargatik salbuetsita egon beharko luketen hiru diru-iturri bakarrak: lehenik eta behin, Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta, administrazioak emandakoa, izaera unibertsala duena, baldintzarik gabekoa eta indibiduala, eta premia-premiako gastuak bermatzera bideratua (mantenua, arropa, oinetakoak, sozializazioa/aisialdia); bigarrenik, bizileku den etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako diru-sarrerak, betiere administrazioak ez badu eman diruz lagundutako alokairu bidezko etxebizitzarik; eta, hirugarrenik, pertsonak zaintzeko diru-sarrerak, osorik edo zati batean administrazio publikoak premia hori asetzen ez badu.

395. 3.6 LANGILE-KLASEAREN BANAKETAK KAPITALARI BAKARRIK EGITEN DIO MESEDE

- 396.** Kapitalismoa sistema ekonomiko bat da, desparekotasuna beharrezko duena irauteko eta hazten jarrartzeko. Hala, egungo egiturazko desparekotasunez baliatzeaz gain, horiek indartu eta mantendu egiten ditu. Ordena sozial heteropatriarkal, arrazista, klasista eta koloniala behar du kapitalismoak, pertsonen eta baliabide naturalen esplotazioaren bidez aberastasuna metatzeko eredu ekonomiko bidegabea eusteko.
- 397.** Langileen artean dauden egiturazko desparekotasunek, generoan, jatorrian edota kapazismoan oinarritzen direnek, kapitalari mesede egiten diote. Sistemak ondo daki langileen artean desparekotasunak eragiteak eta/edo sustatzeak errentagarritasun handiagoa eta gatazka sozial gutxiago dakarrela.
- 398.** Kapitala beti da irabazle langile-klasearen zatiketa lortzen duenean. Hori lortzeko, gainera, hainbat modu baliatzen ditu industria- eta enpresa-antolakuntzarako, langileen arteko elkartasuna oztopatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko.
- 399.** Horretarako, kapitalak erabiltzen dituen elementurik argienak dira azpikontratzea, deszentralizatzea, ekoizpen-prozesuak kanporatzea, ABLEak edota telelana. Dena den, beti bilatzen dituzte hutsuneak langile-klasea zatitzeko. Adibidez, pribilegioak banatzeko estrategien bidez, maila indibidualean —plus edo eskubide pertsonal gisa, zatiketa eraginez langile finkoen eta behin-behinekoren artean, lanaldi osoko eta partzialekoen artean— zein maila kolektiboan —soldata-eskala bikoitzak—, baita borondatea erostearen bidez ere, antolakunde sindikalei kontratazioak eskainita lan-baldintzak prekarizatzeko plan guztiak sinatzearen truke, adibidez. Langile-klasearen zatiketa xede duten praktika horietan guztietan, erraza da jarrera diskriminatzaileak topatzea, dela generoagatik, arrazagatik, desira ez normatiboengatik, genero-identitate edo -adierazpenagatik, ideologia politikoagatik, aukera sindikalagatik edo adinagatik.
- 400.** Bereziki aipatzekoak dira patronalak migratzaileei ematen dizkien tratu txar sistematikoak. Atzerritarren Lege bidegabea baliatuta, xantaia egiten diete erregularizazioan enpleguak daukan garrantziaren bidez; hala, desparekotasunez betetako “mesede-jokoa” planteatzen dute, enpleguaren xantaia bikoitzaren bidetik otzantasuna lortzeko.
- 401.** Hornikuntza-kateen oinarrian, munduko hainbat txokotako langileen esplotazio gero eta basatiagoa dago, baita ibilbide logistiko handi eta sostengaezinak ere. Gero eta ohikoagoa da hornikuntza-kate horiek produkzio-sistema bera itotzea, eta horregatik, hornikuntza-kate eroen aurka borrokatzea funtsezko tresna da etorkizunerako.
- 402.** Lehentasunez, zatitzen gaituzten faktore guztiak ezabatu behar ditugu. Horretarako ardatz nagusietako bat azpikontratazioen aurkako borroka da, horixe baita patronalen taktika nagusia langileen antolakuntza suntsitzeko eta aberasten jarrartzeko. Enpresetan, gero eta ohikoagoak dira kontratak eta autonomo faltsuak.
- 403.** Azpikontratazioak, halaber, ustez gardenak diren formak hartzen ditu, justifikatzeko eta aurrera eramateko. Esaterako, Enplegu Zentro Bereziak ugaritzea, Administrazio Publikoetako enplegu babestuko formula faltsuaren pean, eta gero eta enpresa pribatu gehiagotan. Jatorrian bokazio sozialarekin sortu zena —alegia, enplegua eta zeregina emateko lan-merkatuan sartzeko trabak jartzen dizkieten gaitasun anitzak dituzten pertsonen—, gaur egun kapitalak funtzional bihurtu du, etekinak areagotzeko. Dena da negozio, engranaje ekonomiko bidegabe eta irrazionala elikatzeko. Kapitalak ez du mugarik.

- 404.** Batasuna ezabatu nahi dutenek lan-indarra zatitzen dute langileek hainbat enpresarentzat lan egin dezaten, nahiz eta haien jarduna espazio berean egin edo ekoizpen-prozesu beraren parte izan. Hala, enplegatzaile desberdinak dituztenez, nahiz eta ondoko pertsonaren lan berbera egin, zailagoa da aldarrikapenak planteatzeko indarrak batzea.
- 405.** Zatituta dauden subjektuen antolakuntzaren bitartez, oztopo horiek ezabatzen saiatzeaz gain, lantokia eta gizartea bereizten dituen muga gainditu behar da, erabaki estrategiko eta taktikoen bidez mugimendu eta indar askoz zabalagoa sortzeko. Elkarren arteko antolakuntza, beharra baino gehiago, betebeharra da.
- 406.** Borroka sindikal eta sozial handiak bultzatzeko unea da; horregatik, borrokarako eta erresistentziarako dugun gaitasun guztia prestatu behar dugu, arrakastak pilatu ahal izateko.
- 407.** Lantokien barrutik atera behar dira gatazkak, beste lantoki batzuetakoekin bateratu, eta mugimendu sozialen konbergentzia eta elkartasuna bilatzeko. Azken finean, borroketan batasuna lortzen saiatu behar da.
- 408.** Azpikontratazioen aurkako kanpaina indartsu eta etengabeari lehentasuna emateaz gain, helburu hori lortu bitartean, ESK-ko atal sindikalek beste hainbat helburu izan behar dituzte gogoan, egunerokoan.
- 409.** - Parte hartzen dugun hitzarmen kolektiboen negoziatioetan, eremu pribatuan, helburu izango dugu azpikontratatzea, ABLEak, zerbitzuen kanporatzea, etab. debekatzeko klausulak ezartzea.
- 410.** - Sektore publikoan, defendatu egingo ditugu privatizatutako zerbitzuen publikotasuna eta zuzendaritza-funtziorik gabeko langile azpikontratatuak subrogatzea, zerbitzu privatizatuetan modu prekarioan zeuden pertsonen enplegurako eskubidea eta enplegu publikoa berdintasunez eskuratzeko eskubidea orekatzeko akordioak sustatuz.
- 411.** - Pertsona guztien lan-eskubideak defendatuko ditugu, migratzaileak esplotatzeko enpresa askok erabiltzen duten erregularizazioaren xantaiari aurre eginez. Enplegu publikoa berdintasunez eskuratzeko duten eskubidea defendatuko dugu.
- 412.** - Hitzarmen sektorial duinen aldeko borroka zabaltzen lagunduko dugu, elkartasunez jokatzeko lan-baldintza onenak eta txarrenak dituzten artean. Horretarako, halaber, aurre egingo diegu diskurtso berekoiei; enpresa-hitzarmen on baten babesa dutenean, baldintza kolektiboen hobekuntzak interpelatzeko ez dituen horien diskurtsoei, alegia. Etengabe aldatzen ari den mundu honetan, baldintza eta ordainsariei lotutako ziurgabetasuna eta segurtasun zein berme falta gainditzeko, oso tresna ona dira hitzarmen sektorialak.
- 413.** - ESK-ko atalek, bereziki enpresa nagusietakoek, etengabeko arreta eskaini behar dute, eta bertan lan egiten duten enplegatu guztien esanetara egon behar dute, lan-kontratuak dioena gorabehera.
- 414.** - Mekanismoak bilatuko ditugu enpresa nagusia eta lantoki edo industrialde berean lan egiten duten kontratak eta azpikontratak koordinatzeko. Ahal dugun guztietan, batzorde bateratuen aitortza lortzen saiatuko gara, negoziatio kolektiboaren bidez.

Aitortza hori ezinezkoa denean, koordinazio-mailan bultzatzen saiatuko gara, atal sindikal bakarretan lan eginez.

- 415. - Enpresa-taldean kasuan, enpresa guztien arteko koordinazioa eta komunikazioa lortzen saiatuko gara, bai atal sindikalari dagokionez, bai enpresa-batzordeari dagokionez.
 - 416. - Ekoizpen-prozesu beraren parte diren enpresen arteko konexioa bultzatuko dugu, enpresa-talde batekoak izan edo ez, balio-kate osoaren baitan delegatuen arteko saretzean aurrera egiteko.
 - 417. - Multinazionalen kasuan, zailtasunak kontuan hartuta, gure mugetatik harago harremanak eta aliantzak bilatzen saiatuko gara.
418. Kapitalak zatitu egiten gaitu irabaziak areagotzeko, uste baitu dena diruarekin eros daitekeela. Hori lortu ezean bakarrik jabetzen da arazoaz. Horregatik, klase batasuna da tresnarik onena pagotxa hori behingoz amai dakien.

419. 3.7 EKINTZA SINDIKALA ESK-N

- 420. Sindikalismoaren funtzioetako bat, zalantzarik gabe, negoziatzea da, akordioak egitea langile-klase guztiaren lan-baldintzak hobetzeko. Negoziazio kolektiboa negoziazio-gaitasuna dugun enpresa eta sektoreetan eskura dugun erremintetako bat da, langileen lan-baldintzak hobetzen eta eragiten dieten eremu guztietan eskubideak babesten laguntzen duena.
- 421. Hain zuzen, negoziazio kolektiboaren bitartez hobekuntzak lortzen saiatu behar dugu, esaterako, bidezko soldatak, beti KPlari lotutako soldata-igoeren bidez; lanaldiko hobekuntzak; lanaldia murriztea horrek langileen erosahalmenean eraginik izan gabe; hobekuntzak pertsonen segurtasunean eta osasun fisiko zein psikikoan; eta onura sozialak hobetzea lizentzien eta baimenen bitartez; baita langileen laneko, familiako eta norberaren bizitza uztartzen lagunduko duten akordioak ere, zaintzarako eskubidea bermatzen lagunduko dutenak.
- 422. Dena dela, ezin dugu negoziazio kolektiboa ikuspegi globaletik aztertu, eta aintzat hartu behar dugu negoziazio kolektiboa ez dela homogenea eta ez diola langile-klase osoari berdin eragiten. Hitzarmenen bitartez arautu gabeko jardueretan ari diren gehienak emakumezkoak dira.
- 423. Espekto horretan daude, hain justu, guztiz feminizatutako hainbat sektore, eta horien artean nabarmenena da etxeko langileena eta zaintza-lanena. Negoziazio kolektiboa askoz aktiboagoa da, eta hobeto betetzen da gizonak subjektu nagusiak diren jardueretan eta enpresetan.
- 424. ESK-k gai izan behar du sektore horietan esku hartzeko, langileak antolatzeko eta bere jardura sindikala eremu horietara ere eramateko. Ildo horretan, garrantzitsua da dago-

neko Etxeko eta Zaintzako Langileen sektorearekin hasitako lana jarraitzea eta indartzea, eta langile horiek sindikatuan antola daitezen eta bertan parte har dezaten sustatzea.

- 425.** Negoziazio kolektiboa tresna eraginkorra izan dadin, egungo parametroak aldatu behar ditugu, eta mahaigaineratu behar dugu gudu-zelaia ez direla lan-baldintzak soilik, eta garrantzitsua dela enpresei eta negoziazio kolektiboari helaraztea gure bizitza orokorrean hobetuko duten aldarrikapenak, eta ez soilik gure enpleguko bizitza hobetuko dutenak.
- 426.** Hori guztia aintzat hartuta, ESKren moduko sindikatu batek ezin du bere jardun sindikala beste zentral sindikal batzuek sustatzen duten itun-kultura hutsera murriztu, eta ez du hori nahi; izan ere, negoziazio kolektiboa tresna baliozko bat den arren gure helburuak erdiesteko, ez du zertan behinena izan. ESKren moduko sindikatu baten jarduera sindikala, pertsonak garrantzitsuentzat dituena, ezin da noizbehinkako negoziazio kolektibo hutsera mugatu. Hitzarmenen artean tarte handia dago egunerokoan pertsonen ongizatearen alde borroka egiteko, gure antolakundearen oinarritzko printzipioen ikuspegitik.
- 427.** Lanaren eta soldataren gizartea auzitan jartzea eta enpleguaren kritika izan dira antzinatek ESKren zutabe ideologikoetako bi. Kapitalismoak enplegua ondasun goren bihurtu du, gure bizitzak antolatzen dituena, hainbeste, ezen eskubide sozialak ere hari lotuta baitaude. Enpleguaren garrantzia eta zentraltasuna dela eta, beste lan batzuek prestigioa galdu dute, eta ikusezin egin dira; esaterako, militantzia-lanak eta zaintza-lanak, erabat ezinbestekoak direnak gure bizitza sostengatzeko. Zaintzei dagokienez, gainera, ezin zaio ez ikusiarena egin lan horiek duten genero-lerratzte handiari, gehienbat emakumeek egiten baitituzte. Ildo horretan, garrantzitsua da gizonek hausnarketa kolektibo bat egitea haien emakumezko kideen aldean dituzten pribilegioen inguruan, horri dagozkion erantzukizunak beren gain hartzea, hala eremu publikoan nola pribatuan.
- 428.** Enpleguaren zentraltasuna borrokatzeak lagundu egiten du gizarte bidezkoagoa eta berdinzaleagoa eraikitzen, gutxi batzuen interes ekonomikoen gainetik pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituen gizarte bat. Langile-klaseak ez du enplegurik behar, kapitalak behar du gure eskulana, ekoizten eta aberastasuna metatzen jarraitzeko.
- 429.** Egia den arren zaila dela pentsamendu hori egungo egoeran garatzen, egia da halaber posible dela gure ekintza sindikaletik mekanismoak ezartzea eta alternatibak planteatzea ekoizpen-ereduan eta lanaren antolamenduan aldaketa lortzeko.
- 430.** Gure jardun sindikala eredu-aldaketa horretara bideratuta egon daiteke, eta halaxe behar du, adibidez enplegua murriztea eta banatzea, gutxiago lan egitea }eta ahalik eta baldintzarik onenetan egitea eskatu behar baitu. Gaur egun enplegua izateak ematen duen estatus morala zalantzan jartzen jarraitu behar dugu, eta jardun sindikaletik ere lanaren kulturari aurre egin diezaiokegu, eta langile-klaseari ikusaraz diezaiokegu patronalaren uzia lan-harremanak deshumanizatzea dela, eta langileak haientzat ez garela haien mozkinak handitzeko behar den gurpilaren pieza bat besterik.
- 431.** Egungo lanaldiak murriztea eta aparteko orduak egitearen aurkako borroka funtsezkoak dira soldatapeko lan-denbora murrizteko eta hura banatzeko, eta, gainera, lagundu egiten

- dute jende gehienaren bizitzaren gero eta erdigunerago hurbiltzen, gutxi batzuen irabazi ekonomikoen aurretik.
- 432.** Soilik eta lehentasunez soldata-igoeren alde borrokatzeko lan-aldarrikapenen aurrean, ESK-k argi du lan-baldintzak hobetzea askoz gauza zabalagoa dela noski uko egingo ez diogun soldata duina kobratzea baino.
- 433.** ESKren jardun sindikalaren xedeak lan-eskubideak defendatzea izan behar du, eta langile guztientzako hobekuntza handiak posible egitea. Eginahalak egin behar ditugu gure lantokietan ez daitezen zereginak kanporatu eta azpikontratatu, eta gure borroka moduan ulertzea dagoeneko enpresa edo organismo publiko edo erdipublikoetan azpikontratata daudenen egoeraren eta baldintzen hobekuntza.
- 434.** ESK-k “sasi-autonomo”ak egotea bera salatu behar du, eta horren kontra egin, eskubide osoko langile gisa plantillan sartzea erraztu behar du eta figura hori darabilten enpresen iruzurra azaleratu behar du.
- 435.** ESK ez da beste antolakunde batzuk bezalakoa, ez edukian eta ez forman. Gure konpromisoa jendeari dago lotua, langile-klaseari; horrexegatik, lehentasuna izan behar du plantillekin etengabeko harremana izateak, langileei harrera emateak gure eskura dauden bitarteko guztien bidez. Plantillekiko kontaktu eta harreman horrek haien beharrak agerian jartzeko balio izan behar digu, haien kezkei erreparatzeko eta langile-klase osoaren interesak defendatzeko, ezkutuko gaiak argitara ekarriz eta pedagogia- eta salaketa-lana eginez.
- 436.** Langileek eskubidea izan behar dute etengabe informatuta egoteko, eta gure betebeharra da eskubide hori exijitzea eta betearaztea. Bereziki garrantzitsua da etengabe ekonomiaren, kontratazioaren eta azpikontratazioaren alorretako informazioa ematea.
- 437.** ESKren jardun sindikala garatzeko ditugun lehentasunen artean, honako hauek izan behar dute inportanteenak lantokietan:
- 438.** a) Lanaldiak malgutzearen eta desaraupetzearen kontra borrokatzea.
- 439.** b) Enpresak ezarritako edozein neurrik, proposamenek edo komunikaziok genero-ikuspegia txertatuta izatea exijitzea.
- 440.** c) Aparteko orduak deuseztatzea.
- 441.** d) Azpikontratazioaren, kanporatzearen eta ABLE-en bidezko kontratazioaren eta abarren kontrako borroka.
- 442.** e) Genero-arrakalaren kontrako borroka, berdintasun-planak sustatuz eta landuz eta horiek betetzea eta zorrotasunez egitea exijituz.
- 443.** f) Soldaten eskala bikoitzen aurka borrokatzea.
- 444.** g) Partzialtasunaren gehiegizko erabilera eta ordu osagarrien eta/edo lanaldia han-

ditzearen bidez ezarritako gehiegizko malgutasuna bukaraztea.

445. h) Lan-istripuen kontra borrokatzea, osasunerako eskubidea lanaren erdigunean jarritz.

446. **Negoiazio kolektiboa**

447. Azken urteotan, negoziazio kolektiboak aspaldi ikusi gabeko gatazkak ekarri ditu (2018an, negoziazio kolektibotik eratorritako grebak guztien % 57,9 ziren, 2022an, aldiz, % 85,4 izan dira).
448. Besteak beste elikagaien, etxebizitzaren, erregaien, gasaren eta elektrizitateen prezioaren gorakadak ekarritako hiperinflazioak izugarri handitu ditu bankuen eta enpresen mozkinak, eta frogatua gelditu da, beraz, inflazio handiaren kausa nagusia dela etekin finantzarioen eta enpresako etekinen marjinak langile-klasea pobretzearen truke handitzea.
449. Egoera hori dela eta, erosahalmena mantentzearen aldeko grebak eta mobilizazioak gakoak dira, eta halaxe izaten jarraituko dute; horregatik, beharrezkoa da horiek indartzea, ezberdinkeria handitu ez dadin.
450. Datu hori positiboa izanagatik, ezin dugu ukatu mugatua dela. Ezin dugu geure burua en-gainatu eta ukatu gatazka horien iturria langile-klasearen erosahalmenaren galera dela, eta ez negoziazio kolektiboaren ikuspegi globalago bat.
451. Alderdi horri dagokionez, mundu sindikalak orokorrean eta ESK-k bereziki erronka bat dute: egungo gatazkak negoziazio kolektiboaren eremu guztietara hedatzea, esaterako, lan-osasunera, berdintasunera, prekaritatearen aurkako borrokara, lanaldien murrizketara eta abar.
452. Horrez gain, negoziazio kolektiboari organo bateratuetatik aurre egin beharrean atal sindikaletatik egitearen alde egiten duten antolakunde sindikalen aurrean, ESK-k batzarrak dinamizatu behar ditu plantillen eztabaidagune eta erabakigune gisa. Negoiazioak soilik egitura sindikalen bitartez kudeatzeko dinamika desegin behar dugu, gero eta ohikoagoa baita. Sinergia horrek lehen mailako plantilla (afiliatua) eta bigarren mailakoa (langile afiliatu gabeak) banatzen ditu.
453. Azkenik, gatazka dialektikoa dago, etengabea, negoziazio kolektiboaren eremuen inguruan. Eztabaida hori apur bat fikziozkoa da, eta haren jatorria da profil sindikalak indartu nahia, eta ez batzuk eta besteak bateraezinak izatea. ESKren ustez, funtsezkoa da sektoreko eta probintziako hitzarmenak hobetzea eta estatukoei gailentzea, eta horiek sektore jakin bateko oinarritzko zorutzat jotzea.
454. Nolanahi ere, ez da dago kontraesanik probintziako hitzarmenen eta bestelako negoziazio-eremu txikiagoak irekitzearen artean. Ezin diogu uko egin enpresa jakin batzuetan indar-korrelazioei esker lan-baldintzak hobetzeari eta enpresa-etekinari hozkada handiagoa emateari. Gakoa da elkartasun-loturak sortzea langile-klasean, eta batzuen eta besteen interesak elkarren aurka ez jartzea. Zoru komun altua ezartzeak epe luzean onura dakar-kie eremu txikiagoko hitzarmenei ere.

- 455.** Hori guztia betetzeko, lehentasuna da kontzientzia sortzea probintziako edo sektoreko hitzarmenen garrantziaren inguruan, eta, horrez gain, negoziazio kolektiboaren gida oso bat egitea, sakon garatuko dituen ESK-k babesten dituen printzipioak eta ideiak, tresna ezinbestekoa izango baita gure sekzio sindikal guztientzat, negoziazio-prozesuetarako.
- 456.** Gida hori ekintza sindikaleko taldetik egingo eta koordinatuko da, beti ESK-ko delegatuen tailerretan jasotako ildoetatik eta ideietatik abiatuta, Donostian egindako ekintza sindikalaren topaketetako eztabaidetan hasi genuen moduan. Ezinbestekoa da gida hori ikuspegi feministatik egitea. Horrez gain, interesgarria da norberaren esperientziez gain kanpoko jendea ere aintzat hartzea, beste ekintza sindikal mota batzuk ikusi ahal izateko.
- 457.** Gidan jasotako elementu guztiek gure etengabeko kezka sindikalak izan behar dute, marra gorriak ezarriko dituztenak negoziazio kolektiboan eta gure egunerokoan ordezkari gisa egiten dugun lanean.
- 458.** Ezin dugu ahaztu, ponentzia honetan eta aurrekoetan behin eta berriz azpimarratu dugun moduan, gatazkara, mobilizaziora eta grebetara jotzea funtsezkoa dela helburuak erdies-terko bidean aurrera egiteko, estrategia sindikal eta juridikoak koordinatuta eta eginda beti.

459. 3.8 LAN-OSASUNA.
LANPOSTUAN EZ HILTZEA BAINO GEHIAGO

- 460.** Hego Euskal Herriko lan-istripuen tasa oso altua da, hain zuzen, 2008tik mila langile baino gehiago hil dira lan-istripuetan.
- 461.** Oso egoera larria da, lan-baldintzen prekarizazioak, prebentzio-neurri egokiak abiarazteko patronalaren utzikeriak, administrazioek Legea aplikatzen dela bermatzeko duten eraginkortasun faltak eta sindikatuek patronalari lan-baldintza duinak, seguruak eta osasungarriak ezartzeko ezintasunak ekarria.
- 462.** Lan-osasuna zerbait eztaba daezina da, baina enpresarien begietan etekin ekonomikorik ez dakarkien gastu ekonomiko bat besterik ez da. Gure ikuspuntutik, lan-osasuna eta prebentzioa lan-eremuari zuzenean lotutako osotasuna osatzen dute.
- 463.** Ia hiru hamarkada igaro dira Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legea indarrean sartu zenetik. Legea hasiera-hasieratik bete zen gutxi, eta denboraren poderioz atzera egin da prebentzio-neurrien aplikazioan.
- 464.** Inongo zalantzarik gabe baieztatu dezakegu patronalak 30 urte daramatzala zigorrik gabe Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legea urratzen. Prebentzio-plan gehienak paper hutsa dira, eta ez dute benetako euskarririk. Orobat, kanpoan uzten dituzte azpikontraten plan-tillak eta beren konturako langileak, adibidez.
- 465.** Horrez gain, gero eta eskumen gehiago ematen zaizkie mutuei, gero eta gehiago pribatizatzen da langileen osasuna. Agerikoa da lan-osasuna ez dela errentagarria patronalarentzat, eta hala osasunaren arreta nola prebentzioa merkataritza-ikuspegitik ari dela garatzen. Neurri egokiak hartuko balira, langileek ez genuke lanean gaixotu edo hil beharko, baina patronalari errentagarriagoa zaio gaixotasunak eta heriotzak bere gain hartzea prebent-

zio-neurri egokiak eta lan-osasuna erdigunean jartzen duen eredu bat garatzea baino.

- 466.** Gaur egun Euskal Herriko instituzioak kudeatzen dituzten alderdi politikoek, gainera, utzi egiten diete, beste norabait begiratzen dute; Laneko Ikuskaritzak ere ez du bere lana egiten, ezgai da eta ez du interesik patronalak alor horretako legezko araudi zabala gutxienean ere bete dezala kontrolatzeko.
- 467.** OSALAN eta NOPLOI ez dira eraginkorrak, eta zehapen-bitartekoak eta -gaitasuna falta dituzte egunero gertatzen diren irregulartasunak zorrozki eta bermeekin kontrolatu ahal izateko. Ez diete jasotako salaketei erantzuten, eta ez dituzte beren kabuz kontrolatzen istripu-tasa handia dutelako edo berezko arrisku ezkutuengatik zaintza handiagoa behar duten enpresak. Lan-osasuna ez da instituzioen lehentasuna izaten ari, ez prebentzioari dagokionez, ezta geroko arretari dagokionez ere.
- 468.** 2014an Hego Euskal Herrian bajarik gabeko 58.092 laneko istripu egon ziren, 34.783 arin bajarekin, 211 larri bajarekin eta 39 heriotza eragin zutenak. 2023an, ia 10 urte berandua-go, bajarik gabeko 49.947 istripu egon ziren, 50.101 ari bajarik gabe, 240 larri bajarekin eta heriotza eragin zuten 55. Horrek frogatzen du azken urteetako joera goranzkoa dela, ez delako neurri eraginkorrik hartu horiek saihesteko.
- 469.** Zifrak tamalgarriak dira, eta, kontuan hartuta bajarik gabeko lan-istripuak enpresek erregistratzen dituztela eta gehienetan ez direla erregistratzen, baja ekarri duten istripuen datuek oso egoera kezagarria erakusten dute. Patronalak ez du dagokion erantzukizuna bere gain hartu. Gai da osasun-arazoak ezkutatzeko eta gaixoak kriminalizatzeko, azken urteotan gaixotasunagatiko aldi baterako ezintasunen kontrola mutuen bitartez ezartzea lortu baitu, eta, horrenbestez, kontrol hori esku pribatuetara igaro da.
- 470.** Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioa, Espainiako Enpresa Txiki eta Ertainen Konfederazioa patronalek eta CCOO eta UGT sindikatuak sinatutako Enplegurako eta negoziazio kolektiborako V. Akordioaren abaroan garatu nahi diren neurrien artean dago “alorrean eskumenak dituzten administrazioei eskatzea mutua horiekin hitzarmenak egin ditzaten proba diagnostikoak eta tratamendu terapeutikoak eta birgaitzaileak egiteko jatorri traumatologikoko kontingentzia arruntengatiko aldi baterako ezintasun prozesuetan”. Horren aurka gaude, ulertzen dugulako osasun-sistema bikoitza sortzea eta osasun-sistema publikoa pribatizatu dadin sustatzea ekar dezakeela.
- 471.** Nafarroan, Osasungintza Publikoaren aldeko Nafarroako Plataformaren ekimen baten bitartez, Parlamentuak mutuen planak baztertu zituen, eta gobernuari exijitu zion hitzarmen hori sina ez zezan, iazko irailean. Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak, ordea, ez zuen egin, eta, are gehiago, ukatu egin zuen mutuen eta Gizarte Segurantzaren proposamen hori bazegoenik ere. Hortaz, presioa bikoiztu egin behar dugu EAEn, eta planto egin behar dugu gure osasun-sistemaren aurkako eraso hori geldiarazteko.
- 472.** Instituzioek, patronala ez lotsarazteko ahaleginean ari direnez, ez dituzte lan-istripu hilgarri guztiak horrelakotzat jotzen; hain justu, 2023an 33 aitortzen dituzte, eta beste 4 in itinere, eta sindikatuok, ordea, 55ren berri izan dugu, eta beste lau euskal herritarrenak atzerrian. 22ko alde horrek agerian uzten du instituzioek arazoari heldu beharrean hura ezkutatzeko saiatzen direla, ez dutelako patronalaren aurka egin nahi, nahiz eta hark ez duen egin nahi egungo laneko istripu-tasa laugarria saihesteko behar den inbertsio ekonomikoa.

- 473.** Zenbait sektoretan, gainera, errazagoa da istripu larriak edo hilgarriak jasatea, adibidez, basogintzan, eraikuntzan, garraioan, industrian eta abar. Premiazkoa da neurriak hartzea langileek lantokian osasuna eta, okerrenaren okerreanean, bizitza gal ez dezagun.
- 474.** Zenbat eta lan-prekaritate handiagoa, orduan eta laneko arrisku gehiago; horrexegatik, gazteek, migratzaileek eta emakumeek jasaten dituzte osasun-arazo larrienak. Laneko segurtasunaren eta osasunaren alorreko babes-falta horren adibiderik garbiena da. Haiek Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen aplikazio-eremutik kanpo egon ziren 2022ko irailera arte, eta badakigu gaur egun ez gehienetan direla laneko istripuztat jotzen haien lan-jardunagatik edo haren ondorioz gertatutakoak.
- 475.** Gaixotasun profesional gehienak ez daude aitortuta, eta ez dira aintzat hartzen, hala lan errepikakorrek eta zama altxatzearekin lotutakoak, gihar- eta hezur-sisteman eragin zuzena dutenak, nola arrisku psikosozial guztiak, oso osagai emozional handia duten aitortzarik gabeko zaintza-lanei lotutakoak, sektore feminizatuei bereziki eragiten dietenak.
- 476.** Estresari lotutako gaixotasunen maila ia bikoitza da emakumeengan (gizonekin alderatuta). Hori, gainera, bihotzeko gaixotasunekin, hezur-giharretakoekin, depresioarekin eta akidurarekin (NIOSH 2018) lotuta dago, baina gehienetan gaixotasun arruntzat hartzen dira, mutua patronaletara jotzean sistematikoki ukatzen baitute gaixotasun horiek lanetik datozenik.
- 477.** 10 urtean, emakumeen laneko gaixotasunak % 44 handitu dira, baina badakigu askoz gehiago direla aitortu gabekoak. Horiek sortzen diren prekaritate-egoerak eta mutua patronalen jarrerak, patologia horiek lanetik datozela ukatzen dutenean, askoz egoera larriagoa ezkututzen dute.
- 478.** Emakumeen lanaldi bikoitzak zuzeneko eragina du laneko osasunean.
- 479.** Heriotza ez-traumatikoen laneko faktorea gero eta argiagoa da. Gizartean azken urteotan intzidentzia kardiobaskularra nabarmen jaitsi den arren, lan-munduan ez du isla berbera izan. Espainiar estatuan bihotzekoak jota hil direnen kopurua % 40 ere jaitsi da, oro har bizi-ohitura osasungarriagoi esker; eta Hego Euskal Herrian ere joera antzekoa izan dela ondoriozta daiteke. Hego Euskal Herriko populazio aktiboaren bihotzekoen intzidentzia, aldiz, 2006ko kopurutan dago.
- 480.** Uler dezakegu, beraz, laneko faktoreek, adibidez, estresak, gero eta erritmo handiagoek, presioak, prekaritateak eta abarrek eragin nabarmena dutela horrelako heriotzetan.
- 481.** ESKn irmoki salatu dugu azpikontratazioaren eta laneko istripu-tasaren arteko lotura makurra. Kontratetan eta azpikontratetan gertatutako heriotzen kopuru handia ikusi besterik ez dago. Behin eta berriz salatu dugu azpikontratazioaren ondorioz prekaritatea handitzen ari dela, eta lan-osasuna bermatzeko arloa ez da salbuespena.
- 482.** Gero eta azpikontratazio gehiago dago sektore guztietan, eta, oro har, enpresa azpikontratista horiek hartzen dituzte beren gain lanik arriskutsuenak. Prebentzioan egin beharreko inbertsioaren ondorioz lan arriskutsu horiek egiteak duen kostu ekonomikoa dela eta, askotan enpresa matrizeek lan horiek azpikontratatu egiten dituzte.
- 483.** Azpikontratazioaren helburua da, beraz, patronalaren gastuak txikitzea, langileen lan-bal-

dintzen bizkar. Azpikontratetako langileen lan-baldintzak bermatzea, beraz, patronalaren kezketan azkenetakoa da.

- 484.** Horrexegatik egin dugu kanpaina gogor bat azpikontratazioaren aurka, eta ESKn, laneko arriskutsu oso larriei eta hilgarriei erantzuteko protokoloaren barruan, kostuak murrizteko sistema horrek eragindako laneko heriotzak eta istripuak salatzen buru izan gara, eta arreta berezia jarri dugu, adibidez, Telefónica-Movistarren, Michelinen eta haien kontratetan. Txalogarria da matrize horietan eta Petronorren egindako lana, argitara ekartzen baitu prebentzio-lana matrizeetan kontratekin koordinatuta antolatzeko beharra. Bikoiztu egin behar dugu azpikontratazio-araubidean egiten diren lanetan lan-araudia betetzeko presioa, hil ala bizikoa da.
- 485.** Instituzioek ere ez dute zalantzarik egiten herritarrentzako oinarrizko zerbitzuak azpikontratatzeko, azpikontrataturako plantillen laneko segurtasun- eta osasun-baldintzen kontrolik gabe. Horren adibide garbia da anbulantzietan gutxieneko segurtasun-neurriak hartu ez izana Grup La Pauk, zeinak hainbat arau-hausteren ondorioz 100.000 euro baino gehiagoko zehapenak jaso baititu, Eusko Jaurlaritzaren erantzukizun subsidiariopean dagoen zerbitzu batean. Ohikoa da gehiegizko azpikontratazioa eta kontratetan hartu beharreko segurtasun neurriak ez zaintzea, horrenbestez, bai patronalean bai instituzioetan.
- 486.** Orobat, ohiko istripuez gain, oso ohikoak dira heriotza “ez traumatikoak”, arazo kardiobaskularrek eraginak. Historikoki, patronalak eta administrazioak “heriotza natural” deitu izan die, baina denboraren poderioz eta datuak hobeto ezagutzeari esker, gero eta agerikoagoa da laneko faktoreek duten lotura.
- 487.** Kausa anitzeko istripuak dira, eta norberaren berezko faktoreez gain, bizi-ohiturek ere eragina dute haietan. Lanetik eratorritako faktore garrantzitsuenetakoa dira estresa eta arrisku psikosozialak. Azken urteotan, okerrera egin dugu, nabarmen.
- 488.** Osasun Ministerioaren arabera, azken 15 urteotan arazo kardiobaskularren ondoriozko espainiar estatuko heriotzak (gizarte osoan) dezente murriztu dira: 22.028 heriotza izan ziren 2006an, eta 13.463, 2021ean.
- 489.** Lan-munduan gertatzen diren heriotza ez-traumatikoetan, ordea, ez da beheranzko joera hori inondik ageri, eta, aitzitik, batzuetan gora ere egin dute. Halaber, gogoan hartu behar dugu lanorduetan hil direnak bakarrik zenbatzen direla. Kotizatzen ari diren langileen kopurua handitu izanak ez du inola ere justifikatzen heriotza ez-traumatikoen kopuru hori; aitzitik, hein handi batean konpentsatu egiten du gizarte osoan ikusitako beheranzko joerak. Horiek horrela, agerian utzi behar dugu laneko arrisku-faktoreen intzidentzia agerikoa dela, estres-maila eta arrisku psikosozialak mailaka igotzen ari direla eta horrek heriotza ez-traumatikoak ugariak izatea dakarrela.
- 490.** Dena dela, lan-osasunaren inguruko iruzurrik handiena gaixotasun profesionalena da. Mutuek sistematikoki bideratzen dituzte lanetik eratorritako gaixotasunak Gizarte Segurantzara; hartara, patronalak bere mozkinak ziurtatzen ditu, eta plantillan sortutako gaixotasunak Gizarte Segurantzak hartu behar ditu bere gain, zergadun ooren patrikaren kontura.
- 491.** Ez dago tresnarik langileen eskubideen abolizio hori eta gizartearekiko iruzur hori kontrolatzeko. Patronalak hartzen du erabakia, alde bakarrez. Hori ikusita, langileok epaitegie-

tara jo behar dugu, laneko gaixotasun horiek aitor daitezen. Adibidez, mutuek prozedura publikoetan darabiltzaten baliabideak eta perituak diru publikoz finantzatzen dira, eta horrek are gehiago zailtzen du sistema.

- 492.** Datu ofizialen arabera, azken urteotan gero eta gaixotasun profesional gehiago zenbatu dira: 3.607 2020an eta 4.795 2023an. Nolanahi ere, zifrak aztertuz gero, ikus dezakegu errealitatetik oso urrun daudela, eta iruzurra begien bistakoa dela guztiz.
- 493.** Iruzurraren tamaina OMEk berak ere aitortzen du, haren arabera lanak eragindako heriotzen % 20 eragiten baitituzte laneko istripuek, eta gainerako % 80 gaixotasun profesionalak eraginak baitira. Datu hori nabarmen ezkututzen, eta Gizarte Segurantzara bideratzen da.
- 494.** 2022an EAEn laneko faktoreengatik 54 minbizi-kasu bakarrik aitortu ziren. OMEk dio minbizi guztien % 30 eta % 40 artean datozela laneko faktoreetatik. Beraz, datuek argitara ekartzen digute mutuen jokabide zitala, gobernuen onspena duena.
- 495.** Estatuan aitortu diren amiantoak ekarritako minbizien ia erdiak EAEn gertatu dira. AS-VIAMIn datuen arabera, azken 10 urteotan 251 pertsona hil dira EAEn amiantoarekin kontaktuan egon izanaren ondoriozko eritasunek jota.
- 496.** Esan gabe doa presio sindikalak eragina duela horretan, eta eremu horretan azpimarratu behar dugula CAFeko langileek Irunen eta Beasainen izan duten konpromiso nekaezina, jarraitu egin behar baitute enpresak hartzen dituen pabiloi industrialetako amiantoa ken dezan aldarrikatzen, haietako plantillan amiantoarekin kontaktuan egoteagatik ezin konta ahala heriotza egon bada ere. Planteatutako kalte-ordainak nahikoak ez diren arren, 2022ko urriaren 21/2002 Legea, Amiantoaren Biktimentzako Konpentsazio Funts bat sortzekoa, onetsi zen, eta presio sindikala zalantzarik gabe funtsezkoa izan zen horretarako. ESK-k ere gure alea jarri zuen borroka horretan.
- 497.** Hala eta guztiz ere, errealitatetik oso urrun gaude oraindik, hau da, laneko minbizi asko eta askok oraindik ez dute aitortzarik. Datuak, Europako beste herrialde batzuetakoen aldean, oso baxuak dira, eta horrek ere iruzur orokortua agerian uzten du.
- 498.** Hortaz, lanetik eratorritako gaixotasunen tratamendu eta kostu guztia Gizarte Segurantzaren kontura doa, eta beranduago mutuek minbiziren bat lanetik eratorritakotzat aitortu duten arren, ez dute diru hori itzultzen. Patronala beti suertatzen da irabazle.

499. Zer egin dezake ESK-k?

- 500.** Lan-osasuna gure ekintza sindikalaren funtsezko zutabe bat da, bai eguneroko lanean nola enpresetako batzordeetan, segurtasun- eta osasun-komiteetan eta sekzio sindikaletan beraietan, non salatzen baititugu arrisku-egoerak, gaixotasunak, heriotzak eta arrisku psikosozialen eta buruko osasunaren garrantzia, bai kanean, salaketekin eta mobilizazioekin.
- 501.** ESKren V. Biltzar Nagusitik igaro diren bost urteek argi eta garbi frogatu digute kapitalaren interesak pertsonen bizitzaren eta ingurumenaren aurretik jartzen dituztenen alderik zitalena.
- 502.** Ezbairik gabe, 2020 hasiera sakon aztertu behar da, ezin garbiago erakusten baitu sistema

kapitalista edozertarako gai dela, langile-klaseen bizitzaren kontura gutxi batzuen pribilegioak mantentzeagatik.

- 503.** 2020ko otsailaren 6an, Zaldibarko zabortegia amildu zen, eta zabor artean lurperatuta gelditu ziren Alberto Sololuzeren eta Joaquín Beltránen gorpuak, zeinak ordurako emana baitzuen zabortegiaren egoerak zekarren arriskuaren berri. Haien gorpurik ez da aurkitu.
- 504.** Zaborrontzia amildu eta lau egun beranduago, Urkullu lehendakariak autonomia-erkidegoko hauteskundeetarako deia egin zuen, eta kazetariak galderak egitean erantzun zien Zaldibarrera ez zela joan ez zuelako gustuko “egoteagatik egotea”. Sei egun behar izan zituen bertaratzeko eta hildakoei elkartasuna adierazteko. Gertatutakoak argitan uzten du segurtasun-neurririk oinarritzkoenak eta ingurumena errespetatzekoak betetzen ez zituen patronalaren zigorgabetasuna, eta zigorgabetasun-egoera horretan, instituzioak gakoa dira, esaterako, Zaldibarren kasuan, lehendakaria buru dela.
- 505.** Erantzun soziala eta sindikala oso garrantzitsua izan zen, Eibarko eta Ermuko kaleak bete egin ziren, eta elkartasuna zabortegiraino bertarako eraman zuten. Bultzada horri esker, Zaldibar Argituz herritarren ekimenak, Ekologistak Martxan eragileak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak indarrak batu zituzten, enpresako jabeek eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek eta arduradunek gertatutakoan izandako erantzukizuna epaitegietara eramateko. Lau urte beranduago, epaiketarik ez da egin oraindik.
- 506.** Zaldibarren gertatutakoaren ostean, COVID-19aren pandemia piztu zen, eta beste behin ikusi genuen herritarren eta langileen osasuna bigarren mailara igaro zela, kapitalak irabaziak sortzen jarrai zezan, eta funtzionala bihurtu zuela bere interesetarako edozein egoera, beste behin ere pertsonen bizitzen gainetik.
- 507.** Patronalak osasun-materiala bildu zuen (maskarak, gelak eta abar), ekoizten jarraitzeko, eta, bien bitartean, zentro soziosanitarioek ez zuten herritarren eta langileen beraien artean kutsatzea saihesteko oinarritzko gauzarik ere. Horrelaxe, larrua jokatu behar izan genuen faktoria handietan ekoizpena geldiarazteko, Mercedes-Benzen, adibidez, eta NBEak zentro soziosanitarioetara bidal zituzten eskatzeko. Horrelaxe lortu genuen Laneko Arriskuak Prebenitzeko Legearen 21. artikulua bete zedin.
- 508.** Iragarri genuen jarduera etengo zela etxerik gabeko pertsonen harrera-zentro batean, artatutakoen eta langileen osasuna bermatzeko neurriak hartu ezean, eta instituzioak behartu genituen Euskal Herri osoan ezohiko arreta-zentroak irekitzera. Horri esker, argitara ekarri genituen gure herri eta hirietako kaleetan bizi diren milaka pertsona horiek, instituzioek ikusi nahi ez dituztenak.
- 509.** Egoera jasanezina izan zen Osakidetzan eta Osasunbidean, baita adinekoak, zaurgarritasun-egoeran dauden haurrak, buruko osasun-arazoak dituzten pertsonak eta abar artatzeko egoitza-zentroetan ere. Gure leloa garbia izan zen: “NBE guztiak osasun-langileentzat, gizarte-zerbitzuetakoentzat eta gainerako industria-sektoreetakoentzat”.
- 510.** Protesta egin genuen lantoki guztietan prebentzio-neurriak falta zirelako, eta bizitzak kapitalaren interesen, heriotzaren interesen, aurretik jarri genituen. Halaxe egin genuen 2020ko martxoaren amaieran antolatu genuen Haserre Egunean, COVID-19a pertsonarik hauskorrenei jotzen ari zitzaizen bitartean. Egoera horretan, inoiz ahaztuko ez dugun kide bat galdu genuen, gainera, Jimmy, ESK-ko ordezkaria Tennecon.

- 511.** Beti mantendu dugu kalean osasunaren alde borrokatzeko borondatea. Hainbat urtez ELArekin, LABekin, STEILASekin, EHNErekin, HIRUrekin eta CGT-LKN Nafarroarekin batera egin dugu laneko istripuen aurkako jarduna, batuta.
- 512.** Batasun hori 2023 hasieran hautsi zen, ELA protokolotik irten baitzen. Ulertzen dugu hori atzerapauso bat dela, eta ahuldu egiten duela lan-osasunaren defentsa. ESKn batasunaren alde egiten dugu apustu, ahalik eta proposamen eta espazio bateratuenak sortzearen alde.
- 513.** Laneko heriotzak eta lan-istripuak, zoritxarrez, ez dira murriztu, ez dira desagertu, argi uzten dute datuek zeinen larria den egoera, eta are gehiago, zeinen beharrezkoa den erantzun irmoa ematea, langileen artean ahalik eta batasun handienaz lan egitea eskatzen duena, bai enpresa mailan bai gizartearen aurrean.
- 514.** Beraz, lan-osasunaren arloan ere batera egin dugu lan kolektibo sozial engaiatuekin, eta bereziki aipatu nahi ditugu Azpeitiko Elkar-ekineko jendea, haiekin partekatu baititugu Luis Enrique Sorianoren heriotzaren jatorria lana izatea aitortzearen aldeko salaketa soziala, juridikoa, sindikala eta politikoa.
- 515.** Apustu egin dugu LABekin, STEILASekin, EHNE-Etxalderekin, HIRUrekin eta CGT-LKN Nafarroarekin partekatzen dugun protokoloa jarraitzearen alde. Honako ildo hauek indartu nahi izan ditugu:
- 516.** - Lan-istripuei eta osasun-galerei erantzuteko dinamika indartzea.
 - 517.** - Prekaritatearen aurkako borroka eta lan-osasunaren defentsa indartzea.
 - 518.** - Mutuen aurkako borroka indartzea.
- 519.** Barnera begira, aitortu beharra dugu sindikatuak defizit garrantzitsua duela. ESK-k lan-osasunaren arloko lan sistematikoa egituratu behar du, bertan aholkularitza sindikaleko mekanismoak eta trukea, kolektibizazioa eta eztabaida ahalbidetuko duten egiturak garatzeko, prebentzioko ordezkari guztiei prestakuntza egokia bermatzea abiapuntu hartuta. Lan Osasuna Taldea berraktibatzea lehen urrats garrantzitsua da, egin beharrekoa, eta horretarako behar ditugun baliabideak aztertu behar dira, lantokietan egiten dugun lana hobetzeko.
- 520.** Zalantzarik gabe, maila nazionalean taldea berraktibatzea aurrerapauso bat izan da, lan-osasunaren eremuan guztiok genuen defizita kontuan hartuta, azken urteotako hila bete guztietan bildu baita, erantzuna emateko egiturazko beharrei eta gertatzen den guztiarentzako erantzun sindikala emateko. Oso balantze positiboa egin dezakegu, partaidetza-maila handia dela eta.
- 521.** 2023 apirilaren 28an, STEILASekin koordinatuta, taldetik planifikatutako lehen kanpaina aurkeztu genuen, mobilizazio baten eta amaierako oso ekitaldi indartsua eginez Lan Ikuskaritzan.
- 522.** Ahalegina egin behar dugu lan-osasuna presente egon dadin ekintza sindikal eta negoziazio kolektibo guztian, eta arreta berezia jarri behar zaio lan-osasunaren eta prekaritatearen arteko loturari, baita azpikontratazioarekin duenari ere.
- 523.** Tentsioa eta gatazkak ugaritu behar ditugu prebentzioari eta lan-osasunari dagokion guz-

tian. Datozen urteetan, arreta espezifikoa eman behar diegu txandakakotasunari eta gauekotasunari lotutako lan-osasuneko arazoei, baina are indar handiagoz heldu behar diegu arrisku psikosozialei.

- 524.** Zaldibarren gertatutakoan edo COVID-19aren pandemia piztean ekin genuen bezalaxe ekin dugu 2024aren hasiera beldurgarriarekin, 13 hildako egon baitira lan-istripuetan. ESKn halaxe egiten jarraituko dugu, oso garbi daukagu, borrokan jarraituko dugu; izan ere, beti esan izan dugun bezala, gure bizitzek haien mozkinak baino gehiago balio dute.

525. 3.9 SINDIKALISMOAREN ERRONKAK LAN- ETA EKOIZPEN-HARREMANEN ERREALITATE BERRIEN AURREAN: TELELANA, ADIMEN ARTIFIZIALA, AUTOMATIZAZIOA

526. Teknologia berriak

- 527.** Herrestan garamatzan teknologiaren eta industriaren modernizazio guztiz bizkorak berekin dakartza berez nahi ditugun ondorioak (gutxiago lan egitea), baina ez ditugu gertatzen ari diren moduan nahi. Kapitalismoa berrantolatzen ari da, aldaketa handiak datoz eta sindikatuak arreta handia jarri behar die. Trantsizio-etapa betean gaude, eta gutxika-gutxika makinaren eta teknologiak edo adimen artifizialak egiten duenaren laguntzaile-lanak egingo ditugu. Automatizatu daitekeen dena automatizatzeko joera dago.
- 528.** Mugikortasunaren eremuko aldaketak, berotze globala, elektrifikazioa, telelana, prozesuen automatizazioa, automata kolaboratiboak ugaritzea, robot logistikoak eta garraiokoak ezartzea, adimen artifizialaren garapena... ez dira etorkizuna, oraina dira, eta zeharkako eta zuzeneko galera esanguratsuak ekartzen ari dira dagoeneko, gero eta eragin handiagoa izaten ari direnak desagertzen ari diren enpleguen kopuruan eta geratzen direnen kalitatean.
- 529.** Automatizazio horrek eta aurrerakuntza teknologikoek lanpostu asko suntsitzen dituzte. Gauza logikoa da enpresaren ikuspegitik; izan ere, soldatak aurrezten dituzte, eta gizakion lan-indar gutxiago behar dute ekoizpen-kantitate bererako edo handiagorako.
- 530.** Esan gabe doa logika hori eraso hutsa dela langileentzat, are gehiago teknologia erabiliz lanaldi txikiagoekin ekoizpena mantendu edo handitu egin daitekeela aintzat hartuta.
- 531.** Horregatik, patronalaren aurka borrokatu beharra dago, eta ekintza sindikalean jarraitu behar dugu errealitate berri horien inguruko arauketa berri posibleen edo desarautzetik eratorritako abusuen aurrean. Oso adi egon behar dugu, eta errealitate horretarako sindikalismo erabilgarria garatzen ahalegindu behar dugu. Ezin diogu errealitateari gure gainetik pasatzen utzi behar, gure apustuak bidezko trantsizioa izan behar du. Enpleguak desagertzeak ez du traumatikoa izan behar, gizalegez konpentsatu behar dira.
- 532.** Laburtzeko, teknologiaren eta ekoizpenaren hamarnaka aurrerakuntzak aukera ematen dute artean inoiz lortu gabeko ekoizpen-maila izateko. Hori horrela, bi aukera daude:

- 533.** 1) Patronalak irabaziak handitzea enplegua suntsituz eta automatizazioaz eta teknologia berriez baliatzea bere irabaziak handitzeko.
- 534.** 2) Edo lanaldia erabat murriztea soldata txikitu gabe, dagoeneko badagoen gainbalioak eta murrizketak berak digitalizazioarekin, automatizazioarekin, adimen artifizialarekin eta abarrekin batera dakarren ekoizpen-irabazia handitzeak justifikatuta.
- 535.** Sortzen diren enplegu berriek ahalik eta baldintza onenak izan behar dituzte, eta behar bezala konpentsatu behar dira. Ez dago soldata txikitzeke aukerarik (BGOE salbu). Bada garaia gizarte guztiak onura lortzeko.
- 536.** Maila globalean gure apustua da instituzioek enpresak behartzea teknologia-mota guztiak erabiltzeagatik zergak ordaintzera, aurrerakuntza teknologikoez baliatzen baitira etekin handiagoak bilatzeko, langile-klaseari edonola eragiten diola ere. Halaber, borrokan jarraitu behar dugu oinarritzko errenta unibertsalaren alde, egoerek aurreikusteko moduko enplegu-galeren ondoriozko sorospen eta kalte-ordain kaskarrekin aritzera eraman arte.
- 537.** Gainera, garbi utzi behar da enplegua sortzeko erarik eraginkor, berehalako eta jasangarriarenetako bat dela egun dagoena banatzea, eta eremu publikoetan lanpostu berriak sortzea, gainera, adibidez, osasunaren, hezkuntzaren, zainketen eta abarren alorretan.
- 538. Telelana**
- 539.** Telelanak, ustez, hainbat onura dakartza, esaterako, kontziliazioa, baina aintzat hartu eta borrokatu beharreko beste hainbat alderdi ere bai.
- 540.** Ez da ahaztu behar ohiko lantokitik kanpo egindako lana dela, non langileak patronalaren aurrean antolatzen diren. Bateratze-gune bat da, lan-tipologia horrekin apurka-apurka desegiten ari dena. Ezbairik gabe, langile-taldean isolamendu horrek izugarri zailtzen du langileekin harremana izatea eta lan sindikala.
- 541.** Gainera, telelanak ekoizpen-prozesuaren gaineko kontrola errazten du, ez baitago pertsona fisiko bat horren jakinaren gainean eduki beharrik. Arriskua dago lantokiaren eta etxearen artean banaketarik gabe lantokiak bizitza inbaditzeko, eta ez alderantziz, ustezko kontziliazioa saldu nahi diguten arren.
- 542.** Telelana hedatzea lan-harremanen eredu berri baterako atea izan daiteke, zerbitzuak emateko plataforma digitalen ondorioz. Lan-modalitate horrek arrisku handiak ditu maila sindikalean; hortaz, diskurtsoa garatu behar dugu, eta hausnartu egin behar dugu ekintza sindikalean eta negoziazio kolektiboan dituen ondorioen inguruan.
- 543.** Are gehiago, telelana guztiz orokortzen bada, arriskua da gutxika-gutxika lana deslokalizatuz joatea, lan asko urrunetik egin daitezkeelako, munduko edozein lekutatik.
- 544. 3.10 EKOIZPEN-BIRMOLDAKETA PLANETA SALBATZEKO**

- 545.** Bizi garen kontsumo-gizarteak orotariko baliabideak agortzen ditu, eta sekulako energia-kantitateak ekoitzi beharra dakar. Hortaz, beharrezkoa bihurtzen da energia ez-berriztagarrien estraktibismoa, eta bestelako materialen zerrenda luze batena, eta horrek eragin lazgarria du jarduera horien ondorioak jasaten dituztenengan. Ez da arazo bakarra, neurrigabeko kontsumoak hondakin-mendiak, ur kutsatua eta ezin arnastuzko airea sortzen baitu. Hobeto bizitzeko, murriztu egin behar dugu materialen eta energiaren kontsumoa.
- 546.** Eraginak banakako aldaketekin apaldu daitezke, adibidez, kontsumoa murriztuz, bizitzarako denborak motelduz eta egindako kaltea konpontzeko lan eginez. Emakumeen ekoizpenak ikusaraztea eta balioestea eta erantzukizun hori gizonekin banatzea, beraz, bizitza jasangarria lortzeko erdiguneko gaietako bat da. Azken finean, gehiegi kontsumitzen dugunon desazkunde materialean datza, ahaztu gabe justua izan behar duela, Hegoalde Globalean bai baitago oinarritzakoena ere ez duenik ere.
- 547.** Esparru komunitarioan, mundu mailako erresistentzia-borrokak daude eredu kapitalistaren kontra, zeina epe motzean diruzko etekinak maximizatzean oinarritzen den, giza komunitateen eta ekosistemen eta sistema jasanezina sostengatzeaz arduratzen diren emakumeen osasunaren bizkar bada ere. Emakumeek, herri indigenek, mugimendu sozialek eta abarrek osatzen dute erresistentzia hori. Klase-kontzientzia duten sindikatuekin batera egiten dute. Oreka berrezartzen saiatzea autosufizientzian oinarritzen da, deszentralizazioan, autoantolakuntzan eta erasopeko herri guztiekiko elkartasunean. Gizarte guztiek ikasi behar dute eusten; urratzen; desobeditzen; eraikitzen; lurraldean protagonismoa hartzen; eta partaidetzazko aurrekontuak, denbora-bankuak, truke-kooperatibak, aisia jasangarria eta proiektu kolektiboak, fabrika autogestionatuak, elkartasun-mutuak, herri-jantokiak eta abar garatzen.
- 548.** Sindikalismoa askotarikoa da oso, eta erronka horri hainbat eratan heltzen dio. Badago sindikalismo erreakzionario bat, nahiago duena ezer ez aldatzea enpleguak mantentzeko. Lanaren Nazioarteko Erakundeak Bidezko Trantsizio deritzonaren alde egiten du, eta lan-baldintzei eta prestakuntzari erreparatzen die. Beste sindikatu batzuek trantsizio baten alde egiten dute, baldin eta horrek esan nahi badu enplegu berde ugari sortuko direla. ESK-k urrunago heldu nahi du. Ez da nahikoa enpleguak aldatzea. Geure burua korrante ekosozialista eta antikapitalista baten parte moduan ulertzen dugunez, gurearen gisako sindikalismo bat eta orain arte aipatutakoek egiten dutena bereizten dituenari buruzko hausnarketa teorikoan parte hartzeaz gain, praktikan jarri behar dugu posible zaigun orotan.
- 549.** Sindikatu ekosozialista garenez, besteak beste osagai hauek dituen hausnarketa programatikoa egin behar dugu: ESK-k eragile proaktiboa izan behar du trantsizio beharrezko horretan. Besteak beste, honako hau proposatzen du ESK-k:
- 550.** - Enplegua birplanteatzea, honela zehaztuta: lanean ematen dugun denborak zentzua duen, batez ere enplegua=soldata gehiengoz gailentzen den ikuspegitik; egiten dugun lana bateragarria den geure bizitza gidatzen duten balioekin; enpleguaz dugun ikusmoldean rol garrantzitsua duen lana banatzearen aldeko borrokak, hau da, enplegu-orduak eta zaintza-lanak banatzearen aldekoak.
- 551.** - Eremu publikoaren aldeko apustua, irakaskuntzan, osasungintzan eta beste sektore publiko batzuetan ere bai. Ahal dela, beti borrokatzea esfera guztien pribatizazioaren

aurka. Administrazio publikoek azpikontratutako zerbitzuak lehengoratzea. Lehengoratze-prozesuek behar besteko gardentasuna izan dezaten eta azpikontratutako pertsonen enplegua defendatu dadin, ESK-k 2021ean irizpide komun bat ezarri zuen lehengoratze-prozesu horiei aurre egiteko.

- 552.** - Nekazaritzako eta arrantzako sektorea paradigma agroekologikotik garatzea. Elidakura-subiranotasunaren inguruan hausnartzea. Lurralde berrantolatzea eta gazte langabeei lurak, irakaskuntza eta erraztasuna ematea, kalitatezko nekazaritza ekologikorantz jotzeko, kontsumo tokikoa eta osasungarriagoa errazteko, horrek lanpostuak sortzeaz gain herritar guztientzako onura ekarriko bailuke. Ildo berean, apustu egin behar dugu ekoizpen-banaketa-kontsumo sare laburrei lotutako tokiko eta artisautzako ekoizpenaren alde.
- 553.** - Enpresa ugari ari dira dagoeneko beren trantsizio ekosoziala pentsatzen edo abiarazten hasten. Trantsizio hori, noski, erdigunean interes kapitalistak jartzen dituenaz, bateraezina da gure ideia ekosozialistekin. Automobilgintzaren sektoreko enpresez ari gara, adibidez, Mercedesez eta Volkswagenez, baita findegiez, esaterako, Petronorrez, edo energia elektrikoko sortzaile handiez ere. Horrelakoetan, gure kezka bi fronte izan behar ditu: batetik, lan-eskubideak mantentzearena, ezin dena enpleguan soilik gelditu; eta, bestetik, enpresak abian jarritako trantsizio-eredu kapitalistari kritika ekosozialista egitea.
- 554.** - Lan egiten dugun enpresak krisi-egoeran daudenean, aukerak planteatu behar dira, ahal dela, ekonomia eta gizartea logika kapitalistatik harago antolatzea posible dela pentsatuz. Ez da erraza, ezta hurrik eman ere, eta beste sindikatu batzuekin talka eginarazten digu.
- 555.** - Beharrezko trantsizioaren aurka doazen beste enpresa batzuk desagertzea. Ez daukagu zalantzarik industria militarrekin, nuklearrekin edo segurtasunean aritzen direnekin (polizia).
- 556.** Sindikatuoi eta gizarte osoari, baina guri bereziki langile-mugimenduan dugun lekuak erantzukizun handiagoa dakarkigulako, unea heldu zaigu ez ikusiarena egin ezin diegun eztabaidei eta jarduketa praktikoei heltzeko. Planetarekin errespetua izan nahi dugu, eta apustu egin nahi dugu ekoizpen-bitartekoen jabetza pribatutik harago doazen jabetza-moldeen alde. Enpresak eraldatzeko esperientziak egin nahi ditugu trantsizio ekosozialeko planen bidez, jabetza kapitalistaren orbita eta merkatuaren burdinazko agintea gaindituko dutenak. Fase berri baten abiapuntuan gaude, eta espero dugu ESKren VII. Biltzar Nagusirako, hemendik bost urterako, aurrera egiten jarraitzeko aukera emango diguten esperientziak ematea.

IV. KAPITULUA

ALIANTZA SINDIKALAK ETA MUGIMENDU SOZIALAK

557. 4. I ALIANTZA SINDIKALAK ETA ESPARRU BATERATUAK

- 558.** ESK-k beti aldeztu izan ditu borroka esparru bateratuak laneko hobekuntzak eta hobekuntza sozialak erdiesteko tresna moduan, baldin eta edukiz ondo hornituta bazeuden. Gure lantokietan eta bestelako espazioetan apustu egiten dugu aliantzen alde, banantzen gaituzten diferentziak alde batera utzi eta ahalik eta helburu partekatu gehien lortzeko.
- 559.** Lan eta borroka bateratuak sustatzeko dugun borondatea ez da inola ere bateraezina geure diskurtsoa edukitzearekin, ezta gure lana beldurrik, konplexurik eta kanpoko esku-sartzerik gabe egitearekin ere.
- 560.** ESK-k lehen erresistentzia-frontea ezarri behar du lantoki bakoitzean, eta, hortik aurrera, sektore mailan eta maila konfederaletan ahalik eta borroka-fronte zabalenak sortzeko kapitalismo basati eta harrapariaren aurrean.
- 561.** Sindikatuen arteko harremani eta beste antolakunde batzuekiko aliantzei dagokienez, ESK-k datozen urteetan STEILASekin duen harremana sakondu nahi du. Elkarlan estrategikoa da ESKrentzat, batez ere hausnarketan partekatzeko gai garenean horien sakontasuna eta irismena handitzen ditugulako. ESK-k eta STEILASek, STEILASen azken kongresuan aitortu genuenez, antolakunde senidetuak gara, eta halaxe izaten jarraitzeko borondatea dugu.
- 562.** Azken bost urteotan, sindikatuen arteko harremanak aldatu egin dira, ordea, okerrera. Euskal Herriko bi zentral sindikal handienen, ELAren eta LABen, arteko harreman txarrek baldintzatu egin dituzte sindikatuen esparruko mobilizazio bateratuak, baita espazio soziopolitikoetako aliantzak eta lana ere.
- 563.** ELAren eta LABen elkar ulertu ezinagatik, Euskal Herriko langile-klaseak ezin izan dio erantzun irmoa eman Yolanda Díazen azken lan-erreformari greba orokorrerako deia eginez. Deialdiaren porrotaren ondorioz, eragin handirik gabeko zenbait mobilizazio besterik ez ziren egin.
- 564.** Zailtasunak zailtasun, ESK bat dator Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalaren posizionamendu sindikalarekin (ELA, LAB, STEILAS, CGT-LKN, EHNE, HIRU eta CNT), zeinak bere hatsarre ideologikoetan ekintza sindikala lantokietako borrokan eta eredu ekonomikoa aldatzean oinarritzen baitu.
- 565.** Lantzen ari garen aliantzak eta ekintza-unitateak ez dira mugimendu sindikalera mugatzen, baina. ESK eraldaketarako borondatea duen eragile soziopolitiko bat da, eta dena aldatu nahi du, ez lan-harremanak soilik. Aldaketaren eta elkarrekiko ikaskuntzaren logika hori dela eta, ez dugu sindikalismoa ulertzen bestelako eragile sozialekiko harreman esturik gabe. Eredu eta arazo ugaritan koordinatzen gara eta aritzen gara elkarlanean askotariko

antolakunde eta mugimenduekin. ESK-k historikoki parte hartu du mugimendu feministan, esaterako, eta euskal gatazka ebazteko bidea bilatzen ere engaiatuta egon gara, horren alde egin dugu apustu, Foro Sozialean parte hartu baikenuen desagertu arte. Halaber, ESK parte aktiboa izan da EAEn Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errentaren aldeko legegintzako herri-ekimenean, eta indarrak biltzeko lan andanaren eta greba baten bidez ere defendatu du, adibidez, Aiaraldea eskualdeko etorkizuna, lan soziosindikal onaren erakusgarri.

- 566.** ESK-k antolakunde eta mugimendu sozialekin dituen harreman egonkorren artean, zailtzarrik gabe garrantzitsuenetako bat, eta ESK-k apustu irmoa egiten duenetako bat da Euskal Herriko Mugimendu Feministarekin duen aliantza. Aliantza horrek Euskal Herrian 2023ko azaroaren 30ean egindako Greba Feminista Orokorrean parte izatera eta bertan parte hartzera eraman gintuen. Greba horren zailtasunak eta beste zentral sindikal batzuen jarrera guztiz gaitzesgarriak gorabehera, ESK-k tinko sinesten du zaindu beharreko espazio bat dela, eta bertan lan egin beharra dagoela, zintzotasunez, aliantza horiek indartuz eta Mugimendu Feministarentzat tresna bat izanez, zentzugabeko protagonismoetatik ihes eginez, ez helburu zehatzekin ez era arrakeroan erabili gabe, eta geure burua parte duela baina gu buru izan gabe, ez baitagokigu hori.
- 567.** Eragile sozial eta sindikal askok partekatzen dugun ekintza-batasunaren espazio estrategikoak, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, askotarikoak pasatu ditu azken bost urteotan, esaterako, 2020an pentsiodunen mugimenduak greba orokorrerako deia egin zuen, eta ondoren hausnarketa-prozesua egin zen, gero lan-espazio bateratu horretan gelditzeko erabakiarekin amaitu zena. Nahiz eta ESKn hainbatetan hausnartu dugun espazio horretan dugun partaidetzaz, azkenean antolakundearen nahia beti izan da haren alde egiten jarraitzea. ESKren iritziz, planteatutako kanpainak eta mobilizazioak interesgarriak izan dira ondorio kualitatiboetarako, hobekuntzak ekarri baitituzte antolakunde sozialekin egindako hausnarketa partekatuen eta lan-hausnarketan eremuan, baina urriak izan dira mobilizazio sozialari lotutakoak. Mobilizaziorik ezaz eta erantzun irmoa sortzeko herritarren gaitasun gabeziak hausnartu egin beharko genuke. ESK-k, inplikaturik dagoenez, ezin dio iskin egin bere erantzukizunari, ezta gainerako antolakunde parte-hartzaileek ere. Antolakunde sindikalek, gehienbat, hausnartu egin beharko lukete gure diskurtsoa eta aldarrikapenak herritarrengana helarazteko ezgaitasunaz.
- 568.** Ekintza-batasuna ez da erraza lortzen, eta ondotxo daki hori ESK-k. Batasuna eraikitzeke egunero lan egin beharra dago, eta askotan horrek norberaren planteamenduei uko egitea eskatzen du. ESK-k errespetatu egiten du, eta ulertu ere egin dezake, beste antolakunde batzuen harremanak zergatik hoztu diren. Hala eta guztiz ere, ESK-k uste du ekintza-batasuna ezinbestekoa dela langile guztiak mobilizatzeko eta helburu komunak erdiesteko. Illo horretan, ESK-k apustu egiten du Euskal Herriko errealitate sindikalaren potentzial osoa herri honetako langile-klasearen zerbitzura jarriko duen batasuna berrantolatzearen alde.
- 569.** Estatuan, bat gatoz espainiar estatuko sindikatu kideekin: IAC, SA, CUT, CSI, Confederación Intersindical. Ekintza bateratuari berriz heldu nahi diogu, ezker sozialak eta sindikalak Espainiako estatuan nagusi diren politika sozialdemokratei erantzun egin behar dielako eta aurrerakuntzarik ez delako egon funtsezko eskubideetan, esaterako, adierazpen-askatasunean eta erabakitzeke eskubidean.
- 570.** Ipar Euskal Herrian harreman historikoa izan dugu Solidaires antolakundearekin, eta ha-

ren egitura ezartzea aukera ona da datozen urteetan lan bateratua esploratzeko.

- 571. UGT eta CCOO sindikatuekin egoera ezer gutxi aldatu da azken bost urteotan. Bake sozialaren aldeko apustuak eta sistemari eusteko duten zereginak zaildu egiten du antolakunde horiekin elkarlanean aritzea, eta haiekin espazioak partekatzeko aukerak enpresako borroka eta sektorekoak besterik ez dira, izatekotan.
- 572. Aliantzen errealitate asimetriko horrek frogatzen du, banaketa sindikalaren iturria nortasun-diferentziak direla azpimarratu nahi den arren, edukiak eta estrategia sindikala direla ekintza bateratu egonkorra ezinezko egiten dutenak.
- 573. Ikusita herrialde batzuetan gorabidean dauden ideologia batzuen egoera nazioartean zer garrantzi hartzen ari den eta horrek zer ondorio dituen eta izan ditzakeen, ESK-k aliantzak indartu beharko ditu nazioartean lan egiten duten antolakunde ekin, hausnarketa- eta lan-espazio komunak sortu ahal izateko.

574. 4.2 ESKREN SINDIKALISMOA ETA MUGIMENDU SOZIALAK

- 575. ESKn garbi daukagu eraldaketa sozial sakona behar dela pertsona guztien laneko eskubiak hobetuko dituzten funtsezko aldaketak gertatzeko. Horregatik, uste dugu ezinbestekoa dela bizitza sozialaren alderdi guztiei heldzea, eta horrek esan nahi du presente egon behar dugula gure afiliatuak parte hartzeko prest dauden ahalik eta mugimendu sozial gehienetan, eta Hego Euskal Herriko askotariko borroketan lagundu behar dugula.
- 576. 40 urteko historia dugu sindikatuan, eta gure ibilbide tradizionala izan da afiliatuak animatzea mugimendu sozialetako antolakundeetan, plataformetan eta sareetan parte har dezaten, pertsona guztientzako gizarte justuago eta berdinzaleagorako eraldaketa sozialerako gure ideologiarekin bat badatoz, noski. Horixe egin dugu iraganean, orain ere horretan dihardugu eta horretan jarraituko dugu etorkizunean ere, sortzen diren antolakunde eta mugimendu berriekin.
- 577. Jarraian, Euskal Herrian gertatzen ari diren egoera sozialetako batzuk aztertuko ditugu, analisi honek balio izan dezan ESKren barruan hausnarketa hobetzeko eta gertatzen ari diren borroka sozialetan gehiago murgiltzen laguntzeko.
- 578. Azken bost urteok errepasatuta, ponentzia osoan zehar deskribatu dugun moduan eredu kapitalista hau auzitan jartzen duten eta bizitza antolatzeko era berriak proposatzen dituzten mugimendu sozialetan parte hartu dugu. Jarrera eta bideratze horren ondorioz, ESK geure burua sindikatu feminista, antikapitalista, antimilitarista, ekologista, internazionalista eta antirrazistatzat dugu; horregatik, beste behin nabarmendu nahi dugu, parte hartu dugu aipatu berri ditugun aldarrikapenen aldeko antolakunde eta ekimenetan.
- 579. Politika eskuindar, erreakzionario, misogino, arrazista, homofobo, lesbofobo eta transboen gorakada, emakumeen, migratzaileen, LGTBIQ+ pertsonen eta abarren funtsezko eskubiak baztertzearaino oinarritutakoa ikusita, kolektibo edo mugimendu erresistenteen borrokekin bat egin dugu, eta eskuin muturreko ideologiaren alde horren aurkako erantzun guztien agendan parte hartzera garamatza.

- 580.** Honako hau zioen Eduardo Galeanok: “Munduan haien lekua lapurtu diete. Haien lanak eta lurak kendu dizkiete. Asko gerretatik ihesi doaz, baina askoz gehiago doaz soldata suntsituetatik eta lur erraustuetatik ihesi”.
- 581.** Munduan 108,4 milioi pertsona behartu dituzte lekualdatzera (UNHCR, 2022ko abendua). Emigrazio behartu horietako gehienak garapen ekonomikoko eredu kapitalista globalizatuak, Europan ondo errotutako eredu korporatibistak sortzen ditu, Hegoalde Globalean lurak errausten eta horiek defendatzen dituztenak hiltzen dituenak. Garatzen diren politika praktikoei klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera eta baliabide naturalak agortzea azkartzen dute, eta kutsadura sortzen dute ingurumenean, ia beti atzeraezina.
- 582.** OMALek (Multinazionalen Latinoamerikako Behatokia) ondo definitzen duenez, mega-proiektuen garapena dugu aurrean. Korporazio kapitalista globalizatuak buru dituzten proiektuak dira, I+G+b politikatik abantaila fiskalen, laguntzen, dirulaguntzen eta finantza-zioaren zorro zabala eskaintzen dizkieten eremu publikoaren eta pribatuaren aliantzetatik sustatuak, gaitasun eta zerbitzu publikoen kalterako.
- 583.** Ustiapen-eredu horiek indarkeria eta eskubide-galerak dakartzate. Negozioa egin nahi dute, kosta ahala kosta. Berdin die gizakien oinarrizko beharrak (osasungintza, etxebizitza, hezkuntza, zaintzak eta abar) ez asetzea, lan-eskubideak galtzea, pertsonen haien ekoi-zen-formen bitartez jasotzen dituzten indarkeriak eta migrazio-prozesuetako indarkeriak, ezberdinkeria handitzea eta baliabide naturalak xahutzea. Horrez gain, korporazio handi horiek alde batetik bestera ibiltzen dira, inolako zigorrik gabe, gobernu demokratiko deritzenen abaroen.
- 584.** XXI. mendeko kapitalismoak proiektu berri bat sortu du, minimo demokratikoak desegiten dituen enpresa transnazionalen izatezko gobernuaren bitartez (OMAL). Neokapitalismo horrek bizitzak higatzen ditu, legearen babespean. Esan gabe doa, gainera, askoz ere larriagoa dela emakume migratzailea, arrazializatua eta egoera administratibo irregularrekoentzat, Atzerritarren Legeak babesik gabe utzitakoentzat, arrazismo instituzionalak duen euskarri administratibo publiko guztiaz halakoak sistematik eta zigorgabetasun osoz manipulatzeko eta kolpatzeko betiketuzen baitu.
- 585.** Egoera administratibo irregularrean dauden gehienak babesgabetasun handia dute laneko esplotazioaren aurka. Langile aktiboak dira, eta etxeko lanen eta zaintza lanaren sektorearen % 15 osatzen dute; ezkutuko ekonomiako langileak, baldintza prekarizatuak langileak, bizirik irautea jokoan dutenak, lanean diharduten espazio pribatuetan giltzapetutako emakumeak. Beste % 6k ostalaritzan egiten dute lan, baina legezko gutxiengoan eta lan-hitzarmenen azpiko lan-baldintzetan. Horrek eragin negatiboa du soldatetan, atsedendietan, ordutegietan, gaixotasun-bajetan, oporretan, eta laneko osasunean eta segurtasunean. Laneko esklabotza-mota berriak dira, pertsonen salerosketa, zeinetik enpresa-klasen batzuek etekina lortzen duten, eta zeinarekin administrazio publikoak ez ikusiarena egiten duen. Dena da jakina, baina ez da ezer egiten.
- 586.** Eta ez dira laneko eskubideak soilik urratzen, funtsezko zerbitzu publikoetatik kanpo ere uzten dira, esaterako, etxebizitzatik. Errolda eta etxebizitza duina lortzeko dituzten zailtasunak, batzuk logelen gehiegizko alokairu lotsagarrien bidez lortzen ari diren aberastasuna. Horrek guztiak indarkeriazko eta erabateko babesgabetasun sozialeko egoerak sortzen ditu, eta asko eta asko kalean bizitzera eta lo egitera behartzen ditu. Bazterkeria

- sozialeko mekanismo bat da. Hiru dimentsioko errealitate bat dugu aurrean: humanoa, soziala eta politikoa.
587. Antolakunde sozialen lan-eremua osatzen duten errealitate sozialen errebaso honetan ezin aipatu gabe utzi gerrek eragindako migrazio behartuak, eta bereziki azpimarratu behar da arma-industriak duela horren erantzukizun nagusia.
 588. Arma-enpresa handiak ditugu gure etxeetatik hurbil, gure zergen zati batekin finantzatuak; ekoizpen zibilaren mozorropean heriotza eta suntsipena eragiten dute hemendik milaka kilometrora, eta albo-kalte guztiz larria dakarte, sekulako migrazioak.
 589. Gerra hondamendia da. Gainera, gerretan, heteropatriarkatua era esponentzian biderkatzen da, infinituraino, emakumeen gorputzak gudu-zelai bihurtzen ditu, eta gerrako ospilaren zati. Hori giza eskubideen urraketa izugarria bada ere, ez dirudi hainbesteko basakeriaren erantzuleei axola dienik. Armak fabrikatzeak ez dakar bakerik, eta armak fabrikatzen badira, lehenago edo geroago herriak kolonizatzeke eta hiltzeko erabiliko dira.
 590. Administrazio publikoak zeregin garrantzitsua du ekoizpen militarra ekoizpen zibil bihurtzeko politikak bultzatzen, lanpostuak mantentzeko. Argudioak sobera daude ondorioztatzeke gerrarako ekoizteari utzi behar diogula.
 591. Dagoeneko euskarari jazartzen zitzaion diktadura frankistan ez bagaude ere, Euskal Herrian oraindik ere eskubide linguistikoak urratzen dira. Euskarak eraso larriak jasan ditu, oraindik oztopoak jartzen dira udalerritan batzuetan euskara hizkuntza baliokidea izan dadin administrazio publikoan eta bere zerbitzuetan, gaztelaniaren pareko tratua izan dezan. Euskara normalizatzeko tresnak ezgaitu egiten dituen oldarraldi juridikoa dago.
 592. Aitortu beharra dago sindikalismoak ere parte hartu duen presio sozialari esker aurreakuntza handiak egin direla euskal preso batzuek jasaten zuten tratu laido garri, inhumano eta legez kanpokoaren aurka. Nolanahi ere, oraindik ere preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideak urratu egiten dira. Aldarrikapen- eta borroka-espazio kolektibo horietan, garrantzitsua da ESK-k parte hartzea, ohiko legedia aplikatu dadila eta giza eskubideak errespetatu daitezela exijitzeko.
 593. Mugimendu sozialekin aliantzak sortzen jarraitu behar dugu. ESK-k sortuta dauden sareetan parte hartu behar du, eta mugimendu sozialek sustatutako borroketan parte hartu beharra dauka. Gure lekua korporazioen zigorgabetasunaren aurka pertsona migratuak erregularizatzeko alde, harrera- eta errolda-politiken alde eta etxebizitzarako eskubidearen alde lan egiten dutenen alboan dago. Gerrak suntsitutako herriekiko elkartasun-ekitaldietan parte hartu behar dugu, arma-ekoizpenaren kontrakoetan, behartutako lekualdaketen kausak eta haren ondorioak salatu behar ditugu, beti mugimendu feminista, antikolonial eta antirrazistarekin aliantzan, emakumeek hemen eta han jasaten dituzten indarkeriak salatzen baitituzte. Eredu kapitalistatik kanpo bizitza-eredu komunitarioak erakitzeke hausnartzen ari den eta esperientzia praktikoa egiten ari den jendearekin batera egon behar dugu, hau da, kapitala metatzeko, lan-ustiapenaren, merkatuaren menderakuntza erabatekoaren eta jabetza pribatuaren aurka.
 594. Sindikatu bat garenez, ESK-k aldarrikapen hori lantokietan eta gure sindikatuko antolakuntza-egitura guztietan txertatzen saiatzeko erronka daukagu. Engaiamenduak sindikala eta soziala behar du. Berreraikitzeke eta proposatzeko garaia da, erronka handietakoa,

paradigma aldaketakoa eta bizitzarako ekonomia jasagarrietarantz aurrera egitekoa.



V. KAPITULUA

ALDAKETA-ESTRATEGIA.

EREDU SOZIAL BERRI BAT

- 595.** Ponentzia honetan guztian garatu dugunez, GNDak oinarritzko premisatzat du matrize sozioekonomikoa energia berriztagarrietarantz, digitalizaziorantz eta ongizate soziale-rantz bideratzea, alor publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzak lehentasunez garatuz.
- 596.** Haren helburua da isurketa kutsatzaileak premiaz murriztea, oro har sistemaren akats multiorganikoa eta muga biofisikoak gainditzetik eratorritako arriskua onartzen duen diagnosiaren barruan. Dena den, klimaren arloko helmugak ez gainditzeko borroka erronka nagusi, eztabaidaekin eta konparaezin bihurtzen da, eta haren mendean daude gainerako ardatz eta aldagaiak. Ildo horretan, hain da handia premia, ezen energia berriztagarrien aldeko jarduna (dagokien enpresa multinazionaleri lotuta ere bai) eraldaketa sakonagoen gaineratik baitago askoz, hotsandikotzat eta antropologikoki kaltegarritzat jotzen baitira horiek, epe laburrean behintzat.
- 597.** Hortaz, ez dira askorik zalantzan jartzen kapitalismoaren nortasun-zeinuak. Auzitan jartzen direnean, gainera, etorkizuneko zerumuga zehaztu gabe batean kokatzen da.
- 598.** Lehentasunezko jarduketa-eskalak estatukoa eta tokikoa dira (bereziki lehena, horixe baita GNDeko edozein estrategiaren oinarritzko dinamizazio-esparrua), eta hein batean ez zaie erreparatzen azken aldiko garapen-eredu globalizatu eta kontzentratuaren eraginei.
- 599.** Subjektuei dagokienez, GNDak zeregin berezia esleitzen die instituzio publikoei (nolabaitko plangintza-, zuzendaritza-, arauketa-, sustapen eta inbertsio-maila), eta era positiboan balioesten da beste eragile sozial eta pribatu batzuen partaidetza ere.
- 600.** Azkenik, GNDak argudiatzen du askotariko tresnak egokiak daudela (autokontsumoa, tokiko energia-komunitatea eta abar), baina megaproiektuak estrategikotzat jotzen ditu, ezarritako helburu klimatikoetarantz aurrera egiteko tresna gako gisa. Dinamika horren emaitza da enpresa transnazionalak direla onuradun nagusiak energia fosila berriztagarriarekin ordeztzeko tresna hoberena bermatzean.
- 601.** Ponentzia honetan egiaztatu dugunez, garbi dago ESK eredu horren antipodetan dagoela; hona arte jasotakoak sindikatu dinamiko bat erakusten digu, inguratzen gaituzten errealtate sozialei lotua, eta lantokian jende prekarizatuena defendatzeko erreferente bihurtzen duen zuzeneko ekintza duena.
- 602.** Sindikatu feminista, antikapitalista, antirrazista, antikolonial eta ekosozialista da, bizitzaren zentraltasuna defendatzen duena kapitala sustatzen duen estrategia harrapari eta heriotza-eragilearen aurrean.
- 603.** Gure bizi-proiektuak aurrera egite dezan, ESK-k ezinbesteko erreminta estrategikoak

behar ditu bizitzak bizitzea merezi duen gizarte justua lortzeko.

604. VI. Biltzarreko gure ponentzia hau garatzeko, honako jarduketa-ildo hauek azpimarra ditzakegu:

605. 5.1 BIZITZA ERDIGUNEAN

- 606.** - Zaintzen sistema publiko eta unibertsala defendatzea. Privatizazioak bukaraztea eta horiek lehengoraztea..
- 607.** - Plantilla publiko zein pribatuen lan-baldintzak hobetzeko borroka; pribatuen baldintzak publikoen baldintzekin parekatzea.
- 608.** - Egoitza-zentro publiko zein pribatuetako plantillak handitzea.
- 609.** - Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua indartzea, eta bertakoen lan baldintzak hobetzea (lan-osasuna, soldata, lan-denborak eta abar).
- 610.** - Etxeko Langileen Sistema Berezia amaiaraztea, eta horiek Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzea. Barneko langileen lana desagerraraztea. Lan Ikuskaritza indartzea, eta etxebizitzara sartzen uztea, lantokia delako. Lan-osasuna defendatzea, eta administrazioen utzikeria salatzea. Horretarako, ESKren lana sustatu behar dugu langile horien artean, eta sekzio sindikalak sor ditzatela erraztu.

611. 5.2 ENPLEGUA ETA ABERASTASUNA BANATZEA

- 612.** - Erosahalmena galdu gabe lan-denbora murriztearen alde egitea. Ezinbestekoa da negoziazio kolektiboari premisa horrekin heltzea, hobeto bizitzeko gutxiago lan egiteko beharra defendatuta.
- 613.** - Gizarte-zerbitzuak defendatzea: Lehen ere esan dugunez, zerbitzu publikoak mekanismorik onena dira aberastasuna banatzeko ; horretarako, ESKren sekzio sindikalek hainbat eremutan defendatuko dute plantillak benetan handitzea, baita zerbitzu horiek hobeto finantzatzea, privatizazioak deuseztatzea eta eremu publikora itzultzea ere.
- 614.** - Harekin batera errenta banatzeko eredian erabateko aldaketa dakarren zerga-sistema bat defendatzea, ponentzia hobetan azaldutako irizpideei jarraituz.

615. 5.3 POBREZIAREN ETA BAZTERKERIA SOZIALAREN AURKA BORROKATZEA

- 616.** -Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta defendatzea, eta “Orain! Baldintzarik gabeko Oinarrizko Errenta baten alde” kolektiboarekiko elkarlana jarraitzea.

617. - Argilan-ESKrekiko elkarlana indartzea.
618. - Era aktiboan elkarlanean aritzea Hego Euskal Herrian egiten diren zerga-eragozpeneko kanpainenetan. Gerrak amaitzea behartutako migrazioa amaitzea da, eta emakumeek jasaten duten esplotazioa amaitzea da emakumeek jasaten duten hon-damendia eta muturreko indarkeria amaitzea.

619. **5.4 AZPIKONTRATAZIOAREN ETA PREKARIZAZIOAREN AURKA BORROKATZEA**

620. - Enpresa matrizeetako ESKren sekzio sindikalek koordinatuta egingo dute lan sekzio sindikalekin (halakorik badago); langileek eskubide eta arazo berberak dituzte, haien soldata edonork ordaintzen duela ere: soldata-berdintasunaren eta plantillen lan-baldintzen defentsa. Enpresa-batzordeen arteko lankidetzaz sustatzea.
621. - Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeak bateratzeagatik borrokatzea, eta, bestela 171/2004 Errege Dekretuan, urtarrilaren 30ekoan, Laneko Arriskuak Prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 23 artikulua garatzen duenean, jasotakoa defendatzea, enpresa-jarduerak koordinatzeari buruzkoa.
622. - Administrazio publikoen pribatizatutako zerbitzuak lehengoratzeko planak eskatzea, ponentzia honetan jasotako moduan lanpostuak mantentzea defendatuta.
623. - Enplegu publikoa lortzeko nazionalitatearen betekizuna ken dadila eskatzea. Eskakizun hori XXI. mendean mantentzeak agerian uzten du gure agintarien xenofobia, eta ehunka migratu prekarizaziora kondenatzen ditu.

624. **5.5 DESAZKUNDEA ETA ONDO BIZITZEA**

625. - Gure ospitale publikoetan, eskolako eta enpresako jantokietan eta abarretan sukaldeak kudeaketa ezartzea, elikadura-subiranotasuneko eta 0 kilometroko menuekin.
626. - Energia-autokontsumoko komunitateak ezartzeko eta finantzatzeko udal-planak.
627. - Hurbileko produktuak saltzeko tokiko merkatuak ezartzea eta finantzatzea.
628. - Hirigintza-plan ekojasangarriak, hirigintza-politika egiaz aldatzea dakartenak, eta berdeguneak, garraio publikoa eta mugikortasun jasangarria handitzea sustatuko dutenak.

ANTOLAMENDU PROPOSAMENA



VI. KAPITULUA

ANTOLAMENDU

PROPOSAMENA

629. 6.1 SARRERA

630. Orain dela bost urteko Biltzar Nagusian hausnarketa sakona egin genuen ESKk etorkizuneari izango dituen erronkei aurre egiteko behar duen antolamendu ereduari buruz; parte hartze prozesu luze baten ondoren, beste antolamendu eredu bat onetsi zen, eta aldaketa handiak ekarri zituen, IV. Biltzarrean jaso ziren denak.
631. V. Biltzar Nagusian erabaki batzuk hartzea onetsi genuen, antolakuntzari dagokionez, sindikatuaren aldaketa sozial ugari izan duten eraginari erantzuteko eta ESK eraikitzen jarraitzeko; betiere, partaideak protagonistatzat hartuta, eta erakunde ez-burokratiko eta ahalik eta parte-hartzaileena izateko borondate argiz.
632. Eztabaida kolektibo zabalaren ondotik, ondorioztatu genuen sindikatuaren egitura ez zela egokia. Izan ere, oso politizatuta egon arren, egitura horren oinarrian pertsona gutxi batzuen konpromisoa zegoen, eta lantegietan zeukaten konpromisoari sindikatuaren buru izatearen ardura gehitu behar zitzaion. Eta lan karga handiegia zen, noski, parte hartze eredu hori ez da bateragarria pertsona militanteen kontziliazio beharrekina.
633. Gainera, egiturak ahuldu ziren garaian maila guztietan egin zuen gora akonpainamendu sindikalaren beharrak eta, hala, sindikatuaren berritzen joan da, nola pertsonen dagokionez, hala sindikatu atalei dagokionez ere.
634. Ikusten genuen 2019an indarrean zeuden egiturak ez zirela erakargarriak kide berriak erakartzeko, sindikatuaren aktiboki parte hartzeak zenbait betebeharrak baitzeuzkan, eta parte hartu nahi zuten pertsonen ezin zuten edo ez zuten nahi beraien gain hartu.
635. Gure xedea zen erakundearen pisua pertsona gehiagoren artean banatzeko moduan antolatzea, eta jendeak eman ahal eta eman nahi duen horretara egokitutako parte hartzeko espazio eroso eta erakargarriak izatea.
636. Antolamendu aldaketaren bidean aurrera egiten lagun zezakeen gakoetako bat aurreikuspenak doitzea zela adierazi genuen, baita asmo handiegiko erronkak edo lan astunegiak jarritz gero, estresa eta frustrazioa sor zitezkeela ere.
637. Gaur gure sindikatu ereduari eutsi nahi diogu, ez garelako besteak bezalakoak, oinarriak ditugulako motore. ESK ekintza da, sindikatuarena eta jendartearena. Guk ez ditugu ideiak laborategi batean sortu eta sindikatuaren goitik behera hedatzen. Kontrara, jendartearen eta sindikatuaren praktikak ditugu oinarri: gure militanteen bizitzak eta sail sindikalen jarduna. Hori guztia herrialdeko batzordeetan islatzen da, eta hori da sindikatuaren benetako motorra.

- 638.** Militanteen eta sail sindikalen autonomia giltza da parte hartzen dugun gatazketan eta proiektuetan gure ahotsak indarra izan dezan. Ez gara alderdi taktiketan erortzen, eta ez dugu protagonismoa helburu kolektiboak lortzearen gainetik jartzen. Euskal Herriko langile klasearentzako tresna bat gara, eta zintzotasuna, parte hartzea eta asanblada eredu dira gure baloreak, baita jarrera borrokalaria eta konprometitua ere.
- 639.** ESK bere jendearena da, eta jendartean eragiteaz eta praktika sindikalez gain, sindikatua behetik gora elikatzen duten ideia eta eztabaida ugari ere sustatzen ditu. Gure erakundea horrela eraikitzen jarraitzea dugu xede, eta burokratizazioari eta bertikalkeriari uko egitea. Pertsonak gara, eta beti izan behar dugu gogoan elkar zaintzea eta errespetatzea ezin direla zalantzan jarri.
- 640.** Antolamendu proposamen berri honek gaitasun autokritikoz hasitako bidean jarraitzea du helburu. Izan ere, egin nahi den aldaketaren oinarriak arriskuan jarri gabe, urte hauetan kudeatu behar izan ditugun egoerak zuzentzen lagunduko diguten hobekuntzak egin dira. Antolagune figura finkatuko da, hainbat egituren arteko koordinazioa indartzeko espazioa. Ziurrenik, sindikatuaren kudeaketa nazionala erraztuko du, eta ez dio kenduko jatorrizko izaera; hots, lanerako espazioa eta koordinakundearen, herrialdeetako batzordeen eta lantaldeen elkargune izatea.
- 641.** Organoen balantzeak garrantzitsuak dira arazoak hautemateko eta konponbideak ahalik eta azkarren martxan jartzeko; beraz, beste hobekuntza bat balantze horien beharra serioago hartzera bideratuko da.
- 642.** **6.2 ZEINTZUK DIRA V. BILTZAR NAGUSIAN ONETSI ZIREN ESKREN ZUZENDARITZA ORGANOAK?**
- 643.** 2019ko ekainaren 7ko V. Biltzar Nagusia argi definitu ziren ESKren zuzendaritza organoak: Biltzar Nagusia, Batzorde Nazionala, Koordinakunde Nazionala, Herrialde Batzordeak eta Atal Sindikalak.
- 644.** **6.3 NORK HARTZEN DU PARTE ZUZENDARITZA ORGANO HORIETAN?**
- 645.** Helburua da afiliatuen % 4k parte hartzea biltzar nagusietan. ESKren adierazpen eta erabaki marko burujabea da. Izena emanda duten pertsona guztiek dute boto eskubidea, herrialdeetako batzordeen ardura da gizon eta emakumeen arteko proportzionaltasuna zaintzea.
- 646.** Batzorde Nazionalean Koordinakunde Nazionaleko kideek eta beste 60 pertsonak daukate boto eskubidea. Biltzar nagusien artean erabaki organo nagusia da. Boto eskubidedunen % 33, gutxienez, emakumeak izan behar dira, eta horretarako ezarritako prozesuei jarraikiz, parte hartzaile kopuruaren arabera handitu daiteke proportzio hori.
- 647.** Koordinakunde Nazionala bost pertsona afiliatuk osatzen dute, gutxienez. Eta bost horie-

tatik bi, behintzat, emakumeak izan behar dira, Biltzar Nagusiak aukeratuak. Sindikatuaren ordezkariak da eta Biltzar Nagusian eta Batzorde Nazionalan hartutako erabakiak jartzen ditu praktikan.

- 648. Herrialdeetako Batzordeak sindikatuaren zuzendaritza funtzioa hartzen dute, herrialdeari soilik eragiten dioten aferetan. Batzorde Nazionalaren menpe dago, biltzar nagusien artean. Gutxienez, boto eskubidea duten pertsonen % 33 emakumeak izango dira.
- 649. Atal Sindikalak Herrialdeetako Batzordeen menpe daude, eta lantoki bateko pertsona afiliatu guztien bilgune dira.
- 650. Hala nahi duen pertsona afiliatu guztiek har dezakete parte eta ahotsa izango dute zuzendaritza egitura guztietan, boto eskubiderik ez izan arren.

651. 6.4 ESKREN V. BILTZAR NAGUSIAN ONARTUTAKO ANTOLAMENDU PROPOSAMENAREN OINARRIAK

- 652. V. Biltzarrerako antolamendu proposamena egiteko prozesuan erabaki zen egunerokotasuneko betebeharrak sindikatu osora hedatzea. Koordinakunde Nazionalak izango zuen betebeharrak horiek betetzen zirela ziurtatzeko ardura; ez berak betez derrigorrean, baizik eta banatuz eta gauzatzen zirela baieztatuz.
- 653. Begien bistakoa da kudeaketa lanek erabakiak hartzea dakartela. Lehen proposamenari eginiko zuzenketetan, Batzorde Nazionalari edo Biltzar Nagusiarik legozkiokeen betebeharrak funtzioak ere sartu ziren. Hots, Batzorde Nazionala eskuordetzea haren bileren arteko epean. Presaz hartu behar direnean, erabakiak hartu ahal izateko aukera ere gehitu zitzaion.
- 654. Gainera, Koordinakunde Nazionala sindikatuaren ordezkari da, eta beste erakunde batzuekiko harremana bere esku dago. Harreman horiei buruzko informazioa berak ematen dio Batzorde Nazionalari.
- 655. Koordinakunde Nazionala eratzeko ideia aurreko batzorde nazionalako pertsona gehien eskutik heldu zen. Nekatuta zeudela, erreleborik ikusten ez zutela eta betebeharrak gauzatzeko orduan eraginkortasuna falta zela adierazi zuten, eta horregatik eman zuten pausoa.
- 656. Egitura arinagoak eta ardura zehatzagoak zituzten helburu eta, horregatik, hainbat egituraren artean bete beharreko betebeharrak zehatzen zerrenda bat egin zen.
- 657. Horrekin batera, erabakiak hartzeko ardura hedatzeko, delegatuen batzarrak eta herrialdeetako batzordeak indartu nahi ziren, ulertzen baitzen horiek zirela sindikatuaren barneko parte hartze espaziorik onenak. Halaber, militanteak urtero elkartzeko topaketak egitearen aldeko apustua egin zen, prestakuntza edukiak izango zituzten, baina giro bareagoa.
- 658. Batzorde Nazionalak hartu beharreko erabaki zehatzak ezarri ziren, eta 65 pertsonak osatuko zuten aurrerantzean.

- 659.** Erabaki zen herrialdeetako batzordeak izango zirela biltzeko erregularotasunik handiena zuten erabaki organoak. V. Biltzarrean eginiko planteamenduaren giltzetako bat izan zen Herrialdeetako Batzordeak indartzea, sindikatuak behar bezala funtziona zezan. Egunerokotasunean, batzorde horiek betetzen dute zuzendaritza funtzioa, eta hori horrela izan dadin, BNren erabakitzeko ahalmena nabarmen murriztu zen. Helburua ez zen eta ez da BNa izatea sindikatuaren erabakigune.
- 660.** Zenbait ekarpen une hartan aintzat hartu ez ziren arren, gerora, Antolagune ezarri zenean sartu ziren. Antolagune hileroko koordinazio espazio bat da, zabala; eta bertan parte hartzen dute lau herrialdeetako batzordeek eta lantaldeek. Behar hori hasieran atzeman ez izanak disfuntzio zenbait eta koordinazio eta barne komunikazio lan karga gehiegizkoa eragin zuen Koordinakunde Nazionalaren parte ziren pertsonen gain.
- 661.** Antolagune sortu zenetik hobera egin du komunikazioak: bai herrialdeetako batzordeen artekoak, bai Koordinakunde Nazionalaren eta herrialdeetako batzordeen artekoak. Aipatu organo horiek dira astero biltzen diren bakarrak (aintzat hartuta Gipuzkoa eta Nafarroa ez direla asterokoak; baina, hala behar denean, ezohiko bilerak egiten dituztela).
- 662.** Barne antolamenduari dagokionez, betebeharrak zehatzak zeuzkaten zenbait lantalde osatu ziren (administrazioa eta finantzak, komunikazioa). Haien jarduna egokia izan da, eta arduradunek inplikazio handia izan dute. Gatazkak/Sexu Jazarpena Konpontzeko Batzordea osatu zen, eta V. Biltzarrean planteatutako prestakuntza egin zen. Oraindik ez du inork aktibatu protokolo hori. Antolagunek lantalde bat eratu zuen, gaian esperientzia zuten lau emakumez osatua. Lantalde horrek indarkeria matxistaren aurrean jarduteko protokolo proposamen bat egin zuen, oraindik ez da onartu.
- 663.** Beste talde giltzarri batek ez du lortu hura abian jartzeko pertsona arduraduna izendatzea. Izan ere, 5 urte hauetan aholkularitzetan (aholkularien koordinazioa) langile asko txandakatu dira, eta azken urtean pertsona batzuk bertan lan egiteko prest egon arren, inor ez da agertu prestakuntzako arduradun lanetan aritzeko prest.
- 664.** Parte hartze eredu lantze kolektiboko taldeetan oinarritu nahi zen, baina kasu gutxi batzuetan baino ez dira martxan jarri (laneko osasuna, Antolagunerekin batera); beste batzuk uneren batean egon dira martxan (ekintza sindikala, pandemia garaian); beste batzuk beraien presentzia eta sindikatuaren nazio mailako ordezkagarritasuna murriztu dituzte, eta gutxiago izatera pasa dira (Lantalde Feminista; zeina, gaur egun, emakume bizkaitarrez baino ez baitago osatua, nahiz eta beste herrialdeetako emakume batzuk militante aktiboak eta Mugimendu Feministaren barruan erreferentzialak izan); eta beste batzuk ez dira martxan jarri, nahiz eta bazegoen jendea lantaldeak dinamizatzeko prest (Hezkuntza); lantaldea dinamizatzeko pertsona bat izendatu bai, baina haria hortxe eten delako (Hausnarketa Estrategikoa); edo ez delako benetako borondaterik egon lantaldea sortzeko, zoritxarrez ESKko militantziaren jarduna frenetikoa baita jendarteko mugimenduetan (ESKko Pentsiodunak, Jendarte Ekintza).
- 665.** **6.5 ZER ALDATU DA, ANTOLAMENDUARI DAGOKIONEZ, V. BILTZAR NAGUSITIK?**

- 666.** 2022ko matxoaren 17 Batzorde Nazionalaren bileran onartu zen Aldi Baterako Batzorde Nazionala desegitea eta egitura egonkor bat eratzea. Egitura horrek Koordinakunde Nazionalaren eta Batzorde Nazionalaren arteko espazio zabala hartuko luke eta bermatuko luke erakundeak behar bezala funtzionatzea.
- 667.** Xedea zen lantalde bat sortzea sindikatuaren eta herrialdeetako batzordeen hainbat areen arteko koordinazioa eta lankidetzaz ahalbidetu eta arintzea.
- 668.** Uste zen Koordinakunde Nazionalari bere lanetan laguntzeko talde bat behar zela, herrialdeetako batzordeekin koordinatzeko gai izateaz gain, honako hauek dinamizatuko zituenak: lantaldeak, V. Biltzarrean proposatutako lantze kolektiboko taldeak eta, jardun sindikala hobetzeko, sindikatuak beharrezkotzat jotzen dituenak.
- 669.** Onetsi zen egitura hori martxan dauden lantaldeetako eta lantze kolektiboko taldeetako pertsona erreferentziales osatuko zutela. Orobat, herrialdeetako batzordeekiko koordinazioa bermatzeko, batzorde bakoitzean pertsona erreferentzial bat izendatuko zela erabaki zen. Horrez gain, talde horretara batuko ziren pixkanaka sortzen joango diren areetako pertsona arduradunak.
- 670.** Laguntza talde horrek Aldi Baterako Batzorde Nazionalaren funtzioak ordeztu ditu, eta bere xedea da ESKk hartutako eredu sindikala ezartzea, zeina V. Biltzar Nagusian onartu baitzen, 2022ko uztailaren 21eko Batzorde Nazionalean, eta martxan jarri baitzen 2022ko irailaren 21ean. Antolagune izena hartu zuen, eta 2023ko urtarrilaren 26ko Batzorde Nazionalean aurkeztu zen.

671. 6.6 NOLA JARRAITU NAHI DUGU ESK ERAIKITZEN?

- 672.** ESKk VI. Biltzar Nagusian izango dituen antolamendu egiturek honako ideia hauei erantzun behar diete:
- 673.** 1) Organo bakoitza osatzen duten pertsonen konfiantza izan behar da organo horrek egin beharreko lanaren balio zentrala, baita ESKren egiturako gainerako organoekin izan behar duen harremana ere.
- 674.** 2) Harremanak pertsonalak izateak garrantzia du, harremanen ildo nagusia izan dadila elkar zaintzearen printzipioa.
- 675.** 3) Organoak izan daitezela gardenak, nola barnetik, hala bata bestearekiko. Horri dagokionez, komunikazio eraginkorrak izan behar du gardentasunaren oinarri: aktak ondo eta epe motzera egitea; jaso behar duten pertsona guztiak jasotzea eta behar diren eranskin guztiak eranstea.
- 676.** 4) Funtzionamendua demokratikoa izan dadila organoetan erabakiak hartzeko orduan, baita organoen artean ezartzen den hierarkian ere.
- 677.** 5) Organo bakoitzak egin beharreko lanak eraginkortasunez argitara daitezela. Efi-kazia hori ahalik eta zorrotzen neurtu behar da. Horretarako, egoerak eskatzen duen adinako gardentasunez jardun behar da, eta honako hauek jaso behar dira ak-

tetan: egin beharreko lanak, lan horiek egiteko epemugak, lan horien emaitzak nola zabalduko diren, etab.

- 678.** 6) Organo bakoitzak ohitura hartu behar du bere ardurak nola betetzen ari denaren balantzeak aldian-aldian egiteko, eta adostu denaren arabera, egiturako gainerrako organoei helarazi behar dizkie.
- 679.** 7) ESKren organo guztiak dira irekiak bere afiliatuen parte hartzeari dagokionez. Afiliatuek parte hartzeko eska dezakete, eta hitza erabiltzeko eskubidea izango dute.
- 680.** 8) Euskalduntzea, ezin dugu lurraldearen errealitate soziolinguistikoari ezikusiarrena egin, eta horrekiko koherentziaz, exijitu behar da sindikatuaren ordezkari organoetako kide diren pertsonak bilerak euskaraz jarraitzeko gai izatea. Erakundeak pertsonak beraien ezagutzak hobeto dituzaten baliabideak jarriko ditu, aurreko paragrafoan aipaturikoa bete dadin.
- 681.** 9) Emakumeen* parte hartzea erabakiguneetan: III. Biltzarretik (2009) aurrera ESKk “emakume eta gizonen arteko oreka zaintzeko” konpromisoa hartu zuen. Gauzak horrela, VI. Biltzarrean (2014) konpromiso hori ehunekoetara ekarri zen, eta ezarri zen erabakiguneen % 33, gutxienez, emakumeek* hartuko zutelako, sindikatuaren maila guztietan.
- 682.** Bada garaia 2014an ezarritako minimo hori gaitzetzeko; horregatik, erabakiguneetan emakume* gehiagok parte har dezaten hartu diren neurriak berrikusteko ahalegina egin behar dugu, eta neurriak hartu behar ditugu ezarritakoa bete dadin.
- 683.** Horrez gain, indarrez aurrera egin beharra dago, jendartearen pauso garrantzitsuak ari baita ematen. Ulertzen dugu % 33 horrek nahi dugun jendartearen erakusle izan beharko lukeela; hots, datozen bost urteotan, 2030erako, emakumeen* ordezkari % 50era iristea nahiko genuke, sindikatuaren erabaki organo guztietan..

684. 6.7 ZER EGITURA BEHAR DITUGU AURRERA JARRAITZEKO?

685. Hauxe da proposamena:

686. Erabakigune burujabeak

- 687.** - Biltzar Nagusia
- 688.** - Batzorde Nazionala
- 689.** - Herrialdeetako Batzordeak

690. Koordinazio eta kudeaketa espazioak

- 691.** - Koordinakunde Nazionala

692. - Antolagune

693. Parte hartze espazio zabalak

694. - ESKren militanteak urteroko topaketak

695. - Delegatuen herrialdeetako batzarrak

696. - Sail Sindikalak

697. Barne Lantaldeak

698. - Administrazioa eta finantzak

699. - Komunikazioa

700. - Lantalde Feminista

701. - Lan osasunak

702. - Ekintza Sindikala eta Negoziazio Kolektiboa

703. - Prestakuntza

704. - Aholkularitzen Koordinazioa

705. Hausnarketa Estrategikorako Taldea

706. - Feminismoa

707. - Deshazkundera eta Trantsizio Ekosozialista

708. - Zerbitzu Publikoak (Hezkuntza, Osasungintza, Gizarte Zerbitzuak, etab.)

709. - Aberastasunaren Banaketa eta Gizarte Eskubideak (RBI, Pentsioak, Fiskalitatea, Gizarte Bazterkeria, etab.)

710. - Sexu-Genero Aniztasuna.

711. - Antiarrazakeria, Internazionalismoa eta Antimilitarismoa

712. - Euskara eta Hizkuntza normalizazioa.

713. Sexu Jazarpenagatiko/Sexu Arrazoigatiko Gatazkak Konpontzeko Batzordea.

714. Argilan-ESK

715. 6.8 ZEINTZUK IZANGO DIRA HORIEN LANAK ETA FUNTZIONAMENDUA?

716. Erabakigune burujabeak

717. - Biltzar Nagusia:

718. Biltzar Nagusiak sindikatuari lotutako guztiari buruz jakingo du, baita sindikatuak gizartean duen eragiteko moduz eta etorkizunean egin beharreko politika sindikalez ere. Bere erabakiek sindikatu osoari eragingo diote. Bozketa bidez hartuko dira, gehiengo sinplea nahikoa izango da erabakitzeke.

719. Gutxienez, bost urtean behin deituko da.

720. - Batzorde Nazionala:

721. Biltzar Nagusien arteko epean Batzorde Nazionala da zuzendaritza ondorio guttiarako, eta bere erabakiek sindikatu osoari eragiten diote. Haren erabakiak inoiz ezin dira Biltzar Nagusian hartutako kontrakoak izan, azken horren mendeko da.

722. Antolagunek deituko du, hiru hilabetean behin. Ezohiko bilerak egiteko, gutxienez, Batzorde Nazionalaren herenak eskatu behar du, edo bestela, bi Herrialdeetako Batzordek edo pertsona afiliatuen % 1ek. Halakoetan, Batzorde Nazionalak eskaeran planteatzen diren gaiak soilik erantzungo die.

723. Organo horrek baino ezingo du erabaki:

724. - Greba Orokorra deitzea.

725. - Ekonomia gaiak, baldin eta ekitaldi bat baino gehiagotarako konpromisoak badakartzate.

726. - Beste erakunde batzuen kanpaina proposamenak onartzea, baldin eta ekitaldi baterako edo gehiagorako konpromisoak badakartzate. Era berean, beste erakunde batzuek proposatutako kanpainak babestea, baldin eta ekitaldi baterako edo gehiagorako konpromisoak badakartzate.

727. - Partekatutako guneetan parte hartzeko jarrerak aldatzea edo ez.

728. - Plan estrategikoak onartzea eta ebaluatzea.

729. - Behar iraunkorretarako langileak kontratatzea.

730. - Herrialdeetako Batzordeak:

731. - Funtsezkoa da batzorde horien garrantzia azpimarratzea, erregulartasun handienaz elkartzen diren erabaki organoak baitira. Astean behin edo ha-

mabostean behin bilduko dira.

- 732.** Zehaztu beharra dago ohiko gai zerrendan lekua egin behar zaiela hausnarketarako eta eztabaidarako espazioei, sindikatu osoari eragingo dioten lan planak sortzea eta zabaltzea helburu.
- 733.** Herrialdeetako Batzordeek sindikatuaren zuzendaritza funtzioa hartzen dute, herrialdeari soilik eragiten dioten aferetan. Batzorde Nazionalaren menpe daude, biltzar nagusien artean. Haren erabakiak inoiz ezin dira Batzorde Nazionala hartutakoen kontrakoak izan, azken horren mendeko da.
- 734.** Herrialdeko Batzordeen indartzea ezinbestekoa da, esparru proposatzaileragoa eta antolaketa gutxiago landuko duena izatea da ideia. Funtzioak ere zehatzagoak izango dira
- 735.** eta bilerak asterokoak, emakumeen parte hartzea erraztuko duten neurriak jarrita (ordutegiak, baita goiz eta arratsalde artean txandakatu ahal izatea, iraupena, formatua).
- 736.** Datozen urteetarako helburu nagusia da zaintzetan sakontzea, bizitzarekin bateragarriak diren militantziak eratzea. Horretarako, ezinbestekoa ardurak beste gizarte erakunde batzuekin partekatzen ditugun espazioetan banatzea. Erakunde horiek lehentasunezkoak dira ESKren jardun soziopolitikoarentzat. Pertsona liberatuek egiten duten lana baino harago doa gure garrantzia; hala, sindikatuan aktiboki parte hartzen duten pertsonak ahaldundu eta parte hartzera bultzatu behar ditugu, sindikatuaren jarduna bermatzeko eta sindikatuak gizarte mugimenduetan eragin dezan sustatzeko.
- 737.** Herrialdeko batzordearen helburua da gizarte mugimenduetan diharduten gure afiliatuen errealitatea sindikatuari helaraztea. Praktika ona litzateke “errola” pasa eta komunikazio bideak sortzea.
- 738.** Lanak, ahal den neurrian, bikoteka egingo dira. Honako hauek izango dira funtzioak:
- 739.** - Delegatuen Batzarrak planifikatzea.
- 740.** - Tokian tokiko beste erakunde batzuekiko harremanak, herrialde mailan kanpainak proposatzea, tokian tokiko komunikabideekiko harremanak, etab.
- 741.** - Sektorekako antolaketa, jardun sindikalaren eta bizirik dauden gatazken jarraipena, delegatu eta militante berrien harrera, etab.
- 742.** - Mobilizazioak egiteko, materiala sortzeko, eztabaida eta hedapen jarduerak egiteko proposamenak egitea, etab. Eta hori guztia Koordinakunde Nazionalari helaraztea.
- 743.** - Aholkularitza sindikal eta juridikoarekin koordinazioa tokian toki. Koordinazio horren barruan, egiteko nagusienetako bat izango da Sail Sindikal berrien, delegatu berrien eta abarren “tutoretza” egitea.

- 744. - Aholkularitza sindikal eta juridikoaren esku jarri sindikatuaren eztabaida guneeetan parte hartzea errazteko dauden tresna guztiak.
- 745. - Herrialdean lan sektorialerako espazioak sortzea eta koordinatzea (garbiketa, sektore publikoa, industria, esku hartze soziala, etab.).
- 746. - Lantaldeetan eta lantze kolektiboko taldeetan parte hartzea bultzatzea.
- 747. - Topagune kolektiboak sortzea, esate baterako, gaikako lantalde zehatzak sor daitezzen errazten (hizkuntza normalizazioa, LGTBIQ+, maskulinitate berriak, etab...).

748. Koordinazio eta kudeaketa espazioak

- 749. - **Koordinakunde Nazionala:** sindikatua ordezkatzea; nazio mailako beste erakunde batzuekiko harremana; sindikatuaren kudeaketa lanak egiten direla bermatu; bestelako egiturekiko barne komunikazioa egokia dela bermatu; gai ordenak egin eta koordinatu eta eztabaidarako materiala Batzorde Nazionalari eta Antolaguneri helarazi.
- 750. Koordinakunde Nazionalaren beste egiteko bat da kanpaina propioak eta beste erakunde batzuekin partekatutako proposatzea, baita nazio mailako beste kanpaina eta mobilizazio zehatzei atxikimena ematea ere, Biltzar Nagusian edo Batzorde Nazionalan onartutakoarekin bat datozen xedeak badituzte. Orobat, ekimen propioak edo maila nazionalan ESKk parte hartzen duen ekimenak zabaltzen eta sozializatzen direla ziurtatuko du.
- 751. Herrialdeetako batzordeei helaraziko zaie talde horren barruan egitekoak nola banatu diren.
- 752. Koordinakunde Nazionalak bere izaeratik beste erabaki-organo batzuetara eraman behar ez diren erabaki guztiak hartzeko ahalmena izango du. Horrez gain, salbuespen gisa, Antolagunerekin lankidetzan erabakiak hartzeko eskumena izango du Batzorde Nazionala eta herrialdeetako batzordeak garaiz edo behar bezala artikulatu ezin direnean. Halakoetan, hartutako erabakiak dagokien erabakiguneetan berretsi beharko dira.
- 753. Asteroko bilerak.
- 754. - **Antolagune:** **Herrialdeetako batzordeen koordinazioa, beraien artekoa eta Koordinakunde Nazionalarekikoa; barne lantalde bakoitzaren eta hausnarketa estrategikorako taldeen lan planak egiaztatzeko eta koordinatzeko zein horien jarraipena egiteko espazioa da.**
- 755. **Bere ardura izango da urtean behin, gutxienez, birgogora dadila sexu jazarpenari buruzko barne protokoloa.**
- 756. **Batzorde Nazionala deitzea eta bertan hitz egingo diren gaien zerrendaren hurrenkera erabakitzea, eta ESKko militanteen topaguneak anto-**

latzea.

- 757.** Hilabetean behin egingo dira bilerak, eta maiztasun gutxiagoz, baldin eta koordinatu eta antolatu beharreko gaiak hala eskatzen badute.
- 758.** Erabakiak hartzeari dagokionez, bere funtzio nagusia izango da Herrialdeetako Batzordeek eta Batzorde Nazionalak erabakiak ditzaten errazteko koordinazio eta antolaketa lanak egitea.
- 759.** Antolaguneren zeregina izango da, halaber, Koordinatzaile Nazionalarekin lankidetzan aritzea, salbuespenez hartu beharreko erabakiak hartzeko orduan, denbora edo forma arrazoiengatik Herrialdeetako Batzordeek edo Batzorde Nazionalak artikulatu ezin dituztelako. Halakoetan, hartutako erabakiak dagokien erabakiguneetan berretsi beharko dira.
- 760.** Horrez gain, beste hiru funtzio ere baditu espazio honek:
- 761.** - Koordinakunde Nazionalan zein Antolagunen izan daitezkeen epe luzeko absentziak kudeatzea, hala behar bada herrialdeetako batzordeei pertsona zehatzak eskainiz hutsune horiek betetzeko. Herrialdeetako batzordeek ordezkari pertsona hori onartzen badute, aldi baterako izendatuko dute pertsona hori batzordeko kide. Dena den, erabaki hori berretsi egin behar da Batzorde Nazional batean. Era berean, batzorde horretan ordezkari pertsona egiteko beste hautagairen bat aurkeztu ahalko da.
- 762.** - Sindikatuaren organo guztietan emakumeen presentzia adostutakoa dela bermatzea.
- 763.** - Bermatzea herrialdeetako batzordeek sindikatu osoarentzako lan planak proposatzeko funtzioa betetzen dutela.

764. Parte hartze espazio zabalak

- 765.** - **Delegatuen herrialdeetako batzarrak:** ESKrentzat funtsezkoak dira, parte hartzerako eta zuzendaritzarako, eta garrantzitsua da biak ala biak indartzea eta erregularrak izatea. Izan ere, ohikoa den gisan, hilabetean behin deitzen badira eta parte hartzea zabala bada, eztabaidarako espazio egokia da. Horrez gain, baliagarria da baieztatzeko gure jardun sindikalak eragin praktikoa duela esku hartzen dugun lekuetan. Delegatuak ez diren afiliatuen parte hartzea sustatzen saiatuko gara, eta herrialdeetako batzarretarako deia afiliatu guztiei egingo diegu..
- 766.** - **ESKren militanteen urteroko topaketak:** garrantzitsua da elkartu daitezen sustatzea. ESKrentzat ezinbesteko printzipioa da sail sindikalen burujabetza irizpidea.
- 767.** - **Sail Sindikalak:** es importante promover su reunión. El criterio de la autonomía de las secciones sindicales es un principio irrenunciable para ESK.

768. Barne Lantaldeak

- 769.** Martxan dauden guztiek hartuko dute parte Antolagunen. Han, koordinazio lana egingo da, eta egiteko dauzkaten lanak eta proposamenak partekatuko dituzte erakunde osoarekin.
- 770.** Ez lukete zertan bertaratu Antolaguneraren bilera guztietara, baina hori litzateke gomendagarriena; gutxitan gertatu beharko litzateke gairen bat jorratzea sindikatuen area horretako arduraduna bertan izan gabe.
- 771.** - Administrazioa eta finantzak: honako hauek dira bere funtzioak: kontabilitatearen eta finantzen kudeaketa, administrazio zereginen koordinazioa eta Biltzar Nagusian Elkartasun Fondoaren gainean onartzen diren aldatetako martxan jartzea eta horren kudeaketa.
- 772.** - Komunikazioa: komunikazio lantaldea handitzea eta biltzarren arteko epean eginko Komunikazio Planean onartutako funtzioak.
- 773.** - Lantalde Feminista: V. Biltzarretik taldeak izan duen garapena aztertzea eta beste herrialdeetako emakume batzuek ez parte hartzearen arrazoiak aztertzea. Emakumeak biltzeko espazio kolektiboak antola daitezela sustatzea eta erraztea eta kanpainak proposatzea: propioak zein beste erakunde batzuekin lankidetzan.
- 774.** - Lan Osasuna: lan istripuen aurkako lan bateratuari buruzko koordinazioa (istripu hilgarrien protokoloa, etab.), segurtasun eta osasun arloko oinarritzko zalantzak argitzea, lan osasunaren arloko ekintza sindikalen inguruko ekintzak eta ekintza ildoak eztabaidatu eta proposatzea, lan osasunaren arloan sindikatuen kanpainak proposatzea, propioak edo beste erakunde batzuekin elkarlanean.
- 775.** - Ekintza Sindikala eta Negoziazio Kolektiboa: bi mailatan berregituratzea. Ekintza sindikalerako liberazioa daukaten pertsonen koordinazio espazio bat, bertan koordinatu eta laneko esperientziak partekatzeko; eta beste espazio bat eztabaidatzeko, lan ildoak proposatzeko eta proposamenak garatzeko. Bigarren horretan, delegatuen parte hartzea zabal eta aktiboa izango da.
- 776.** - Prestakuntza: V. Biltzar Nagusian taldeek beraien gain hartutako lanak abiaraztea, eta baliabideak kontrataziora bideratzea (eztabaidatu egin behar aldi baterako edo modu iraunkorrean).
- 777.** - Aholkularitzen Koordinazioa: martxan jarri behar da lanaren antolakuntzan zer behar dagoen antzemateko; lan karga ekitatiboki banatzeko; herrialdeen arteko laguntza mekanismoak ezartzeko; prestakuntza edo lan tresna beharrak hautemateko; hobekuntza proposamenak garatzeko; bikoizketak saihesteko edo errealitate sindikal eta juridikoen estrategia eta azterketa bateratuak egiteko.

778. Hausnarketa Estrategikorako Taldeak

- 779.** Talde hauen helburua V. Biltzarrean proposatutakoa baino xumeagoa da: eztabaidarako

espazioak sortzea eta sindikatua eduki ideologikoz eta estrategikoz hornitzeko eduki espezifikoa sortzea. Xedea ez da hilerik elkartzea, ezta gutxiagorik ere. Hausnarketa lana egingo dute urtebetez, sindikatuko eztabaidak eta argitalpenak kalitatezko edukiz betetzeko. Beraien lana Antolagunerekin koordinatuko dute (lan plana eta horren emaitzak).

- 780. - Feminismoa.
- 781. - Deshazkundera eta Trantsizio Ekosozialista.
- 782. - Zerbitzu Publikoak (Hezkuntza, Osasungintza, Gizarte Zerbitzuak, etab.).
- 783. - Aberastasunaren Banaketa eta Gizarte Eskubideak (RBI, Pentsioak, Fiskalitatea, Gizarte Bazterkeria, etab.).
- 784. - Sexu-Genero Aniztasuna.
- 785. - Antiarrazakeria.
- 786. - Internazionalismoa eta Antimilitarismoa.
- 787. - Euskara eta Hizkuntza Normalizazioa.

788. ESKn indarkeria matxistaren aurkako protokoloa

- 789. Sexu Arrazoiagatiko Gatazkak Konpontzeko Batzordearen ernamuina izan zen sexu jazarpenagatiko eta sexu arrazoiagatiko jazarpenaren aurkako protokoloa barne hartzen duen ESKn indarkeria matxistaren aurkako protokoloa: batzordearen barne prestakuntza, ESKn gertatzen diren indarkeriazko egoerei aurre egiteko protokoloa onestea, eta sindikatu osoari hel dakion prestakuntza eta zabalpena antolatzea.
- 790. Kudeaketa txostena egingo dute urtero. Hobetzeko proposamenak Antolagunera eramango dira, eta bertan erabakiko da protokoloa egungo egoeretara edo egoera gertagarrietara moldatzeko beharra dagoen edo ez.

791. Argilan-ESK

- 792. gizarte bazterketaren aurkako borroka eta gizarte prestazioak eta etxebizitza eskuratzeko arazoak dituzten pertsonentzako aholkularitza. Kanpaina propioak edo ESKrekin zein beste gizarteko erakunde batzuekin edo sindikatuarekin partekatutako proposatzea.

793. 6.9 NORK NAHI DUGU EGITURA ETA BETEBEHAR HAUEK BERE GAIN HARTZEA?

- 794. Hala nahi duen pertsona afiliatu orok har dezake parte eta ahotsa izango du zuzendaritza egitura guztietan, boto eskubiderik ez izan arren.

795. Erabakigune burujabeak

- 796.** - **Biltzar Nagusia:** gutxienez, afiliatuen % 4k parte hartzea da helburua.
- 797.** - **Batzorde Nazionala:** 65 pertsona, denera (horien artean sartuko genituzke Batzorde Nazionalakoak, Antolagunekoak eta, ahal den neurrian, Herrialdeetako Batzordeetako pertsona guztiak zein lantaldeetan eta afiliazio zabala duten sail sindikaletan aktibo daudenak). Boto eskubidea duten pertsonen parte hartzea bermatu behar da.
- 798.** Ez da parte hartze organo nagusia (delegatuen batzarrak edo militanteen urteroko topaketak dira) eta mekanismoak ezartzen dira hala nahi duen pertsona afiliatu orok parte hartu ahal izateko.
- 799.** - **Herrialdeetako Batzordeak:** pertsona gutxi batzuk nahikoa izango dira Herrialdeko Batzordeak bete beharreko eginkizun zehatzak gauzatzeko. Jende gehiago bilduz gero, ordea, organo horiek ordezkari gehiago izatea ahalbidetuko luke, eta hala, errazagoa litzateke zuzendari berrien prestakuntza, etab. Garrantzitsua da organo horiek harremana izatea herrialdeetako aholkularitzekin; era berean, giltza da afiliazio zabalena duten sail sindikalek parte hartzea. Funtsezkoa da espazio horretan liderrak daudela bermatzea eta bilerak antolatzeko eta HBei esleitutako zereginak betetzeko denbora daukan jendea egotea; horregatik, garrantzitsua da administrazio, koordinazio eta ekintza sindikaleko figurak indartzea, sindikatuaren zuzendaritzaren ardura HBen gain jarri ahal izateko BNaren bileren artean.

800. Koordinazio eta kudeaketa espazioak

- 801.** - **Koordinakunde Nazionala:** afiliatutako bost pertsonen osatua egongo da, Biltzar Nagusian aukeratuko dira pertsona horiek. Gutxienez, bi emakume egongo dira koordinakundearen. Behin aurreko irizpideak beteta, ahalegina egingo da, gutxienez, herrialde bakoitzeko pertsona bat egon dadin.
- 802.** Bete gabeko postuak edota gerta litezkeen uzteak Batzorde Nazionalak beteko ditu, hutsunea eman eta hurrengo bileran.
- 803.** Koordinakunde Nazionalak Batzorde Nazionalari kideen artean hiru pertsona gehiago hautatzeko proposamena egin ahalko dio, beraren ohiko funtzionamendurako eta sor daitezkeen edo egitea erabaki den lan eta proiektuei arreta eskaintzeko, Koordinakunde Nazionala osatzen duten kide kopurua inoiz ez da 8 pertsona baino gehiagokoa izango. Kooptazioetako bat emakumea izan beharko da, gutxienez, eta kooptazioa 6 edo 8 pertsonakoa balitz, parekidea izan beharko da. Proposamena egiten den lehenengo Batzorde Nazionalaren bileran berretsi beharko da.
- 804.** - **Antolagune:** pertsona guztiak dauzkate koordinazioari dagozkion betebeharrak. Koordinakunde Nazionalako kideek, herrialdeetako batzordeetako pertsona banak eta martxan dauden barne lantaldeetako pertsona banak osatzen dute taldea..

805. Parte hartze espazio zabalak

- 806. - ESKren militanteen urteroko topaketak: militante guztiei irekia, ahalik eta parte hartze zabalena sustatzea du helburu.
- 807. - Delegatuen herrialdeetako batzarrak: militante guztiei irekia, ahalik eta parte hartze zabalena sustatzea du helburu.
- 808. - Sail Sindikalak: enpresa edo lantoki bereko pertsona afiliatuak.

809. Barne Lantaldeak

- 810. - Administrazioa eta finantzak
- 811. - Komunikazioa
- 812. - Lantalde Feminista
- 813. - Lan osasuna
- 814. - Ekintza Sindikala eta Negoziazio Kolektiboa
- 815. - Prestakuntza
- 816. - Aholkularitzen Koordinazioa

817. Hausnarketa Estrategikorako Taldea

- 818. - Feminismoa
- 819. - Deshazkundera eta Trantsizio Ekosozialista
- 820. - Zerbitzu Publikoak (Hezkuntza, Osasungintza, Gizarte Zerbitzuak, etab.)
- 821. - Aberastasunaren Banaketa (RBI, Pentsioak, Fiskalitatea, Gizarte Bazterkeria, etab.)
- 822. - Sexu-Genero Aniztasuna.
- 823. - Antiarrazakeria, Internazionalismoa eta Antimilitarismoa
- 824. - Euskara eta Hizkuntza Normalizazioa

825. Sexu Jazarpenagatiko/Sexu Arrazoigatiko Gatazkak Konpontzeko Batzordea: Biltzar orokorrean bost pertsona izendatu behar dira.

826. Argilan-ESK: militante orori irekitako espazioa, gizarte bazterkeriaren aurka

827. 6.10 BARNE KOORDINAZIOA HOBETZEKO ZENBAIT IDEIA

828. Informazioaren transmisioari dagokionez

829. - Erabiltzen dugun baliabide nagusia aktak dira. Antolagune sortu zenetik, lantalde bakoitzak bere aktak Antolagunerari bidali behar dizkio. Handik Herrialde Bakoitzeko pertsona arduradunek dagozkien batzordeari, aholkularitzari eta BNan boto eskubidea duten pertsonen helarazten diete. Gaia jorratu genuenean, zalantza batzuk sortu ziren: akta guztiak helarazi behar ziren? Nori? Eztabaida honetan erabaki behar da hau.

830. - Nabarmena da koordinazio egituren gainkargak akten bidalketa atzeratzea eragin duela askotan, edo bilera batzuetan aktarik hartu ere ez egitea. Hori, jakina, aldatu egin behar da, eta horretarako konpromisoak hartu, arazoizkoak eta betegarriak. Txostenean jarritako 24 orduak ia inoiz ezin izan dira bete.

831. - Aktetako hizkera: garrantzitsua da akta eredu bat eta horiek egiteko gida bat sortzea (izenak hizkeran bertan, data egiturak, adibidez, euskaraz jartzea; gai zerrendako puntuak garatzea, erabakiak eta erantzukizunen banaketa, etab.).

832. - Egituretako akten artxibo komunitarioa: beharrezkoa da informazio garrantzitsua behar duen pertsona orok eskuratu ahal dezan.

833. - Ezin diegu akten edo mezu elektronikoen bidez erantzun beste egitura batzuetako erabaki edo eztabaidei, argi dago komunikazio arazo handiak sortzen dituela eta konfiantza galtzen dela. Bilera bakoitzaren hasieran tarte bat utziko da aurreko bilerako akta berres- teko eta emendakinak egiteko.

834. - Aholkularitzen arteko koordinazioa ezin da aktak bidaltzea soilik izan, eta horretarako ez daukagu protokolorik, bidaltzea bera ere ez dago protokolo batean jasota.

835. - Erantzukizunei buruzko balorazioak egin beharko dira, eta pertsona eta taldeen ku- deaketaren berri eman urtean behin, erantzukizun horiek hartu diren espazioei:

836. - Koordinakunde Nazionala » Batzorde Nazionala

837. - Antolagune » Batzorde Nazionala

838. - Herrialdeetako Batzordeak » Antolagune

839. - Lantaldeak eta hausnarketa estrategirako taldea » Antolagune

840. - V. Biltzar Nagusia egiteko 2018an egin zen antolamenduaren diagnostikorako prozesuan ere, hainbat ikuspuntutatik, agertu zen gaia da sindikatuaren barnean nola hartzen den bo- terea bidegabeki. Espazio edo egitura formal zein informaletan boterea nola artikulatzen den aztertu eta landu beharreko gaia da.

841. Egituren koordinazioari dagokionez

- 842.** - Komenigarria litzateke Koordinakunde Nazionalaren eta Herrialdeko Batzorde bakoitzaren artean urtean, gutxienez, bilera bat egitea; planifikazioa, une horretan martxan dauden lanak, etab. birpasatzeko.

843. Ohiko zereginen antolamenduari dagokionez

- 844.** - Programatzeak ohiko zereginak betetzen laguntzen digu, eta badaude indartu beharreko praktika on batzuk (egituretako bileren eta delegatuen batzarren egutegia egitea; beste egiturei bilera horietan sortutako aginduak aktetan bidaltzea, ideiak emateko edo jorratu beharreko gai garrantzitsuak gogorarazteko, etab.).

845. 6.11 PROPOSATUTAKOIA GAUZATZEKO ZER BALIABIDE BIDERATU BEHAR/NAHI DIZKIUGU ERAKUNDEARI?

- 846.** Gure ustez, beharrezkoa da kontratazioak egitea, Koordinakunde Nazionalako kide izango direnak beren ohiko lanaldiaren %50etik liberatzeko eta batzorde nazionalaren bileren arteko zuzendaritza organo gisa herrialdeetako batzordeen kudeaketa indartzeko. Hautemandako beharren arabera, kontratazio horiek lehentasun hurrenkera honetan egitea proposatzen dugu: Gipuzkoa, Bizkaia, Araba.
- 847.** Bi edo hiru lagun zeregin nazionaletarako. Bizkaian, Araban zein Gipuzkoan koka daitezke. Zeregin nazionalak izango dituzte, hiru gai hauetan: prestakuntza (une jakin batekoa edo iraunkorra), aholkularitza ekonomikoa eta lan osasuneko aholkularitza (iraunkorrak). Lehentasun hurrenkera aurreko paragrafoan adierazitakoa izango da.
- 848.** Horrek guztiak lotura dauka sindikatuaren finantzazioari buruzko eztabaidarekin.

SINDIKATUAREN FINANTZAK



VII . KAPITULUA

SINDIKATUAREN FINANTZAK: KUOTA ETA ELKARTASUN FONDOA

- 849.** Finantzen kontua eta bereziki sindikatuko kuota ez dira izan eztabaidagai orain arte sindikatuak egindako Biltzar Nagusietan. Elkartasun Fondoa (EF) bakarrik izan da eztabaidagai, 2005eko urtarrilean sortutakoa, eta haren araudia izan zen eztabaidagaia.
- 850.** Nahiz eta Biltzar Nagusian ez jorratu, kezkatzeko arrazoia izan dira sindikatuan. Izan ere, finantzak eta haiek dakarten guztia (kontratazioak, inbertsioak, ohiko gastuak...) eztabaidagai izan dira, baita kudeaketa- eta aldaketa-gai ere sindikatuko ohiko egituretan eta, bereziki, Batzorde Nazionalan.
- 851.** Azken bost urte hauetan, V. Biltzar Nagusia eta gero, erabaki garrantzitsuak hartu dira, Bilboko eta Donostiako lokalak erosteagatik ordaindu beharreko kredituekin eta bestelako ordainketa finkekin lotutakoak.
- 852.** Behin bost urteko zikloa igarota, Batzorde Nazionalak lokalak erosteko hartutako zor guztiak ixtea erabaki du, baita sindikatuaren ardura ziren EFk egindako ordainketak ere.
- 853.** Horrenbestez, 2024ko urtarrilaren I. lehen sindikatuaren finantzek haren errealitatea islatzen dute eta, alde batetik, inolako zorrik ez edukitzearen indarra daukate, ez kanpokoak (bankuen kredituak), ez barnekoak (EFren aurrerakinak); eta, beste alde batetik, Gasteiz, Bilboko eta Donostiako lokalen jabeak gara.
- 854.** **7.1 KUOTA**
- 855.** 2020ko urtarrilean, sindikatuan kuoten gaia jorratzeko oinarria izango zen dokumentua idatzi zen eta, erabaki egokiak hartu ez arren, lehenengo eztabaida egin zen eta sindikatuko egitura batzuek parte hartu zuten, baina ezin izan zen akordioa itxi pandemiak leher egin zuelako.
- 856.** Azken bost urte hauetan kuotaren kontua aurrean egon da eta, gure ustez, VI. Biltzarra eztabaidatzeko une aproposa da eta hurrengo bost urteetan lasai ibili ahal izateko erabakiak hartzeko tokia.
- 857.** Lehenik eta behin, sindikatuaren gehiengo zabalak uste dituen gai horiek azpimarratu nahi ditugu:
- 858.** - Sindikatuak ezin du inolako kanpoko esku-hartzerik izan eta independentzia man-

tendu behar du pentsamoldea eta estrategia sindikala ezartzeko orduan. Independentzia ekonomikoa izatea beharrezko baldintza da, baina ez da nahikoa, hori lortzeko.

- 859.** - Kuota da independentzia hori mantentzea ahalbidetzen digun tresna, eta barne-mailako elkartasun- eta partaidetza-kultura sortzen ditu.
- 860.** - Badira urte nahiko sindikatua afiliazioan modu jarraituan hazten doala.
- 861.** - Lantokietan sindikatua ordezkatzeko duten pertsonen profila nabarmen aldatu da. Sindikatuaren beste uneekin alderatuta, ordezkari berriek sindikatuko egituren laguntza handiagoa behar dute.
- 862.** - Gizartean eta, horrenbestez, sindikatuaren komunikatzeko moduek ere aldaketa garrantzitsua jasan dute. Gaur egun, sare sozialek, WhatsApp, mezu elektronikoen... erraztu egiten dute, alde batetik, gure ideiak, deialdiak... zabaltzea; baina, beste alde batetik, pertsonak eta teknologia behar dira horretarako eta kostatzen ari zaigu haiek lortzea.
- 863.** - Irizpideak lurralde desberdinetan berdin aplikatu behar dira..
- 864.** Beste kontu batzuk barne-mailan kontrastatu behar ditugu sintonia-maila ikusteko:
- 865.** - Militantzia, are gehiago gure ezaugarriak dituen erakunde batean, bultzatu eta sustatu beharreko balioa da, baina jada ez da nahikoa gure lanari kohesioa eta koherentzia emateko. Sindikatuaren lan egiten duten pertsonen papera gero eta ezinbestekoagoa da gure erakundearen.
- 866.** - Gure sindikatuak ezaugarritu behar duen balioetako bat konfiantza izan behar da eta hori norabide anitzetan izan behar da: afiliatutako pertsonen sindikatuko egituretan eta alderantziz, sindikatuko langileek egituretan eta afiliazioan eta alderantziz...
- 867.** - Konfiantzaren maila berean gardentasunean lan egin behar dugu eta, konfiantza bezala, norabide desberdinetan izan behar dugu.
- 868.** Horrek harreman zuzena dauka finantzekin eta, bereziki, sindikatuko kuotarekin.
- 869.** - Orain arte ezarritako kuotak aldagai bakarra zeukan: sarrera-maila jakina izatea. LGSren gainetik edo azpitik egotea kuota murrizturako eskubidea izateko edo ez izateko banalerroa izan da.
- 870.** - Bestalde, behintzat kolektiboki, ez dugu kuota arrunterako ezarritako kopuruaren baloraziorik egin.
- 871.** - Sindikatua jaio zenetik orain arte mantendutako irizpidea kuota ehunekotan aurreko urteko KPI bezain beste igotzea izan da. Arauak salbuespen bakarra izan du, 2005ean EF sortzea erabaki zenean. Urte hartan, nabarmen igo zen kuota, baina igotzea EFrako bakarrik izango zelako konpromisoarekin.
- 872.** VI. Biltzarrean orain arte zehaztutako irizpideak eta kopuruak aldatzea proposatzen dugu,

ondorengo bi zentzuetan: sindikatuko kuota-kopurua eta bakoitzaren kopurua.

873. Lau kuota mota ezartzea proposatzen dugu:

874. A) Kuota arrunta (%100)

875. B) Kuota murriztua (kuota arruntaren %66)

876. C) Kuota oso murriztua (kuota arruntaren %34)

877. D) Kuota solidarioa (kuota arruntaren %134)

878. KUOTA ARRUNTA

879. Gure ustez, orain daukagun kuota arrunta (A) beregaintasun ekonomikoari dagokionez irizpide antzekoak dauzkaten gure espazio sindikaleko beste sindikatuek daukatena baino askoz txikiagoa da.

880. 2024rako ESK-ko kuota arrunta 17,75 eurokoa da, LABek 20,58 eurokoa du eta ELAk 26,06 eurokoa.

881. Hortik abiatuta, oraingo aldea 2,5 euro/hil kopuruan murriztu beharko genukeela uste dugu.

882. Inpaktua txikiagoa izateko, lau urtetan egitea proposatzen dugu. Horrek suposatuko luke 2025etik 2028ra (biak barne) kuotak aurreko urteko KPlaren igoera izatea gehi 0,063 euro/hil.

883. Kontuan izan behar da 2024an kuota 2023ko KPla igo dela eta VI. Biltzarrerako kuota ezohikoa izango duela. Horregatik, 2029an kuota 2028ko KPla bakarrik igotzea proposatzen dugu eta VII. Biltzarrerako kuota ezohikoa kobratzea.

884. KUOTA MURRIZTUA

885. Kuota honek kontrol eta kudeaketa pertsonalizatua eskatuko ligukeen kuota bakarra litzateke.

886. Kuota honetarako eskubidea izateko, afiliatuak diru-sarrera maila jakinarazi behar dio sindikatuari; izan ere, proposatzen dugun irizpidea lana eta 900 €/hilean (14 ordainsari kobratzen badira) edo 1.050 €/hilean (12 ordainsaritan kobratzen bada) euro baino gutxiagoko diru-sarrera izatea da.

887. Kuota murriztuari dagozkion irizpideak aldatzea urte bakarrean eragin ez dezan, aldaketa hiru urtetan egitea proposatzen dugu: 2025ean oraingo kuota arrunteko %33tik %44ra igarotzea, 2026an %55era eta 2027an %66ra.

888. KUOTA OSO MURRIZTUA

889. Kuota oso murriztuak (C) ez du kontrolik eskatzen, lanbiderik ez duten pentsionistek eta ordainduko lanik ez dutenek baino ez dute horretarako eskubidea izango.
890. Kuota hau ordaintzen duenak, ia bakarrik sindikatuarekin loturarako dena, ez dauka zer-bitzu juridikoak izateko eskubiderik, baina gainerakoak baditu (aholkularitza, sindikatuan bizitzaren inguruko informazioa, partaidetza...).

891. KUOTA SOLIDARIOA

892. Kuota solidarioak (D) ere ez du eskatzen kudeaketarik, izan ere, boluntarioa da, behin afiliatuak nahia adierazitakoan, iritziz aldatu arte mantenduko da. Kopuru minimoa kuota arruntarekin lotuta egongo da (+ %34) eta ez da egongo muga maximorik.
893. Proposatzen dugun kuota-ereduaren aldaketak kuota berriak kobratzean diru-sarrerak igotzeko sindikatuaren konpromisoarekin bat egiten du, sindikatuko langile kopurua handitzeko erabiliko da eta, aipatutako epean, bospasei pertsona kontratatzeak suposatuko duen gastuarekin bat etortzea kalkulatzeko dugu.
894. Zaila da, une honetan, proposamen honek 2025erako suposatuko duena simulatzea, izan ere, ez dugu ezagutzen gure afiliazioaren lansari-egitura; baina, orain dauzkagunekin alderatuta kuota-tarte guztiak igotzean, ondorengo estimatu dezakegu:
895. 2023an 26.745 kuota egon dira (bakoitza hiru hilabetekoa).
896. Guztiak 0,63 euro/hil igoera badute, x 3 hilabete = 1,89 euro/kuota.
897. 26.745 kuota x 1,89 euro/kuota = 50.548 euro 2025ean.
898. Bestalde, 2023an 4.086 kuota murriztu egon dira. Zati bat, zehazteke dagoena, kuota arruntak izango dira ez direlako LGSri lotuta egongo; eta beste zati batek oraindik ere kuota murrizturako eskubidea izango du, baina gehiago ordainduko du: kuota arruntaren %33tik %66ra igaroko da (hiru urtetan).
899. Kuota solidarioari dagokionez, oso zaila da kalkulatzeko, baina 2025eko lehenengo hiruhilekoan zehazki ezarriko da eta, egungo egoerarekin alderatuta, gehitu egin du.
900. Lau urteak amaitzean, gaur egun ditugun egiturazko sarrerak baino 200.000 euro/urte gehiago izango dugu.

901. 7.2 ESK-KO ELKARTASUN FONDOAREN ARAUDIA

902. ATARIKOA

903. Araudi honek Elkartasun Fondoaren funtzionamendua arautzea du helburu.

- 904.** Elkartasun Fondoa, 2005eko urtarrilean sortu eta abian jarri zenetik, sindikatuaren baitan ESKren afiliatuek parte hartzen duten grebekiko elkartasun ekonomikoa kolektibizatzekeo tresna gisa eratu zen, garatu dadin oinarritzko diru sarrera bat emanda mantentzea ahalbidetzeko, ezintasun ekonomikoak ez dezan behartu greba bertan behera uztea.
- 905.** Eredueko sozioekonomikoa zalantzan jartzen duen edozein ekintzaren aurrean —horien artean ekintza sindikala— egungo legeak emandako salto errepresiboaren ondorioz, Elkartasun Fondoak ekintza sindikalean ESK-ko afiliatuek jasandako isun ekonomikoak arintzeko tresna gisa balio digu.

906. I. KAPITULUA: FINANTZAZIOAZ

907. 1. artikulua

908. Elkartasun Fondoa ondoko iturrietatik finantzatuko da:

909. a) Afiliazioaren kuoten %10. Salbuespen gisa afiliazio kuotaren %5 izango da 2019ko uztailaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra arte.

910. 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera kuota %10ekoa izango da berriz ere, baldin eta Biltzar Orokorrek bestelakorik erabakitzen ez badu, uneko baldintza jakinen arabera.

911. b) Elkartasun Fondoan metatzen den kapitalagatik jasotzen diren etekinetatik.

912. 2. artikulua

913. Hiruhileko ekarpenak, indarrean dagoen kuoten ehunekoari dagozkionak, hiruhileko bakoitzeko hirugarren hilabetea bukatu baino lehen egin beharko dira.

914. Elkartasun Fondoak ESKren ohiko finantzetatik banatutako finantza funtzionamendua mantenduko du.

915. II. KAPITULUA: DIRU-LAGUNTZEZ

916. 3. artikulua

917. Elkartasun Fondoaren diru-laguntzak jasotzeko eskubidea izateko, ESKren afiliatuek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

918. a) Kuoten ordainketa egunean izatea.

919. b) Diru-laguntza jasotzeko eskubidea duen momentuan gutxienez hiru hilabete afiliatua egotea.

920. 4. artikulua

921. Eguneroko diru-laguntza eguneroko LGSaren kopuru berakoa izango da.

922. Diru-laguntzen ordainketa hilabete bakoitzeko azken egunean egingo da.
923. **5. artikulua**
924. Elkartasun Fondoaren diru-laguntza jasotzeko eskubidea hirugarren greba egunetik aurrera izango da; diru-laguntzei dagokionez, ez dira kontuan hartuko grebako lehen bi egunak. Grebak bost egunak gainditzen dituen kasuetan, diru-laguntza lehen egunetik ordainduko da. Kasu guztietan, greba egun gisa hartuko da nominatik kendutako benetako lanaldia.
925. **6. artikulua**
926. Aldizkako greben kasuan diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko greba egunak batuko dira, eta 5. artikuluan agertzen denaren arabera jokatuko da.
927. Lanuzte partzialen kasuan diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko greba orduak batuko dira grebako lanaldi kopurua kalkulatzeko, greban dagoen enpresaren edo sektorearen lanaldia eredutzat hartuta.
928. Bi egunetik gora egindako greba bat eta edozein arrazoiengatik bertan behera utzitakoa, gehienez 15 egun igarota berriz deitzen bada arrazoi berdinegatik, greba bakar gisa hartuko da eta 5. artikulua ezarriko zaio.
929. **7. artikulua**
930. Lanaldi partzialeko kontratua duten langileen greben kasuan, diru-laguntzak ondoko irizpideak jarraituta emango dira:
931. a) Fondoaren diru-laguntzei dagokienez, lanaldi partzialeko kontratua, edo horien batura, lanaldi osotzat hartuko da.
932. b) Lanaldi berean hainbat kontratu baleude eta grebak horietako zati bati eragingo balio, eguneroko laguntzaren zenbatekoa egindako greba orduen proportzioan joango da, kontratuetan duen orduen batura osoaren arabera.
933. **8. artikulua**
934. Jasotako soldaten eta laguntzen zenbatekoaren batura ezingo da, inolaz ere, hilabeteko soldata baino handiagoa izan.
935. **9. artikulua**
936. Sindikatuari dagozkion egituretan (Batzorde Nazionala edo Herrialdeko Batzordea) eztabaidatutako eta adostutako ekintza sindikalen ondorioz, sindikatuko afiliaturen batek epaitegiko edo administrazioko zigorrik jasoko balu, aipatutako isunaren zenbatekoa Elkartasun Fondoak hartuko luke bere gain.
937. **10. artikulua**
938. Elkartasun Fondoa behin betiko diru gabe geratuko balitz, egoera horrekin bat egiten duten grebalariek ez lukete inolako diru-laguntzarik jasoko.

939. III. KAPITULUA: KUDEAKETAZ

940. I I. artikulua

941. Elkartasun Fondoaren kudeaketa Batzorde Nazionalaren esku egongo da, zeinak pertsona bat izendatuko duen administrazio- eta finantza-kudeaketaren arduradun.

942. Herrialdeko Batzordeek pertsona bat izendatuko dute probintzian, Elkartasun Fondoaren kudeaketaz arduratuko dena.

943. Izendatutako 5 pertsonak Elkartasun Fondoako Kudeaketa Batzorde bat osatuko dute, eta urteko txostena egingo dute Batzorde Nazionalaren aurrean aurkezteko.

944. Era berean, Elkartasun Fondoako Kudeaketa Batzordea da ezohiko gertaerei irtenbidea emateko arduraduna eta, beharrezkoa balitz, Batzorde Nazionalaren aurrean arrazoituta iritzi bat emateko erantzukizuna duena, zeinari behin betiko ebazpena ematea egokituko litzaiokeen.

945. I 2. artikulua

946. Batzorde Nazionalak erabaki ahal izango du Elkartasun Fondoan pilotutako diruak sindikatuko aparteko beharrak ordaintzeko erabiltzea, bere finantza propioekin egin ezin duenean; inoiz ez bere ohiko funtzionamendurako. Mailegu gisa egingo da, interesik gabe; eta, inolaz ere ez, Elkartasun Fondoaren oinarrizko helburua betetzea arriskuan jarrita, araudiaren atarikoan aipatzen den bezala.

947. Orain aurreikusten ez diren egoerengatik, Elkartasun Fondoa dirurik gabe geratuko balitz, sindikatuak bere gain hartuko lituzte diru-laguntzen ordainketak, jasotako maileguak kitatu arte.

948. IV. KAPITULUA: INDARRALDIAZ ETA MOLDAKETEZ

949. I 3. artikulua

950. Araudi hau 2024ko uztailaren 1etik aurrera aplikatuko da, ESKren VI. Biltzar Nagusiak onartu ostean, eta Biltzar Nagusi berri batek moldatu arte indarrean egongo da.

951. Bi Biltzar Nagusien arteko epealdian, beharra eta premia egiaztatuko balitz, Batzorde Nazionalak araudi honen behin-behineko moldaketa egiteko ahalmena izango du.



